

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

50

Aurkibidea: Igone Etxebarria: *IDATZ & MINTZ* ALDIZKARIAREN IBILBIDEA 50 ZENBAKITAN. **3.** Iratxe Ormatza Imatz: MIESEA. **9.** Lourdes Unzueta: KONTRAZALETIK JAUZIKA. **13.** Miren Agur Meabe: BITSA ESKUETAN. **15.** Bingen Zupiria: NIRE MEMORIAREN MAPA. HERNANI. **17.** Amaia Iturbide: JARRITAKO MAHAIA. **20.** Bene Markaida: LORTU ETE EBEN. **24.** Julen Arriolabengoa: LUBAKIKO AMATXIA. **26.** Jose Inazio Basterretxea Polo: KARAKOLEN DANBOLIN ZURIAK. **30.** Jesus Antonio Etxezarraga: GREKOENAK. **34.** Joseba Aurkenerena: HITLER HENDIAIKO GURUTZEAREN AURREAN. **36.** Johana Bilbao Ortuondo: 50 URTE. **39.** Fredi Paia: FATUE. **40.** Pello Esna: HITZA AHOTS DENEAN. **43.** Miren Ibarluzea: HISTORIAREN PARTE. **46.** Jon Arretxe: ATXINAKO GOMUTAK. **47.** Jabier Kalzakorta: ETXAHUNEN KHANTORE ARGITARAGABE BAT: *AMORUSA GAZTIA*. **48.** Xabier Olaso: ZUHAITZAREN ADARRAREN PUNTAREN PUNTAKO POEMAK. **52.** Lontzo Zugazaga: ARDATZEAN. **56.** Ana Urkiza: ARNASA PILULAK. **59.** Piarres Xarriton: EUSKAL HERRI BERRIKO KANTARIA. **62.** Jesús Antonio Cid: ARCHU FRENTE A BONAPARTE. MODERLOS ANTAGÓNICOS DE APROXIMACIÓN A LA LENGUA. **66.** Iñaki Sarriguarte: *GURE IZARRA* ALDIZKARIA: B. GANDIAGAREN LEHEN TALAIA POETIKOA. **71.** Sebastian Gartzia Trujillo: BITORIANO ETA JOXE, A ZE PAREA! **76.** Arantza Etxebarria: FASIO. **79.** AURKIBIDEAK. Aurkibidea aiez ale. **81.** Egileen aurkibidea. **91.** Aurkibidea literatur generoka. **104.** Separaten aurkibidea. **118.** *Idatz & Mintzen* zenbaki honegaz batera, Jean Cocteau eta Maurice Rostand-en *Les Bucoliques basques / Euskal Bukolikoak / Los Bucólicos vascos* poema agertu da separata moduan, Felipe Juaristik itzulita.


ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etkezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2010eko urrian, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak "Travel and vacation", "Big book of silhouettes" liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1Ingoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizuntza Publikarako Salburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk²

Idatz & Mintz aldizkariaren ibilbidea

50 zenbakitan

Testuingurua etxe barruan

Idatz & Mintz aldizkariaren lehenengo zenbakia 1981ean argitaratu zan, baina egitasmo hori sortzeko, aurretik beste hamabi urteko ibilbidea eginda egoan. Derioko Udako Ikastaroak egiten hasi orduan, eskolak emoteko beste hainbat premia sortu ziran: gramatika-gaiak irakasteko materialak eta ariketak behar ziran, irakurgaiak zuzendu behar ziran... Eta ikasleei Ikastaroa amaitu eta gero euskeraz bizitzen eta euskera lantzen jarraitu gura izan ezkeru, beste bide batzuk emoteko preminea sortu zan.

Labayru Ikastegia erakunde moduan 1977an sortu zan, aurretik Ikastaroaren inguruan sortutako giroari eta ibilbideari babesa eta aterpea emoteko.

Ordura arteko ekintzak, gehien bat, Udako Ikastaroko eta urtean zehar herrietara zabaldu ziran Euskal Ikasturteetako eskolak emon eta material didaktikoa sortzea izan ziran. Harrezkeru, irakaskuntza ez ezik, ikerketa eta hizkuntzaz gainerako beste adar batzuetara zabaldu zan Ikastegiaren jardue-ra.

Ikerketa eta zabalkundea eskutik joan dira beti Labayru Ikastegiaren jarduean. Alde batetik lehengoa batu, aztertu, landu eta bestetik aldian aldiko hartzaile-ikasle-irakurleei emon, gizartera barriru zabaldu. Hori izan da ibilbidea.

Jardun arloei jagokenez, hasieran zabalago jokatzea pentsau bazan be (historia, soziolinguistika...), ibilian-ibilian hizkuntza, literatura eta etnografiara etorri dira. Hiru adar horreetara batu daiteke orain arteko lana, hirurak be zabalak izan arren, ha ta guzti be.

Horren guztiorren sostengu moduan, derrigorrezkotzat ikusten zan liburutegi ona eukitea be, ikerketa egingo bazan, behar-beharrezkoa zalakoan. Holan sortu zan Euskal Biblioteka, gaur egun Derion dagoana.

Literaturako ikerketa bideratzeko, “Mikel Zarate Iker Mintegia” sortu zan. Ikerketarako lan-taldeak eratu ziran, bata literaturara testu hautuen azterketak egiteko, beste bat testu zahar eta esku-izkribuen edizinoak atondu eta aztertzeu, eta hirugarren bat herri-literaturako corpusa batu eta lantzeu.

Horreen emaitza dira ondino be bizirik irauten daberen egitasmo eta lan-ildo batzuk: *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak* aldizkariaren lehenengo zenbakia 1982koa da; Sutondoan liburu-bilduma 1981ean hasi zan, Kirikiñoren idatziak batzen dituan liburuagaz. Ostean etorri ziran Etxeita, Lauaxeta, Otxolua, Erkiaga... Esku-izkriburak lantzen hasitako bidearen emaitza da geroago sortu zan Jarein bilduma.

Horri guztiari sorkuntza alderdia gehitu jakon *Idatz & Mintz Literatur Atalen Sorta* izeneko aldizkariagaz. Aldizkariaren bitartez kultura eta literatura gaiak euskeraz emoteko helburua bete gura izan zan, Labayru Ikastegiaren inguruko laguntzaileez ganera, kanpoko kolaborazioetara zabalik. Halan sortu zan lehenengo zenbakia 1981ean. Azalean gizon potoloa purua erretzen dauka, munduan pozik eta ezereen bildurrik barik dabilenaren itxureagaz, aldizkariaren gogo eta borondatearen erakusle.

Izena Mikel Zarateren ipuin baten izenburutik hartuta dago. Mikel Zaratek hutsune handia itxi eban Labayrun eta bertako lagunengan, eta haren erreferentziak, aitamena eta lanak beti eduki dabe leku seinaladua erakundean. Zarateren ipuinean *Idatz* eta *Mintz* anai bikiak dira, siamesak, gorputzez lotuta dagozanak. Eztabaida handia darabile euren inguruan medikuek banandu edo ez, zer egin. Alkarren beharra dauke, apartean ez dira ezer. Eta hori izan da aldizkarian be literatura ikusteko eta ulertzeko modua: ahozkoa eta idatzia, lehengoa eta oingoa, dana da literatura eta irakurlearentzat onuragarria.

Testuingurua gizartean

Hemeroteka eta bibliografia ikusten badoguz, aton konturatuko gara 1978tik 1985era bitartean zenbat literatur aldizkari sortu ziran. Aurreko urteetan indarra hartuta egozan alfabetatzeko gau-eskolak eta euskaltegiak, ikastolak sortzen hasita, eta euskerea bultzatzeko gogo handia. Baina baita kultur arlo guztietan euskeraz kanpoko herrietan besteko maila erakusteko gogo eta literatur joeretan egunean jartzekoa be.

Sarean Literatur Aldizkariaren Gordailua ikustea baino ez dago: *Ustela* (1975-1976), *Pott* (1978-80), *Oh! Euzkadi* (1979-83), *Susa* (1980-94), *Xaguxarra* (1980-81), *Idatz & Mintz* (1981-), *Maiatz* (1982-), *Stultifera Navis* (1982-1983), *Pamiela* (1983-1993), *Txistu y Tamboliñ* (1983-93), *Kandela* (1983-84), *Korrok* (1984-89), *Ttu-Ttuá* (1984-85), *Txortan* (1984-85), *Porrot* (1984-90), *Plazara* (1985-1992), *Literatur Gazeta* (1985-89), *Zintzilik* (1986-1994), *Enseiucarrean* (1986-1999).

Aldizkariaren egitekoa literaturaren gane-ko ikuspegiak, joerak, gogoetak gizarteratzea izan da. Idazleentzat plaza garrantzitsua da, beti izan da, eta gizartearentzat bizitasuna erakusteko bitarteko bat.

Aldizkaria bera

Gure aldizkariaren izen osoa da *Idatz & Mintz Literatur Atalen Sorta*. Literatur atalok era askotakoak dira, baina batzuk eutsi egin deusie zenbakia joan zenbakia etorri. Honetara laburtuko geunkez.

Ale guztietan ekarten da lehenagoko idazleren bat idazlan eta guzti. Tradizinoari lekua egiten jake aspaldiko testu hautuon bitartez, ederrenetakoak apartauta. Aldizkari, liburu eta papel zaharretatik, edo ez hain zaharretatik hartuta, hainbat idazle ezagun eta ez hain ezagun gaurkotu dira aldizkari honetan lekua eginaz. Zamarripa, Larramendi, Mateo Zabala, Azkue, Utar-sus, Otxolua, Aurre-Appraiz, Gabirel Man-terola... aurkituko ditu irakurleak aldizka-riko orrietan, testu-antologia eta liburu zaharretara joan behar izan barik. Atal hau Adolfo Arejitak hornidu dau gehien-gehien.

“Ahorik aho” izena dauka herri-literatu-rari itxitako tartetxuak. Beti emon jake herri-literatureari literatura balioa, eta aldiz-karian leku apartekoa euki dau zenbaki guz-tietan. Bertsoak, baladak, ipuinak, erre-frauak... herri ondaretik batu eta barrero gizarteratzea izan da aldizkariari ipini jakon helburuetariko bat. Adolfo Arejita hasi zan txatal hau beteten, eta hainbat zenbakitan berak prestau eta aukeratu ditu han agertu beharrekoak. Azken aldian, ostera, Jabier Kalzakortak jarraian idatzi ditu halako arti-kuluak, ekarpen handia eginda, gainera, tes-tu ezezagun eta argitaratu bakoak ekarri dituelako, trankripzino zorrotz eta ohar jakingarriakaz horniduta.

Sorkuntza da aldizkarian lekurik gehien hartzen dauena. Bai narrazioa, bai poesia, eta antzerkia be inoiz edo behin. Narrazioa besteen ganetik dago, alde handiz ganera. Azpimarratzekoa da kolaboratzaile batzuk talde fijo antzekoa osotzen dabela, nahiko modu jarraian parte hartzen dabelako aldiz-karian.

Saio interesgarriak argitaratu izan dira kanpoko literaturetako idazleen, idazlanen eta joeren barri emonaz. Dala herrialde jakin bateko literatura, edo ospe handiko idazleak, edo garai bateko literatura estiloa gai hartutako artikuluen bitartez, irakurleak gure literaturarena ezeze inguruetaoaren barri be eduki dau.

Aldizkaria hiru hilekoa zan hasieran, hau da, urtean lau zenbaki ateraten ziran. Baina urteokaz bira etorrita dago, bata uda hasie-ran argitaratzen da eta bestea Gabon aurre-txuan, urte amaieran.

Aldizkariaren bestelako emaitzak

Idatz & Mintz aldizkariak, orain bilduma osatzen daben 50 zenbakiak ezeze, beste emaitza batzuk be ekarri ditu.

Literatur lehiaketa

Aldizkariak berak deituta egin izan da hainbat urtetan literatur lehiaketa, gehiene-tan narrazio lehiaketa. Lehenengo zenba-kian bertan deialdia iragarri zan hurrengo urterako, eta handik aurrera hamalau deialdi bete dira guztiz. Iragarpena moduan, saritu-tako idazlanak be aldizkarian argitaratu izan dira, eta inoiz saritu bakoak be bai, epaima-haiak horretarako egokiak dirala esan eta aholkua emonda.

Lehenengo deialdiko epaimahaia Jesus Mari Agirrek, Jesus Antonio Etxezarragak eta Bingen Zupiriak osatu eben 1982. Bost aitamen emotea erabagi eben, eta honeek izan ziran irabazleak: Miren Agur Meabe, Miren Maite Billelabeitia, Xabier Artiagoi-tia, Jabier Kalzakorta, Iñaki Sanchez eta Augustin Zubikarai.

Deialdietako baten antzerki laburrak eskatu ziran eta beste baten ipuin fantastikoa, ganerakoak narrazioak idazteko izan ziran, gaia libre itxita.

Hamalau deialdi egin izan dira, azkenengo 1999an.

Lehiaketa bide bat izan zan idazle barriak idaztera ekarteko. Saria irabaztea akuilua izan da batzuentzat idazten jarraitzeko, eta lehiaketa, horretarako atea zabaldu deutsiena.

Galburua liburu sorta

Liburu-bilduma hau sorkuntza lan laburrak argitaratzeko sortu zan. Dana nobelatxu bat, dala narrazio txortatxu bat... horretara atondu izan dira bilduma osotzen daben hamasei liburuak. Horreetatik batzuk, aldizkarian hasitako bidearen jarraipena dira. Behin aldizkarian hiru-lau narrazio idatzita, horreek batu eta beste barri batzukaz batera liburua osotu izan dabe idazleek behin baino gehiagotan. Horregaitik, bilduma hau aldizkariaren jarraipentzat hartu daiteke.

Hona izenburu guztiak:

ARRIOLABENGOA, Julen. «... *Julia diñotsut*». 119 or. 1986.

URUBURU, Laura. *Dalila*. 132 or. 1986.

MEABE, Miren Agur. *Uneka... gaba*. 127 or. 1986.

EGUZKI (Eguzkitza, Jesus). *Blasikoren begitantzinoak*. 79 or. 1987.

NEIRA VILAS, Xose. *Mutiko baserritar baten oroitzapenak*. 119 or. 1988. Itzultzailea: Andres Urrutia.

Pu Songling. *Pu Songlingen ipuinak*. 165 or. 1988. Itzultzailea: Jabier Kalzakorta.

IDAZLE ZENBAIT. *Ekialdeko ipuin miresgarriak*. 151 or. 1988. Itzultzailea: Jabier Kalzakorta.

ELORRIAGA, Yolanda. «*Andra egin zara*». 123 or. 1989.

GOROSTIZA, Jabier. *Ipuin arinak*. 118 or. 1990.

ARRETXE, Jon. *Hakuna matata*. 139 or. 1996.

UNZUETA, Lourdes. *Argilunak begietan*. 121 or. 1991.

URRUTIA, Andres. *Orrialdeak*. 106 or. 1992.

URKIOLA, Edurne. *Inortxok ezer baleki...* 155 or. 1992.

AREGO, Jon. *Berbondo*. 165 or. 2004.

UNZUETA, Lourdes. *Uharak zure begietan*. 160 or. 2005.

RABELLI, Alvaro. *Egurrezko hankak*. 180 or. 2006.

Separatak

Aldizkarian argitaratzeko lantxu bat luzea suertau danean edo bera bakarrik be nahikoa nortasun daukala eretxi jakonean, aparte atera da, separata moduan, aldizkariagaz batera banatzeko. Sorkuntza lan laburrak dira, inoiz itzulpenak be bai, eurak bakarrean be sorta egiten dabela.

Li Po. *Poema batzu*. Itzulpena Joseba Sarrionandia. 3-4 zenb. (1982).

POUND, Ezra. *Cathay. Poemak*. Itzulpena Jabier Kalzakorta. 15 zenb. (1988).

ERKIAGA, Eusebio. *Ez zaitetz Gernikara joan, Lauaxeta*. 18-19 zenb. (1989).

ARRESE BEITIA, Felipe. *Bizkaitar zarrak eta erromatarrek*. 25 zenb. (1998).

MEABE, Miren Agur. *Oi, hondarrezko emakaitz!* 28 zenb. (1999).

MÉNDEZ FERRÍN, X.L. *Tagen Atarako itzulera*. Itzulpena Andres Urrutia. 30 zenb. (2000).

KALZAKORTA, Jabier. *Bettiri Santsen balentriak*. 31 zenb. (2001).

GANDIAGA, Bitoriano. *50 olerki gandia-gatar*. 33-34 zenb. (2001).

DAY LEWIS, C. *Nabarra*. Itzulpena Luigi Anselmi. 37 zenb. (2003).

PEILLEN, Txomin. *Abd El Kader*. 42 zenb. (2006).

ERKIAGA, Eusebio. *Neurtitzak*. 43 zenb. (2007).

ZARATE, Mikel. *Hizunigu*. 45 zenb. (2008).

ITURBIDE, Amaia. *Itzulerarik gabeko txartelak*. 46 zenb. (2008).


GOROSTIZA, José. *Muerte sin fin / Amai-bako heriotza*. Itzulpena Josu Landa. 47 zenb. (2009).

COCTEAU, Jean. *Les Bucoliques basques*. Itzulpena Felipe Juaristi. 50 zenb. (2010).

Irrati saioa

Azkenik, beste era bateko emaitza aitatu behar dogu. Bizkaia Irratiagaz batera, Labayru Ikastegiak ikasturte bitan egin eban *Idatz eta Mintz* izeneko irrati-saioa, 1997-98 eta 1998-99 urteetan, astero-astero.

Saioaren helburua literaturagaz zerikusia euen edukiak zabaltzea zan, horretarako irratia erabilia. Testu ederrak aukeratu eta irakurri, literaturaren ganeko barriak emon, alkarrizketak egin... hori zan saioaren edukia.



Laguntzaileak

Beste aldizkari batzuen aldean *Idatz & Mintz*-ek hainbeste iraun badau, atzetik erakunde bat daukalako izan da neurri handi baten, eta aurrerantzean be horixe izango dau helduleku nagusia. Ha ta guzti be, bide-lagun izan ditu beste batzuk, eta hareei eskerrak emotea legezkoa da.

Diru-sostenguari jagokonez, hasiera-hasieratik lagundu deutso gure aldizkariari Caja de Ahorros Vizcaína-k lehenengo, BBK-k gero. Edizinoa egiteko emondako laguntzari esker eutsi ahal izan jako luzaroan halango lanak dakarren kargari.

2001etik aurrera, Eusko Jaurlaritzagaz eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz lankidetzahitzarmena egiten hasi zanetik, aldizkaria atontzea izan da hitzartutako eta diruz lagundutako programetako bat.

Diseinua hasiera-hasieratik Leopoldo Zugazaren ardurapean egon da. Aldizkariaren itxurea berari zor jako, azkenengo aldian Ikeder-en bitartez.

Eurakaz batera harpidedunak hartuko ditugu gogoan. Harpidedunen bitartez,

diru-babes apur bat lortzeaz ganera, sare bat osatzen da aldizkaria hedatu eta zabal-duteko.

Baina aldizkaria edukiz bete behar da, aldian aldian atera ahal izateko. Guk idazle-talde bat daukagu inguruan, erredakzinoan parte hartzeko. Batzuk sarri-sarri idazten dabe, beste batzuk noizean behin, baina bada nukleo bat edozertarako laguntasuna behar izan ezkeru eurakana joteko modukoa: beste idazle batzuk inguratzeko, kolaborazino jakinak eskatzeko, lehia-keta egiten zanean epaimahaiko egiteko, ideiak eta proposamenak egiteko, nahi danerako.

Gerora begira, begien bistakoa da argitalpenen publikoa, zabaldunderako bitartekoak, argitaratzeko euskarriak, irakurleen interesak eta ardurak, literatura egiteko eta ulertzeko modua... asko aldatu dala eta gure aldizkari hau be ezin da bide horretatik atera. Oraingoz, sendo eta osasuntsu ikusten da, beste hainbeste egiteko gai izango al da!

Miese

Umezaroan Nilek berez hartzen ebazan orria, arkatza eta pinturak, lagunakaz edo neba-arrebakaz olgetan ibilten ez zanean. Apur bat handitu eta gehiago ikasi behar izan ebanean, azterketarako-eta, jaubetu zan pintetea bere ipar-orratza zala, ez zala bakarrik gustuko eban zeozer. Bere bizitzari zentzuna emoten eutsan. Arte ederrak egitea, bekak jasotzea, bidearen berezko zati bat izan ziran.

Horrexegaitik, ho-rre-xe-gai-tik, ezin eban ulertu. Ez eukan zentzunik. Bere ulermenetik kanpo egoan. Hasieran, pentsau eban atsedena behar ebala, besterik ez; eta eginahalak egin ebazan ez arduratzeko, egoereari neurria hartzeko.

Hasierea igaro zan, eta egoereak ez eban berez onera egin, ezta Nilek be. Pinturen eta miesen inguruan egotea eta ibiltea saihesten hasi zan. Bere gogotik aldendu gura ebazan. Baina, jakina, ezin eban gogoa bera baztertu. Gogoa barruan eban. Eta gogoan eban, bai gogoan, bera pintorea zala, pintau egiten ebala ia-ia egunero. Eskuakaz ez ebala ia besterik egin ordura arte.

Igesean hasi zan. Bere miesetatik igesi. Bilboko Zazpi Kaleetan bizi zan, eta bertan ibilten ziran lagunak eta ezagunak. Inguruko artista guztiak bertan batzen ziran, eta gehienak bertan bizi ziran. Gainera, Euskal Herriko txoko guztietatik Bilbora joaten ziran. Helmugea eta jo puntua zan arte-mun-

duan. Lagunek ez eutsen ezer itauntzen, baina, jakina, ezagunek ez ekien ezer, eta galdetu egiten eban, asmo onez. Asmo onak dira, baina, askotan min gehien egiten dabenak. Batzuetan iruditzen jakon azala besteen asmo onek markautako minez tatuau-ta eukala. Besteen asmo onek beti topetan eban azal zati txiki bat, nahiz jantzita eta negua izan, mina marketako.

Hori ez zan, ostera, arazo-arazoa. Arazoa, benetakoa, gorputzaren munean eukan, erraietan. Etorria eten jakon. Beharbada, ordura arte izan eban etorria Platonen kobazuloko irudien antzeko zerbitz izan zan, beste zeozeren espilua. Agian, jatorria ez egoan bere baitan.

Pinturen eta miesen bidetik atera zan, antza. Ezin jakin noz, zein momentutan, non, zein lekutan. Ezin ikusi, are gitxiago aurkitu, artearen bidera atzera eroango eban bidezidorra.

Bildur zan; areago ikaratuta egoan, erabat arroz-tuta sentiduten zan.

Bilbon asteak igaro arren, onera egiten ez ebala-eta, gurasoenera, Iruñera, alde egin eban. Bakarrik bizi ziran eta gurasoek ondo hartu eban, ez eutsien itaunik egin, eta berak, esan ez arren, eskertu eutsen. Etxean ez ziran berba askorik egitekoak, dana dala.

Gaztelu plaza inguruko taberna batetik urten eta unibersidade sasoiko lagun bat ikusi eban. Leioan

ikasten ibili zanean, koadrilakoa zan, batez be, gaez. Pastillak, azidoa, *surre*-eta edatekoagaz batera nahastetan ibiltzen zan sasoiari. Batzuetan, etxera joan eta gorputzean koktel harekin zer pintauko eban zan bere jakin-minik handiena. Beste batzuetan, gogo-aldartearen arabera, bata edo beste hartzen eban pintetako, eta gustuko eban.

Hain zuzen be, ohartu zanean lar gustuko ebazala, baztertu egin ebazan, baina ez erabat, jakina.

Iruñean, arpegi ezagun ha ikusi orduko, beste aldera joateko egon zan, baina besteak bera ezagutu eta agurtu egin eban. Barrua iruli jakon aurrez aurre ikusi ebanean. Hazurrak eta begiak arpegitik kanpo eukazan, mamina eta azala guztiz janda. Ezin izan eban izena gogoratu. Besteak gogoratu eban, osteria; aupa Nile, zer moduz esan eutsan.

Etxera joiala kanika lako begiak burutik baztertu ezinik, arte-galeria baten ondotik igaro zan. Arratsaldean inaugurazinoa egitekoak ziran kartelaren arabera. Kaleko beste aldera joan zan, jakinda arte-galeriak ez eutsala deituko, nahiz bera ezagutu; urte bi lehenago han egin eban Iruñeko azken erakusketea. Bat-batean akordura etorri jakon izena: Pui. Piluka be esaten eutsen. Artista izan gura eban Bilbon, alkar ezagutu ebanean. Puiaren berbetan, kalean marrazkiak egiten ebazan, ahal ebanean, eta horregaz diru apur bat batu. Hauts zuria ixten ahalginak egin ebazan, sartu-urtenak, inoiz itxiko ebakoan.

Bilbotik Iruñera joan zan pentsautu Iruñea leku aproposa izan eitekeala atsedean hartzeko, giroa aldatzeko. Hilebete, gitxienez, egin eban Iruñean, baina hobekuntzarik igarri barik. Eta ia astebete, Pui lehenengo aldiz ikusi ebanetik. Harrezkerotik, Puiaren irudi zurbila kapar baten antzean geratu jakon sahietsetan. Barriro be kalean begiz begi izateak uzutzen eban. Iruñea ez zan ordurako atsedean

hartzeko lekua. Bere buruari koldarra, koldar hutsa izatea egotzi eutsan, hori zala-eta handik joan nahi izateagaitik.

Eguzkitan kafesne baten aurrean, zer egin gura eban pentsetan egoala, gogoratu eban berbea emonda eukala Bartzelonako arte-galeria bategaz erakusketari egiteko, baita Hondarribiko dirudun bategaz be koadru bat egiteko. Ezin, ordea, pintzela hartu eta beharrari ekin.

Hasiera-hasieran itxaron egin eban, armozua amaitu arte, bazkaldu arte, afaldu arte, gauera arte, hurrengo egunera arte, egunsentira arte, arratsalderara arte, astelehenera arte, zapatara arte, lagunak etxera joan arte, nonogaz telefonoz berbetan amaitu arte.


Baina arte horreek ez ziran arte bihurtzen, ez. Besoek, batez be ezkerrekoak, pintetan ebanak, hamar kilo inguruko pisua hartzen eben eta pintzelari eustea ezinezkoa jakon.

Besoak eta eskuak baino okerragoak ziran begiak eta belarriak. Begiakaz pinturak ikusten ebazan, margolanak, etxeko edozein txokotan, kaleko edozein bazterretan, mendiko edozein tokitan. Miesearen ertzakaz ikusten eban dana. Ikusi bai, baina ezin eban bidea egin ikusten eban hori bere barrutik igaro eta miesa zurian margolan bihurtu arte.

Musikea edo berba solteak entzun eta bardin pasetan jakon. Berbea, doinua zelan pintura bihurtu ez ekian, des-ikasi izan baleu lez, ezin eutsan inpirazino-iturriaren emoiari eutsi. Etsita egoan.

Iruñetik Donostiara joan zan. Ezin zan luzarogo Iruñean egon, eta Bilbora be ezin zan itzuli. Etxeko sofara leku bat egin eutsen. Alain eta Maider unibersidadean alkartu eta Donostiaraino ailegau ziran. Zoriontsu ziran, antza.

Donostiako artelan guztiak ikusi ebazan, portuan jesarri, Mitxelena irakurri, alde zaharreko tabernetara joan. Baina ezin ezer boltsikoko koa-



dernuan zirriboratu. Uria ez zala horretarako aproposa be pentsau eban, lar polita zala.

Etxeko balkoiko belarmintz landareari begira, asteak (pintzela esku artean hartu barik) eta landarearen orriak parean jarri ebazan. Esku bien atzamarretik gora: bai asteak bai orriak. Mamintsuak ziren landarearen orriak, barruan perlaren bat gordeko balebe lez. Nileri bere baitan inoiz izaniko perla guztiak galdu ebazala iruditu jakon.

Zer da pintore bat pintau barik? Hustasunez beterik sentiduten zan. Zer zan bera pintau barik? Ikuslea, irakurlea, entzulea, baina zer gehiago? Jasoten eban gorputz bat: idatzitako berbak batzen ebazan, irudiak, margolanak, filmak, bizia hartzen ebazan, doinuak, berbak, musika, baina ezin ezer sortu, emon, eskini, zabaldu, bere gorputz mugetatik harago joan. Kartzela itxia zan bere gorputza, ezebezaren gotorlekua. Hutsunearen zuloa.

Ordenagailuan bizpahiru mezu elektroniko erantzun ebazan. Mezu batek artista finlandiar baten webgunearen barri emon eutsan. Ez eban artean esperantzea galdu. Finlandiako pintore haren webgunetik beste batera joan zan, webgunez webgunez makina bat artelan ikusi eban, sarean erabat murgildurik. Denporearen neurria galdu eban ia. Lehenengo aldiz bere burua ahaztu eban, eta artemunduan ibili zan, ia ikutu, ia usaindu arte. Gauza onak ikusi ebazan, erdipurdikoak eta txarrak, azken horretariko batzuk handiusteak ganera. Hutsalak be ikusi ebazan. Jauzika ibili zan bera harrizko ahalmena ebenen bila. Munduari begiratzeko hamaika modu bere begietatik ikusteko beharra eukan.

Gau haretan hobeto egin eban lo. Ez zan gauerdian izartu, ez eban izerdirik bota, ez eban izan ameseta txarrik. Lo egin eban, sakon. Subkontzien-

teak ez eban ikaratu. Antza subkontzientea bera be loak hartu eban. Hurrengo egunean halako arintasan bategaz jagi zan, ia eguerdian. Etxean bakarrik, laneguna zan.

Barriro be barruko bakartadea etorri jakon lagun egiten, hain bakarrik ez sentiduteko, antza. Lan bat izateak lagunduko eutsala pentsau eban. Ordutegi bat egunero, soldata finko bat. Baina berehala itogarria egin jakon. Arnasbideak estutu jakozan, bihotza putzitu. Balkoira urten, arnasa sakon hartu eta arbolei begira geratu zan. Leku ederrean egoan etxea, parke baten ondoan.

Maiderreri eta Alaineri esan eutsen gura izan ezkerero, umeagaz gauez geratuko zala, eta, halan, afaltzen edo zeozer hartzen urteteko; hareek baietz, eta ea prest egongo zan beste ume bat be jagoteko itandu eutsien. Halan ba, neskatotxu bigaz geratu zan: Mikele lagunaren alabea, eta Malen. Afaltzen emon, ipuina kontau eta lotan ipini ebazan. Hamabiak aldera, telebista ikusten egoala, Malen etorri jakon. Zer egin ez ekiala, ipuin bat kontau eutsan,

eta beste bat; umearen begiek, gero eta itxiagoak barik, gero eta zabalago begiratzen eutsen. Ezkartzera joan zan ur bila, ea zer edo zer bururatzen jakon, lehenengo aldia zan gauez ume bategaz egoana. Malen, barriz, sofatik koartora joan eta pinturakaz bueltau zan. Nilek arnasea hartu eban, bakarrik egon gura eban. Malenek goxo-goxo beste ipuin bat eskatu eutsan marrazki eta guzti. Ez eukan gogorik, ez adorerik. Ezin eban, ba, umeak oherako bidea hartu eta bera bakarrik itxi? Bere buruagaz haserre, marrazten eta ipuina kontetan hasi jakon. Lehenengo orrian ume bat, itsasoa, etxetxua, eguzkia. Bigarren orrian, gaua egin zan eta iretargia pinta eban, ipuineko umea lotan jarri eban, eta handik gitxira, amesetan hasi zan, eta Nile era nahikoa surrealistan marrazten hasi zan, ipuineko umearen ameseten atzetik. Malenen hamabi koloreakaz hirugarren orria be bete eban. Begiak orritik aldendu orduko, Malenenak bere amesetan bilduta egozan. Telebista amatau, umea ohera eroan eta sofan jesarrita kolorez jositako orriari begira geratu zan.

Kontrazaletik jauzika

Iribarrea. Iribarrea erakusten deust. Begira naiagoko eta irribarrea erakusten deust kontrazale-
tik. Bide luzea daukat egiteko dinost. Bide ertzean
nago ni. Erdu neugaz dinost. Ez dakit zer erantzun.
Ez dakit zer egin. Bide luzea laburra izan daiteke
eta. Zertarako orduan bide ustez luzeetan abiau.
Iribarrez dinost, bidea baina malkartsua izan daite-
ke niretzat. Zertarako orduan bide ustez erosoetan
abiau. Erantzun bat izan daiteke. Ez dakit.

Berak, baina, irribarretsu jarraitzen dau. Neure
zain. Zeuk erabagi. Zeuk ikusi dinost. Zer ikusiko
ete dot. Bidaiariaren oinatzak lupetz idorretan, nau-
fragoen hondakinak neguko hondartzetan, faraoia-
ren kerizpe itzelak ezabatutako arkitektoaren arima
erratu. Erregina gurakoa edurrez jantzita gaztelua-
ren erdi ilunetan, eskolara bidean galdutako umea,
burua txori hegalariz betetako gaztea. Bide ertzetik
pausua emon eta abian naz neu be. Aurreko guztie-
kaz bidean. Erdu geugaz, eta hantxe noa.

Hantxe noa, kontrazaletik saltu egin eta orri arte-
an bidea zabalduz. Di-da aihotza eskuan. Basoaren
itzalean eguzkiaren argia sartu daiten. Ri-ra bisturi
fina atzamar artean. Eguzkiak diz-diz berotuta odo-
laren gorria azaleratu dagian. Argia eta iluna, dane-
tik dago-eta bidean.

Argia eta iluna dinot, eta kontrazalekoaren irri-
barrea desagertuazo egin dau. Nora joan ete da. Zer
uste zenduan ba dinotsat haren bekozko ilunari.
Dana erraz, berez-berez eta ijiji-ajaka joango zina-
la bidean. Kontuz, kontuz iluna argi bihurtu gurean
aihotzak eta bisturiak zure aurka egin ez dagien.
Basamortua bera be aurrean izan daikezu. Basa-
mortua argi-argia da eguzkipean. Basamortuaren
alde batetik bestera igarotea, ez horren argia eta
distiratsua. Eta ez dago atzerabiderik, ezin izango
dozu orri artetik kontrazalera barriro jauzi egin.

Duda mudatan dago kontrazaletik irribarre
zegiena. Zer egin ez dakiala dabil orri artera jauzi

egin dauanak. Nora jo ez dakiela, bata eta bestea. Kontrazaleatik saltu egin ebalako, hori egiteko izan eban adorea, pozik. Kontrazalak emotsan abarro gozoa galduta, babes minak jota. Orri pasan dabilena, orri artean trabatuta eta sor eta lor gelditu dalako, triste. Orri artera jaurti eban ausardiaren minak jota.

Bata besteari begira gelditu dira, bekoz-beko. Non dago zure irribarrea. Non zure adorea. Zergaitik ez dogu bat egiten. Zergaitik ez dabe bat egiten, zure irribarreak, nire ausardiak, geure argi ilunak.

Bat egin. Eta goazen. Nora. Hara, han dantzut bihotz beiratuen melodia, doinu ederra dakarst oroimenak. Goazen hara. Baita haratago be, Canterburyko katedralaren argiteria urdinkarak liluratu eta itsutu gaizan. Ibili eta ibili zer aurkituteko,

lurraren mugak jo eta itsasoraino helduteko, ur ganeko lurretatik ibili eta gero itsasotik datorkenari begira-begira geldituteko, jakin badakigun arren Atlantikoa ez dala danontzat bardin. Ibili eta ibili zer ikusteko, uharak zure begietan ikusteko.

Badator barriro irribarrea, badator, xaloa eta lañoa hasieran, argiagoo eta mazalagoa azkenean. Asko ikusi dauanaren irribarrea. Hamaika ikusteko eta biziteko daukanaren aurpegiera. Irribarrea erakusten deust barriro. Begira naiagoko eta irribarrea erakusten deust, bardin kontrazaleatik zein orri tartetik. Erdu neugaz dinost. Ekarzu bide-zorroa, arina hori bai. Bidea, agian luzea, agian laburra egingo jatzu. Bardin deust, banoa. Horra hor nire erantzuna, banoa.



Bitsa eskuetan



Patti Smith Rimbaudekin ametsetan

Patti Smith liluratu egin zen Rimbaudekin. Poema bat idatzi zion, amets bat, non aipatzen zituen Charleville eta Abisinia, soroak, ur-putzuak, zauri bat begian kristal batez egina, esku handiak, masaile gorizontak, logela bat, begirada ustez axolagabeak. Arthur belauniko, negarrez, belaunetatik helduz Pattiri. Patti ohean etzanda, iletik helduz Arthurri. Sugarra dira ilea eta biloa, o Jesus! Orratzak atzamarrak, o Jesus! Zeurea naiz osorik.

Horraino poemaren laburpen badaezpadakoa. Eta horren harira, neure txanda.

Andre birloka naiz. Uztaila da, zapatu bazkalos-tea, neure baratzean, atea ertirekirik. Zozo-bikotea palmondoaren ezkatetan, moko laranjekin eltxo bila. Etzanda nago olanazko jarlekuan. Labandaren firfira. Ura ipini behar dut tea egiteko. Eskutik labain egin dit Pattiren poema-liburuak. Rimbauden antologia elebiduna Bilbon daukat. Hara, lagun hark oparitu zidan, otso-lanak egiten zituenak, nire

45. urtebetetzean, eta horrexekin izorratu ninduen zeharo. Hain nengoen burbuila uherra bihurtua, punp egiteko irrikaz, hain nintzen jostura gaizki lotua, urratzeko desiraz. Halaxe agintzen zuen bizitzak orduan, esan dezagun, nahiz eta kontua ez den, inondik ere, batere xinplea, batere.

Marigoringoek kilimak egiten dizkidate berne-tan, eta uraz pentsatzen dut, ahoa lehor. Hola, guapa, esan dit etorri denak. Ahots hori aiztoa da arrastirian, o Jesus! Gaixorik egon zara, printzesa, neuk prestatuko dut tea, masajea emango oinetan, sandaliak kentzen lagunduko, zu lasai, sirena ilegorria. Azukre epela bihurtu zait txistua. Ezin begirik ireki, indarge ni begi berdantzetan dzanga egiteko.

Hotzikara eragin dit koilaratxoak bular artean. Kikara beroan sartu ditu berak atzamarrak, intziri bat ito du. Ezpainetan ditut orain haren hatz luzeak. Zantar hori. Txupatu egiten dizkit belaunak bere lixazko mihiarekin. Mahaspasa eta ronezko izoz-

kiak dituzu belaunak, Meibi, maybe, agian, Meabe, akaso. Goazen barrura, ez egin dar-dar. Ahotsarekin irentsi nau, galdua ni marraxoaren eztarrian.

Parasma-metxak hagetan, planeta burdinkarak erlojuetan, txori-hezurak altzarrietan.

Ez naiz beltzarana, ez naiz liraina, ez naiz argia, ez naiz gaztea, ez naiz ahalduna, ez naiz zangarra, ez naiz, ez naiz, ez naiz aingerua, ez naiz deabrua, ez naiz ezer ez bada bizi izan naizena, oroitzen dudana, eta neure izena, izan nahi dudana. Har eza-zu buelta, Goikokaleko neska txiki hori, neuk sendatuko zaitut neure esku handiekin.

Marraxoaren bazka ipurmamiak. Egin dzast, dzast, dzast, eder hori, hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas. Martiri bat bezala ireki naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeurea naiz osorik, aleluia. Neurea zara osorik, aleluia, o Jesus!

La jolie fille-ren automitologia

Maite ditut parentesiak, masail irriberen antzeko esparru kontrolatuak, etxera apur bat berandu iris-tea, paisaiaren iodozko kontrasteak.

Maite ditut zehaztasun zalantzagarrria, deskribapen inozoak, arrisku baimendua, narritadura eta pixagura eragiten dituzten fosforeszentziak.

Txikitan, urrezko eskumuturreko bat utzi nion neska koxkor bati, berak zabu bat uztearen truke. Etxetik bidali ninduen amak gero, iruzurtiaren bila. Neskatoak ukatu egin zuen gure ituna. Agiraka egin zidatelako gogoratzen dut tratu gaizki egindako hura.

Beste behin —marea bizien sasoian, olatuen kipur horixkak harrapatua baitzuen hondartzaren okotza, zornezko sufle baten antzera—, neska berberak eta haren lagunek biluztu egin ninduten familetan jolasteko, neu nintzela-eta denen panpina. Olatu batek ipurdia busti zidan. Ur lohi hura eta mutiko atzeratu baten begirada gomutan ditudalako gomutatzen dut nire deslaitasuna. Gomutan, halaber, hotza eta lotsa.

Badihardut, beraz, negozio eskasak zenbatzen, kuleroak neuretzat gordetzen, ur nahasiak miatzen, iragana neure alde baliatzearen ezorduan jaikitzen. Otoitz egiten dut inoiz gal ez ditzadan torlojuak doitzeko behar ditudan hatzak.

Zenbat neskato bortxatu dituzte gaur Burundin? Zenbat mutiko hil dira azken minutuan Darfurren? Afganistango haur bat mintzatu zait argazki batetik: “Une bat izan nintzen, ez besterik, mosaiko geometriko handian, tesela galkor bat, hain erlatiboa. Gero, dorreen ahoek nire itzala irentsi zuten, eta ez zen ezer gertatu. Amaren ahotsa entzun nuen nire izenaz erditzen, hormako arrakala bat bezala. Gaur egun lasaia da. Nire oinak zaborrontzi batean geratu ziren. Nire bizitza beste alanbrada bat da”.

Hona hemen berriz bestelako hotza eta bestelako lotsa. Utz ditzadan bakean babesgabeak. Ez, ni ez naiz inor zuek nik ahotan hartzeko.

Au revoir, la jolie fille, à jamais, la petite, tout est déjà bien vu au temps des adieux. Ça va bien ce soir; hau ez da ezer. Erre ditut koltxoia eta fakturak, argazkiak, pilulak eta postalak. Ça va bien ce soir; hau ez da ezer. C'est la vie en rose, zoriaren ferra, c'est la vie en rose, anfibioon gerra.

Nire memoriaren mapa. Hernani

Kaixo, aita. Zer moduz? Hernanitik nator, hileta elizkizunetik, eta kontatu egin behar dizut. Eliza beteta egon da eta hainbat ezagun agurtu ditugu irteeran. Eta badakizu, agurrarekin batera, kontu-kontari, beste garaietako kontuak ekarri ditugu gogora. Zuen haurtzarokoak, geureak, gerra garai-koak eta gaurkoak.

Memorian su txikiak piztu zaizkit. Oroitzapenak eta entzun berriak trumilka nahastu zaizkit. Eta puntuak lotzen hasi naiz, nire memoriaren mapako tokiak, oroitzapenak, hutsuneak eta pertsonak elkartzuz. Eta etorrerako bidean pentsatu dut “hauek aitari kontatu behar dizkiot”.

Badakizu. Inoiz kontatu dizut. Ruper Ordorikak badu disko bat, oso polita, Memoriaren Mapa deitutakoa. Joseba Sarrionaindiaren testuetan dago oinarritua. Oso entzungarria da. Zenbait kantutan, nerabe ginela Hernanitik Bilbora etortzen hasi ginenetik ezagutzen joan ginen hiri uherraren oroitzapenak datozkit gogora, Ibaizabal zikina, orduko ezagunak, Unibertsitatea...

Baina diskoko kantik entzutea bezain interesgarri da, CDaren azaleko liburuxkan, kanta bakoitzaren sarrera gisa, Sarrionaindiak berak idatzitako testuak irakurtzea. Testu bakoitzak pertsonai bat irudikatzen du, fikziozko edo haragizko, eta seguruenik haiek ere beste norbaiten memoria-zati dira, beste mapa bateko puntuak, munduan zehar sakabanatuak, sarritan isolatuak eta deserriratuak, elkarbizitzako etorkizun batek bere baitan nekez onetsiko dituen lagun izoztuak. Memorian izoztuta. Bizitza lapurtuta gure arte-
tik eraman zituzten beste haiek guztiak bezala.

Ah! Eta badakizu nor ikusi dudan? Felipe, Arabaolazaren semea. Hauek non bizi ziren? Jose Mari tabernaren gainean, ezta?

Ez dizut behin ere kontatu, aita. Amari ere ez genion esaten. Bagenekien ez zitzaiola gustatuko. Baina guretzat Jose Mari taberna toki berezia zen eta ez genuen inondik ere etxean kontatu eta aukera hura zapuzten ikusi nahi.

Arturo deitzen zen Jose Mari tabernako nagusia eta aste barruan ia egunero joaten ginen hara,

eguerdian, ikastolatik atera eta bazkaldu aurretik. Laguntza behar izaten zuten tabernako lana ateratzeko, botila hutsak kaxatan sartu eta freskera eta txorroak errefresko eta botila betez hornitzeko. Baita zabor poltsak bete eta botatzeko prest uzteko. Ez zigun denbora askorik kentzen eta trukean pintxooren bat eta sos batzuk eskuratzen genituen. Amak jakin izan balu!

ETAkoek garbitu zuten Arturo, emazte eta alabaren aurrean, eta zabor poltsa bat bezala lurtean zerraldo utzi zuten, kalean, auto-bazterrean. Herrian ez zuen inork txintik atera eta Hernaniko eliza handi hura hutsik geratu zen. Bost katu familiarri laguntzeko! Beste inor ez! Ez dut inoiz haren aldeko hitzik entzun herrian. Ezta haren omenezko oroigarrikerik ere.

Jose Mari taberna Kale Nagusian zegoen, eta Plazatik behera abiatzen den beste kalean, Andre kalea deitzen zenioten hartan, askotan bisitatzen genuen beste toki bat zegoen, Felipek bere lanerako erabiltzen zuen tokia. Zulo txiki bat zen, etxe bati kendutako gela baten tamainakoa. Felipek zapata zaharrak konpontzen zituen eta, amak aginduta, etxean hondatzen genituen oinetako guztiak hara eramaten genituen. Felipek askotan huts egiten zuen lanera, batez ere uda garaian. Atabalaria zen. Kaxa jotzen zuen txaranga ezagun batean.

Goizalde batean –parrandan omen zebilen–, tiro hotsak entzun ziren, eta karkaba bazterrean garbitu zuten pistolero batzuek. Zu kanpoan izan zinen egun haietan eta ez zenuen ikusi herriko giroa. Jende asko mugitu zen elizara eta kalera. Lantegi eta dendak itxita geratu ziren. Plaka oroigarri bat dauka eta kale bati haren izena eman zioten.

Oroitarriez ari garela, aita, plakarik gabe geratu ziren beste batzuk datozkit gogora. Hernaniko hilerrian, gerra garaian, zulo handi batean pilatuta lurperatu zituzten haiek. Ondarretako kartzelan fusilatuta zituzten eta Hernanin zulora bota, hainbat herri-

tar anonimo eta bederatzi apaiz, tartean Aitzol, Lekuona eta Onaindia.

Ustez hilerriaren bazter batean utzi zituzten, hesituta egon zen toki berezi batean. Zurekin eta amarekin urtero joaten ginen hara, otoitz egitera. Ez genekien oso ongi zergatik joaten ginen, erdi isil, erdi beldur, baina zuek erakutsi zeniguten bidea.

Baina ezetz jakin, bisita bat barik bi egiten genituela urtero toki hartara? Santu guztien egunean, funtzioa izaten zen eliza nagusian eta jarraian prozesioa, elizatik kanposantura. Gu apaiz-lagun ibiltzen ginen. Prozesioan kanposantura iritsi eta bi edo hiru tokitan geratzen zen apaiza, otoitz dedikatuak egitera. Dena amaitutakoan, parrokoa, isil isilik –ez zuen abisurik eman beharrik; prozesiokoek bazekiten zertan ari zen– bazter hartara abiatzen zen eta isilean geratzen zen jarraitzen ziotenekin batera. Ezin izan nuen inoiz ulertu, aita, zergatik ez ziren inoiz otoitzaldi hartara hurbiltzen herrian beste prozesioak egiten zirenean etxetako balkoiak bandera handiz hornitzen zituzten plazako familia santujale haiek guztiak!

Kanposantukoei ere jarri diete oroitarria, aita. Oraindik ez da jakiterik izan nortzuk, ez zenbat izan ziren hildakoak. Ezta non dauden ere. Hala ere, gertaera hura urte askotan isilik eta beldurrez bizi izan zen jendearen memoriarekin batera itzali ez dadin, oroigarri eder bat eraiki dute hilerri sarrean haien ohorez.

Etixerako bueltan, osaba apaizarekin gogoratu gara, eta oroitzapenen harira zuk kontatutako pasadizoa ekarri dugu geure hizketaldira. Egia esanda, urteetan zehar osatuz joan garen historia izan da. Beste asko bezala, aita. Ez dut inoiz ulertu zergatik ez zenigun behin ere kontatu gerrako ibileren berri. Gauza gutxi dakigu: Hernanin hartu zintuela gerrak, 1936an, eta etxetik ihesi gudari joan zinela. Saseta batailoia, metrailadoreen konpainia. Azpeitia galtzen ikusi zenuen Izarraitzeko maldetatik,

Gernika suntsitzen eta Bilbao erortzen, Artxandan behera. Gero Santoña eta azkenean Andaluziako langileen batailoia. Ez zenigun xehetasun gehiago eman. Guk gerra giroa nolakoa izan zen jakin nahi genuen, nola tiro egiten zenuten, inoiz inor jo ote zenuen... Baina gure jakin nahiak ez zuen inoiz gure gustuko erantzunik izan.

Guda ondorengo zuen etorrera nolakoa izan zen ere ez dakigu. Nola bueltatu zineten herrira? Nola itzultzen dira etxera galtzaileak? Nola hartu zintuzteten irabazleak? Nola berreraiki zenituzten haieki-ko harremanak? Nola joan ziren gauzak itxurazko normaltasunera etortzen? Ez zenigun honen berri eman, aita, eta gure mapan ez da urte haietako arrastorik geldituko. Barkamen zantzuak nabari ziren, baina ez ahanzturarenak. Baina hori ere argitu gabe geratuko zaigu.

Baina osaba apaizaren kontuarekin hasi naiz eta ez dut bukatu. Txikiak ginela zertzelada batzuk baino ez zenizkigun eman. Gerora orde, kontakizuna osatuz joan zinen eta gogoratzen dut zurekin Zanbrana Arabako herrira egun pasa joan ginen batean eman zenigula historia osorik lehenengoz.

Gerra aurea zen eta Hernanin giro gaiztoa zegoen. Sozialistak pistolaz armaturik ibiltzen omen ziren. Goizalde batean tiro hotsak entzun ziren.

Aranburu, zure lagun mina, bazterrean zerraldo. Ikusi izan ditugu etxean haren hileta elizkizuneko argazkiak, eta elizatean, hilkutxa sorbaldan, zeu ageri zara. Zure lagunek, zurekin kezkatu, herri- tik ateratzeko esan zizuten. Osaba apaiza Zanbranan zegoen –hilabete batzuk beranduago, gerrak han harrapatu zuen– eta, horren susmorik gabe, hara joatea erabaki zenuen, anaiarekin egun batzuk apaizetxean igarotzera, herrian gauzak lasaitzen ziren arte.

Gogoan dut, 60 urte geroago, zurekin Zanbrana bueltatu ginen hartan esan zenigula lehen aldiz, Hernaniko lagunek badaezpada pistola bat eman zizutela. Eta zuk apaizetxeko gelan utzi zenuela.

Gau batean, kalean zinela, tiro hotsa entzun zenuen eta korrika bueltatu zinela pistola bila. Apaizetxera sartu eta anaia han, sotana jantzita, zure arma eskutan zuela. Pistola bat nolakoa zen jakin ez, eta jakin minez hartu omen zuen. Eta ikusmiran ari zela, ustekabe, pum!

Eta Zanbrana-ko frontera!

Oroitzapen hauekin utzi dugu Hernani, aita. Aspaldiko ezagunen eta maite zintuztenen agurra eta goxotasuna jaso ondoren. Eta hemen naukazu, memoriaren mapari buelta eta buelta. Tokiak, pertsonak, zorrak, oroitzapenak puntuz puntu finkatzen.

Jarritako mahaia

Aldameneko hirian eta itsasotik gertu zegoen zaharren egoitza hark kanpotik ikusita, behintzat, nahiko itxura txukuna zeukan. Lorategiaren puskarren bat edo beste beti zegoen zimelduta, teilatuaren ezkerrean teila batzuk falta zitzaizkion eta aurrealdean kedar orban batzuk ere bazituen. Ataritik gertu zeuden zuhaitzei aldameneko zumar-kaleko zuhaitzei baino gehiago kostatzen zitzaien loratzea, baina detaileok izan ezik, bestelako alorretan ezer gutxi desberdintzen zen inguruko etxebizitzetatik: eguzkitara jotzen zuten leihoak zeuzkan, errezel fin eta estanpatuez estaliak, eta atari zabal bezain abegitsuak. Misteriotsua iruditu zitzaion Itziar Oizi zaharren egoitza hura. Begi aurreko ikuspegi hura xehetasunez xehetasun aletzen ibili zen, hizketari heldu aurretik:

–Telefonoz adierazi bezalaxe, Itziar Oiz naiz, hirugarren adineko jendearekin inoiz lan egin gabea izanagatik ere, edota, horregatik beragatik, zaharrak zaintzen uda osoa eman nahi nuke.

Itziar Oizi hitz gutxiko agertu zitzaion harreragilea, agian bakardadera ohituta zegoelako, agian solaserako gogo gutxi zeukalako, baina gauza da langile faltan zeudela eta ondo zetorkiela Itziar Oiz bezalako jendea. Egoitza barruan ibiltzeko guztiek erabiltzen zuten txabusina urdina luzatu zion («badakizu hain gertu dugun itsasoaren kolorearekin jokoa egiteko» azaldu ondoren).

Bigarren asterako laster jabetu zen zaharren egoitza barruko egoera gordinaz, estatistikek eta egunkari zein telebistako albisteek ziotena baino gogorragoa zela errealitatea, kanpoan lorategia egon arren eta barruko funtzionamendurako arautegietan iradokizunetarako gutunontziak, proposamenak egiteko orriak edota opor bidaien katalogoak bazeuden ere. Egunak astun eta inozo igarotzen ziren. Hormak nahiko pitzatura eta zartatuta zeuden, maindireek kendu ezinezko orbanak zeuzkaten eta baldosek zein azulejoek konposaketa geometriko bihurtuak bezain monotonoak erakusten

zituzten, bertigoa sortarazten duten horietarikoak. Funtzionamenduari dagokionean, gauzak beti berandu heltzen ziren eta egitasmoak ez ziren ia inoiz burutzen. Bertako zaharrak honen guztiaren ondorio ziren eta baita lanpostu ziburra zeukaten langileak ere, haietariko batzuk adinez gazteak izanagatik ere, han urtetan lan egitearen ondorioz zahartuta baitzeuden. Motibaziorik ez zegoenez, ageriko protestarik ez zen, nahiz eta zaharrak etsipenaren erpinean zeudenean, euren amorrua eta ezinegona adierazteko bestelako bideak ere urratzen ikasiak ziren. Adibidez, gauzak ordezkatuta eta antzaldatuta maiz ikus zitezkeen: egutegi baten lekuan trapu zahar bat, haizagailua txorimaloz moztortuta, egunkariaren ordezkomuneko papeira, edalontzi baten ordezkixontzi horia... Behin iradokizunetarako gutunontzian hildako bi oilar eta hiru arratoi aurkitu zituzten, proposamenak egiteko orriak biraoz eta isekaz beterik agertzen ziren eta opor bidaien katalogoekin itsasontziak egin eta zahar etxetik gertuen zegoen estolda zuloan uzten zituzten. Horiek ziren erantzuteko modurik ohikoenak.


Han ezagutu zuen Tomas. Tomas ilegorria zen eta Itziar Oizi gizon ilegorriak gustatzen zitzaizkion. Baina bazen bestelako berezitasunik ere Tomasengan. Artrosia zela-eta, beti zebilen errehabilitazio gela batetik bestera, lohizko bainuak hartzen edota lorategi hesietan gorputz ariketak egiten. Haragi eroriak zeuzkan, eskuak puztuta eta gehiegizko pisuagatik erdi herren zebilen. Kanpoko itxura horrelakoa izanda ere, tren geltoki baten abegikortasuna zeukan eta bi begi eder, bi itsaso.

Gainontzeko zaharrak, ordea, ia berdintsuak ziren, jarrera bertsuak zeukaten. Ez zuten ia inorekin hitz egiten. Abaildurak herbaletuta, kolore moteleko arropak janzen zituzten eta zapata zola higituak bezalako esaldi eginak edota murmurioak baino ez zituzten erabiltzen. Gehienetan izkinetan

eserita zeuden, hormaren kontra begiratzen eta itzalen baten pean. Haien barrenak miatuz gero, pentsa zitezkeen euren gibelak eta behazunak gainontzekoenak baino handiagoak eta pisutsuagoak zirela. Bakardadean haginak lauskitzen zituzten eta hasperenak jaurtiki. Euren urratsek zerrenda baliogabeak ziruditen. Gaixotasunen aurrean denetariko zerrendak erakusten zituzten. Asmak jotako bat beti zebilen azken hatsak eta goi hatsak entseatzeko, etor letozkiokeen heriotza mota desberdinak entseatzeko. Ezkerreko hanka gangrenatuta zeukan hanka guztien begi bistan uzten zuen, kontzentrazio zelaietatik igarotakoek zauri eta marka tatuatuarekin egiten duten bezalaxe edota kirolariak nekez eta izerdiz irabazitako garaikurrak altxatzen dituzten moduan jasotzen zuen. Digestio arazoak zeuzkan kanguerak bezalaxe urdailetik zintzilik zeraman poltsa.

Tomas, nahiz eta askotan etsipenak hartuta eta nekezka ibili, munduari buruzko ikuspegi distorsionatuta eduki eta sarritan kamuts jokatu, ez zen triste horietarikoak, hori pentsatzen zuen Itziar Oizek. Giroari kontra egiteagatik, batzuetan mutur hezurra eta jenio piperra garatu arren eta gauzaren bat edo beste lortzeko arautegia saihesten bazuen ere, Tomas ez zen asaskatua eta zenean, beti neurrian. Nahiz eta gehiegizko pisuagatik abere itobehartuaren antzera ibili eta artrosiak buruko min bat baino gehiago sortarazi, Tomas ez zen inondik inora ere hilduratua, oztopoz jositako bitzta umoretsu eramaten baitzekien. Eta honek guztiak besteengandik bereizten zuen.

Itziar Oiz abuztuaren 14ko eguerdian ohartu zen Tomas desagerturik zegoela. Lorategian zegoen lore desberdinen petaloak zenbatu eta zuhaitz azal ildaskatuek osatutako bidezidorretan barrera galduta. Eguerdi horretan jabetu zen egoitzaren jangelan Tomasek jateko orduan erabiltzen zuen alfonbratxoa ez zegoela. Alfonbratxoa, bai, zeren Tomasek zutik jaten baitzuen, digestioa urdailarekin ez



ezik, oinekin ere egiten zela uste baitzuen. Mania bat, ez bairik gabe, baina han zahar gehienak maniatikoak ziren, beraz, ohitura hura berehala onartu eta azkenean normaltzat hartua izan zen. Otorduari ekin baino lehen, egunkaria irakurtzen zuen eta hori ere zutik. Beti garaiz heltzen zen otorduetara, eguerdiko ordu bietan edota gaueko bederatzietan, hain zuzen ere, eta leiho ondoan jarrita egoten zen, handik begirada zertxobait zorrotzuz gero, itsasoaren puska bat antzeman baitzitekeen. Oinik gabeko alfonbra batek leiho ondoan askozaz hutsago ematen du. Desagerketaren berri Leopoldori eman zion Itziar Oizek, Tomasekin zigilu eta txanpon trukea egiten zuen lagunari, eta honek berehala lagun talde bat osatu eta Tomas zaharren egoitzan zehar bilatzeari ekin zion. Baina arrastorik ez. Gela garbigarbirik utzi zuen. Agidanez, maleta eginda joana zen eta, agidanez, urrutira. Baina gauza bat hartzea

ahaztu zitzaion: artrosirako pastillen ontzia armairuko izkina batean baitzegoen. Talde bilatzaileak kanpora atera ziren Tomasen bila.

Tomasen bila atera baino lehen, Itziar Oizek esan zien ohar zitezela zapatez, Tomasek betaurrekoak baino garbiagoak baitzeuzkan zapatak, hortzak baino garbiagoak, zeharo egurastuta zeramatzala, gaixorik egon eta ohean gelditu arren, zapatak beti paseatzera ateratzen baitzituen, bestela esanda, balkoian uzten, airea har zezaten eta eguzkitan egon zitezen. Zaluak zirela bere zapatak, bi gezi bezain, eta gogorrak, bi ukabilkada bezain, eta guztiz puntualak, erlojurik zehatzenak baino puntualagoak.

Tarte horretan Tomasez hausnartu zuen, bere dixosozko artrosiaz, eskultura espresionista batekoak ziruditen bere eskuez eta, batez ere, itsasoa bezalako bere begiez.

Tomas azkena ikusi zuena Anbrosio izan omen zen, itxura guztien arabera, abuztuaren 13ko gauean, afaltzeko orduan. Leku hartan askotan gertatzen ziren hanka sartzeak eta axolagabekeriak eta gau hartako bederatzietan Tomasi zopa hotza eta gatz-gabea zerbitzatu zitzaion. Anbrosioren azalpenen arabera, birao bat bezala zurrupatu zuen pittinkapittinka lur koloreko likido hura eta, jarraian, ukondoak leiho hegian bermaturik, sorgor iraun zuen luzaro. Elkar agurtu ere ez zuten egin.

Ohar bakar bat ere utzi gabe joan zen Tomas, joan zitzaien Tomas, eta zerbait beharrezko ments zuela iruditu zitzaion Itziar Oizi. Talde bilatzaileek pisten zein emaitzen gabeziez aztoraturik, beste eremu batzuetara egin zuten jauzi: aldameneko bi hiritara, hain zuzen ere, eta kalez kale bete zuten eginkizuna, ikerketa. Ordenagailuen eta komunikabideen bitartez errazago izan zuten, gainera Tomasek artrosirako pastillen beharra zeukala azpimarratu zuten, laguntza gehiago berreskuratzea lortu zuten talde bilatzaileek, lehenbailehen aurkitzeko asmotan. Baina hor ere huts.

Koldobika, Tomasen gelako kidea, izan zen Tomas ikusi zuena. Hurrengo astean gertatu zen. Zaharren egoitzatik hurbil, itsasertzean antzeman zuen. Askozaz argalago, malkotan blai eta itsasertzean, itsasoko ur epela eta gazia zurrupatuz eta zurrupatuz ziharduen, esku ahurrak koilaratzat harturik. Gero, dramatismorik gabe itsasoan barneratu omen zen, gero eta gehiago, gero eta sakonago, Koldobikaren begirada harrituaren aurrean desagertu zen arte. Hondartzaren haitz batean bere maleta aurkitu zuten gero, ziur aski berak apropos zabaldua egunkaria bailitzan, non bere ondasun apurrak ikus edo irakur baitzitezkeen: arropa batzuk, liburu batzuk...

Tomasen heriotza baretasunez hartu zuen Itziar Oizek. Azken finean, Tomasen begietako urdinak eta itsasoarenak bat egin zuten, patu batean bezalaxe. «Jarritako mahaiaren desagertu da» esan zuen ahapeka Itziar Oizek, bere baitarako bezala, Tomasen berri jakin eta handik gutxira.

Lortu ete eben?

Bidaia asko egin arren banakak uzten dabe memoria.

Ia berrogei urte joan dira ordurik hona, baina bizi-bizirik daukat bidaia gogoangarria.

Adbijan, Costa de Marfilen barkua egurrez kargatuta gentozan Afrikako kostaldetik Iparralderantz. Aurreko egun bietan borroka latza izan genduan eltxoakaz. Hainbat denbora uretan egindako enbor mamuen azalpean sortutako beldar guztiek egin eben eklosioa bat-batean eta eltxoz bete jakun barku guztia; ez ziran zitalak eltxo niminoak, baina jateko ere kartoitxu bategaz estalduta euki behar genduzan platera eta basua, kartoia apur bat jaso eta ostu-ostuka hartzen genduzan ur-tragoa eta janari apurra.

Hirugarren egunean amaitu zan eltxo jarioa eta haizetxoaren eraginez milioika eltxo-maluta pilatu ziran okoilu guztietan.

Iluna zan benetan hirugarren gaua. Lupua baino baltzago egoan ingurua, barkua, karga eta itsasoa. Zubian gengozan guardia egiten eben gizon biak eta neu. Gizonek autu leunean ziharduen, bata gali-

ziarra eta euskalduna bestea izanik eta portu txiki-tako semeak biak, arrantza arte eta tresnai buruz ebiltzan. Ni, ordea, ababor aldean bekokia puenteko kristalaren kontra jarri eta ilun hutsari begira. Sakonean makinak sortzen eban txapala-txapala monotonoak eta gizon bien berbaroaren eraginez loak hartzen nengoan.

Horretan zer edo zerk eraso ninduan. Justuri txiki batek jo baninduen legez bizkortu nintzan, inguruan begiratu eta danak jarraitzen eban bakean, motorrak urrunean... gizonak autuan... Iluna eta isila.

Neukan aulki altuan postura aldatu eta barriz bere lehenagoko tokian geratu nintzan, apur bat bizkorrago orain.

Handik lasterrera justuri txikia errepikatu zan, baina argi ikusi neban nondik etorren oraingoan. Enborrez osatutako kubertada gainean zirt-zart piztu zan bat-bateko argi zuria.

Adi-adi geratu eta hirugarrenez ikusi nebanean, senarrarengana hurbildu eta zer ete zan galdetu neutsan. Hirurok arretaz begiratu eta lasterrera zirt-

zart zuria gero eta parajeago gertatzen zala ohartu ginan, brankatik zubirantz etorrela.

Berehala barkuko argi eta foko guztiak biztu zituen, txirrin indartsu baten hots zorrotzak barruan lotan egozan gizon guztiak altxarazita kubiartako karga arakatzen hasi ziran hogeta hamar gizon inguru linterna eta guzti.

Enborren tarteetan geratzen zan hutsune baten ezkutata morroi bat; begiak eta zapatak zituen zuri-zuriak, gauaren eta enborren kolorekoa zan bera; nik kubertadaren gainetik hegaz, saltoka ikusi nituan zapata handien jabea zan, gizajoa. Egarriak itotzen egoan eta berehala kargutu jakon.

Bere esanetara beste gizon bi bere topatu zituen proako zulo batean. Konorte barik, hiltzen egozan deshidratazioaren eraginez.

Oheratu eta beharrezko tratua emon ondoren osatuta agertu ziran biharamunean gure hiru mutilak. Hogei-hogeta bi urte inguruko gazte altu eta txairoak ziran.

Bidaia luzea geratzen jakun Veneziaraino eta han ibiltzen ziran afrikarrak barruko marinela kaz batera, barkuko ugerra pikatu, minioa emon, pintau eta sokoetako eltxo eta hautsak garbitzen, txistuka, brometan eta jolasean. Maratzak ziran benetan.


Gertatutakoaren parte emon behar izan eban kapitainak eta han egozan karabinieriak itxaroten nasa gainean Italiara heldu ginanean.

Kamarote baten burdinezko itxia egin eta preso jarri zituen barkuan bertan eta leiho aurrean beti egozan karabinieri bi guardian.

Eskolak hasteko zirala eta, etxera itzuli beharra izan neban. Barkua berriz bere Adbijanera laster joateko zala eta, Veneziatik bertan itzuli ziran hiru gazteak euren herrira. Pozik halan da be, armadoreak gutxieneko soldata ordaintzeko agindua emon eban ia hilabetean egindako lanaren truke eta.

Hiru bat hilabete osterago, Gabon aurretuan, senarra etxeratu zanean hiru mutilek igorritako pakete bat ekarri eustan. Costa de Marfilgo emakume lirainek erabiltzen dabezan erako jantzi koloretsua egiteko oihala eta suge baten narrua garrikoa egiteko edo.

Gaur egun hirurogei urte inguru izan behar ditue mutil hareek. Kaleetan gizon baltzak ikusten dodazanean memoria biztu eta sarritan pentsatzen dot euren guraria, European sartzea, bete ete eben.



Lubakiko amaxia

Tira, seme, ez ezazu demandan egin eta goazen, jarri martxan kotxea. Durangora. Zuk gidatu eta ez horrenbeste galdera egin, dena kontatuko dizut eta...

Txikia zinen, hamar bat urte izango zenituen, ez zara oroituko, etxera zetozela bisitan eman zuten abisu, eta han presentatu ziren, harro planta haiekin, irribarre zuri haiekin. Inoizko lotsarik handiena pasarazi ziguten denoi, batez ere zure aitari. Urguilua lapurtu zioten. Orain hilda dago, eta neuri dagokit burua tente jasotzea lotsagabe horien aurrean. Zertaz ari naizen? Gerra garaiko gutun haietaz...

Nazionalen altxamendua gertatu eta egun gutxira herriko errepublikano talde bat etorri zen etxera zure aititaren bila. Aitita karlista zen eta ezelako azalpenik gabe hartu eta eraman egin zuten. Oraindik ez dakigu nora, baina handik aste batzuetara norbaitek esan zuen ez dakit nongo kanposantuan fusilatu zutela. Hala ere, gorpua ez zen sekula agertu.

Zure aitak hamazazpi urte izango zituen artean. Etxeratu zenean eta bere aitarena jakin zuenean, nazionalen aldera pasatu zen azkar eta armadan izena eman zuen. Somosierrara eraman zuten berehala, Mola jeneralaren batailoietako batean, eta hango frentean igaro zuen ia gerra guztia. Lubaki haietan orduak eta egunak eman zituen atera ere egin gabe, kanioen tiro-hots artean, inguruan balek txistu egiten ziotela, hegazkinen beldur... Gaez hotz izugarria pasatzen zuela zioen, lo egitea ere eragozten ziona; egunez, ordea, bero itogarria. Lehen asteetan infernua bizi izan zuela zioen, harri bakoitza, zuhaitz bakoitza sutsu defendituz, metroak arrastaka irabaziz. Batailoikide eta milizianoen gorpuen gainetik egiten zuen aurrera, eta eguna bukatzean gatibu hartutakoak fusilatu egiten zituzten. Halako izugarrikeriarik sekula ikusi gabea zen zure aita Anjel, buruan ez zitzaion kabitu ere egiten munduan halakorik izan zitekeenik. Baina bazen, ordea, eta hezur-haragi guztiak tenkaturik igarotzen zituen orduak, bere buruari bizirik eusteko grina bakarra-

rekin. Eta lubakian esertzen zenean edo etzalekuan bere gorputza botatzen zuenean, eutsiezinezko negargura jabetzen zen bere arima txiki izutuaz, eta negar-antsika hartzen zuen loak.

Eta horrela gutun bat iritsi zitzaion arte.

Bai, gutun bat, berari ere harrigarri suertatu zitzaion. Baina bere izena zeraman, beretzat zen. Nork idatziko zion, ordea, etxean inork ez bazekien bere sinaduraz harago ezer idazten? Atzeko aldean zetorren erantzuna: Lucia Ibarra Cengotita, Plaza Santa Ana 3, Durango (Vizcaya). Nor ote zen ezezagun hura? Andrazkoa gainera. Barruan aurkitu zituen erantzun guztiak: Bere *gerrako amabitxia* zen, agintari faxistek asmatutako “soldaduairen aingeru guardakoa”, erdi ama, erdi arreba. Lubakietan eta frentean zeuden soldaduek jasaten zituzten bizi-baldintzak ikusita, adoreari eusteko zerbait behar zutela antzeman zuten agintariak, burumakur eta ahuldurik aurkitzen baitzituzten askotan, lubakietan hara eta hona noraezean edo kanpamenduko ohatzean etzanda. Zer bururatuko eta neska ezkongabeen gutunak jaso zitzatela, soldadu bakoitzak bereak, horrela burua beste pentsamendu alaiago batzuetan entretenituko zutela eta. Gerrako Amabitxiak, bai.

Zure aitaren pelotoiari zegokionaz Durangoko apaiz bat arduratu zen, don Facundo. Apaizak berak ere arreba bat zuen, etxean berarekin bizi zuena, eta soldaduen zerrendatik aukeratzean aitaren izena hartu zuen arrebarentzat. Lehenengo gutun hura mesfidati ireki zuen, baina lehen hitza irakurri zue-netik emozio berrien uretan murgildu zen. Ez zion aparteko gauzarik esaten, baina handik urruti bera gogoan hartuta zebilen neska bat bazela jakiteak, norbait bere sentipenekin bat egiten saiatzen zela, une batzuk eskaintzen zizkiola berari... horrek bihotzeko taupadak azkartu zizkion, burua altxarazi eta begietako distira berpiztu. “Jakizu zure berrien zain izango nauzula beti, zeure antsia eta beldurrekin bat egiteko prest” irakurri zuen lehen

gutun haren bukaeran, eta orduan jarri zen benetan pentsatzen zein ziren bere benetako sentimenduak, zein ziren bere ametsak, bere kezak.

Hartu zituen papera eta lapitza, eta bururik altxatu gabe hasi zen karbonozko linternaren argitan idazten, eta konturatu zen eskuak ezin ziola jarraitu bere buruko jarioari. Bat-batean, urteetan presa batean bildutako urak bailiran, uhateak ireki eta uholdeka hasi zitzaizkion hitzak bor-bor ateratzen. Asko zuen esateko, asko zuen barruan itoa. Gutun haiei esker hasi zen bere burua ezagutzen, eta ez zion mugarik jartzen, nahi zuena espresatzen uzten zion, beti ere kontuan izanda Lucia zuela irakurle. Lucia mundua zen, bere etxeokak, lagunak, lubakietik kanpora zegoena. Eta Luciari ireki zion bihotza, lubakiko hauts artetik atera eta airera oihu batean bezala jaurtikia.

Gutun asko izan ziren, hilean bana gurutzatzen zituzten, bi ere bai batzuetan, posta zerbitzua ongi bazebilen. Ez zuten, ordea, sekula elkar ikusi. Ez ziren horretan ahalegindu. Beste soldaduek bai, ia denak ahalegintzen ziren baimen egunetan hitzordua egiten, eta ez zuten alde egiten neskagandik musu bat edo zerbait gehiago jaso arte, gerrara zihoazela eta agian ez zutela berriz elkar ikusiko esanez neskaren irmotasuna bigunduta. Baina Luciak eta aita ez. Elkarri hitz ederrak esan bai, eta aitortza sakonak egin ere bai, baina ez gehiago.

Bukatu zen gerra eta berarekin gutunen joan-etorria. Aita baserrira itzuli zen eta bertako lanetan murgildu zen buru-belarri. Handia zen, izan ere, familian zegoen beharra eta eskasia. Aita ez zuen berriro lumarik hartu esku artean eta aurrerantzean irakurriko zituen lerro bakarrak goldeak sorozan marraztutakoak izango ziren. Gerra, gutunak, Lucia, kainonazoak... dena desagertu zen batera aitaren bizitzatik, dena amesgaizto bakarreko kea bailitzan. Barren-barrenean zer zebilkion, ordea, ez genuen sekula jakin.

Ezkondu ginen, gazte-gaztetatik egon nintzaion zain, eta gogor egin genuen lan. Hasi zineten seme-alabok etortzen. Antonio lehenbizi, Karmele gero... eta zeu azkena. Zortzi. Erraz esaten da, zortzi. Agudo joan ziren urteak eta Antonio aitari laguntzen hasi zen soroan. Karmelek ere laguntzen zidan etxeko lanetan, baina hala ere gorriak ikusi genituen aurrera egiteko. Karmelek hamalau urte zituela, herriko maisuak esan zigun Durangoko etxe batean neska bat behar zutela eta nahi bagenuen berak hitz egingo ziela Karmeleri buruz. Egia esan, pozik hartu genuen eskaintza, diruaren beharra gero eta handiagoa baitzen etxean. Eta horrela hasi zen Karmele Durangoko familia haren etxean. Baina ez zure aitari ez inori ez zitzaion burutik pasa ere egin Karmele zerbitzatzera zihoan etxekoandrea Lucia izan zitekeenik, don Facundoren arreba alegia.

Aste batzuk igarota, don Facundo bere arreba bisitatzera joan zen egun batean, Karmele begitan hartu eta galdezka hasi zitzaion. Nongoa zara?, Aramaiokoa?, ez da egia izango, zein etxetakoa?... egia ote?... beraz Anjel da zure aita?... hau kasualitate! Eta modu horretan izan zuen Karmelek aitaren eta etxekoandreaken arteko harremanaren berri. Ez omen zuen sekula lotsa handiagorik pasa. Hala ere, lotsaizunaren gailurra etortzeko zegoen. Don Facundori, nonbait, dibertigarri iruditu zitzaion egoera eta joko makiavelikoa bururatu zitzaion. Hara Karmele, hau ospatu beharra dago. Lucia, zeu eta hirurok Aramaiora joanen gara bisitan eta bazkari handi batean bilduko gara familia biak. Baina lasai, geuk eramango dugu hemendik behar den guztia.

Eta halaxe aurkeztu zitzaizkigun etxean. Mahaia etxe aurrean jarri genuen eta hantxe eseri ginen don Facundo, Lucia andrea eta etxeko guztiak. Don Facundo ertz batean eta aita bestean, elkarri begira. Artean zure amandrea ere bizirik zen, eta izeko

Paula ere gurean bizi zen. Haiek ere irentsi egin beharko zuten otordu hartan jasotzeaz ginen lotsa. Eskerrak zuetako gehienok gazteegiak zineten ezertaz jabetzeko. Gu isilik, don Facundo berriz hitz eta pitz. Eta azken-burukoen orduan ezustekoa. Zutitu zen eta adi entzuteko eskatu zigun. Eskua sotana azpian sartu eta kordel batez bildutako gutun sorta bat atera zuen. Zer izango eta aitak Luciari frentetik bidalitako gutunak! Banan-banan irakurri zizkigun denak. Eta gu harri eta zur.

Don Facundok gutunak irakurri bitartean, ikusi genuen aitaren burua bular aldera makurtzen, bere begirada urruti galtzen eta ezpainak estu mututzen. Ez zuen zirkinik egin, ez zuen hitzik esan “gonbidatuek” alde egin zuten arte. Bazkariak gizenduta eta harrokeriaz puztuta mahaitik altxatu zenean aitarengana hurbildu eta “Anjel: Quod scribsi, scribsi” bota zion bizkarrean kolpetxo pare bat emanez.

Gutun ederrak ziren benetan, gerraren gordina eta ametsen gozoa zerienak. Hunkitu ere egin gintuzten hitz haiek, nik behintzat korapilo baten pisua nabaritu nuen urdailean eta malkoen bustia begietan. Baina aldi berean hitz haiek entzute hutsarekin aitaren bihotza urratzen ari ginen sentsazioa izan nuen, traizio egiten ari gintzaizkiola, eta alde egiteko gogoia izan nuen, baina han jarraitu behar nuela sentitu nuen, aitaren sekretu hura nirea ere bazela.

Don Facundo joan zen, atzetik Lucia kaskarina zuela, eta etxean ez zen berriro gutunen konturik aipatu. Aita gaixotu zen arte. Egun batez, gaixoaldiak eman zion bake tarte bat aprobetxatuz, egurrezko kutxatxo bat erakutsi zidan. Une batez Luciak idatzitako gutunak izango zirela pentsatu nuen, baina oker nengoen. Aitarekin Somosierrako lubaketan egondako mutil baten gauzak ziren. Elkar ezagutu bezain laster egin ziren lagun. Jose zuen izena, Josetxo, eta Durangokoa zen. Aitak bezala Josetxok ere gutunak jasotzen zituen noiz-

behinka eta, a ze kasualitatea, Durangotik zetozkion berari ere. Baina ez ziren neska batek, gerrako amabitxi batek idatziak; don Facundorenak berarenak ziren.

Aita konturatu zen gutun haiek jasotzen zituenean Josetxo urduri jartzen zela eta noizbait negarrez ere sumatu zuen paperaren atzean bilduta. Azkenean lehertu zen eta bihotza hustu zion aitari. Monagilo egon ei zen urte askoan don Facundorekin eta hasieratik nabaritu zuen apaizak aparteko tratua ematen ziola beste monagiloekin alderatuta. Modu txeratsuan hitz egiten zion, opariak egiten zizkion eta noizbehinka amari emateko txanpon batzuk ere jartzen zizkion eskuan, ongi baitzekien zer nolako estutasunak zituzten etxean. Apurka-apurka estutzen joan zen harreman hura eta sakristian berarekin geratzera gonbidatzen zuen beste monagiloek alde egin eta gero. Masailak ferekatzen zizkion eta bere biloan kiribiltzen zituen atzamarrak. Ukituak gorputzaren beste atal batzuetara ere zabaldu ziren eta egun batean eskua hartu zion don Fakundok Josetxori eta sotanapean ibilarazi zuen.

Ama hil zitzaionean apaizaren tutoretzapean geratu zen eta bere gehiegikeriak jasan behar izan zituen, ikaraz beterik, irtenbiderik aurkitu ezinik... Gerra piztu zen arte. Argi ikusi zuen hura zuela aukera bakarra eta nazioaletan izena ematea era-

baki zuen. Apaizak, karlista amorratua baitzen, ezingo zion bidea oztopatu. Baina frentera alde eginda ere, apaizaren atzamarrak jarraika sumatzen zituen, gutun haietan luze, eta sakristian izaten zuen izu bera sentiarazten zioten gutun haiek. Josetxoren gorputzaren berotasuna, bere ilearen usaina eta azalaren zaporea zituen mintzagai gutun haietan apaizak, eta beti bukatzen zuen jaun ahalguztidunaren haserrearekin mehatxatuz bien arteko sekretua ezagutzera emanez gero. Somosierran ere preso ikusi zuen bere burua Josetxok, sakristian ikusi ohi zuen bezala, eta heriotza otu zitzaion irtenbide bakarra. Bere lagun onenari, aitari, bere gauzak eta sekretuak gordetzeko eman eta hurrengo egunean hil zen metrailatua, lubakitik atera ero baten moduan korrika eta inork ulertu ez genuen zerbait oihukatzen zuen bitartean.

Aitak zintzo gorde zituen Josetxoren gauzak. Istorio hau kontatu eta nire eskuetan utzi zituen. Ez zidan beste ezer esan. Baina nik ongi ulertu nuen zer ari zitzaidan eskatzen: joan nendila Durangora don Facundorenera eta irakur niezazkiola gutunak bere etxekoen aurrean azken-burukoekin batera, eta esan niezaiola *quod scribsi, scribsi*. Eta horretara goaz. Aita hil zenean don Facundori deitu nion eta esan nion bisitan joango gintzaizkiola, jatekoa guk eramango genuela, ez kezkatzeko.

Hondarribian, 2010eko ekainaren 19an.

Karakolen danbolin zuriak

1. EDURTZA HAUNDIA

SEKULAKO EDURTE BATEK JAN DAU BOLBI URIA. Ez atzo, ez etzi; gaur jan dau. Jan eta irunsi. Espaloietan, teilatuetan, parkeetan... danean irazi da edurra. Arrautzeztatuta dagoz Pikaren etxe ondoko farolak eta zuhaitzak, zuri-zuri txibierroak legez.

Hamaika urte bete ditu gaur Pika bihurriak. Negua dala eta, berokia oparitu deutsie: gorri-gorria, txano eta guzti. *Pika* deitzen deutsagu danok lagun barrabasari; baina, ez da hori haren jatorrizko izena. Anjel Mari da haren izen *ofiziala*. Pika esaten deutsagu *errepikatik*, dana esaten dauelako bi aldiz, birritan. “Kaixo” esan barik, “eup-kaixo”, esaten dau Pikak. “Agur” esan beharrean, “agur-adio”. Amaitzen ez dan mentazko txikleka da Pikaren barriketa eta jarduna.

Eta, Lika esaten deutsagu Pikaren anaia txikiari, zaharrari itsatsita ibiltzen dalako beti. Mertzika eta muxika... pare ederra dira Pika eta Lika.

EGUERDIAN ATERTU DAU EKAITZAK.

–Bazan, ba, ordua! –Pikak.

Pi-po, pi-po, bazkalorduan ikusi ditu Pikak kale-
ratzen lehen anbulantziak eta suhiltzaileak. Bitarte-
an, garajejan egozan danak; baita trenak be. Seko lo:
ez pi ez po.

Edurretan olgatzeko, bazkaldu ostean abiatu da Pikaren familia Bolbi urian danik eta parkerik haundienera. Atzetik eroan ditu Pikak etxeko danak: ama, aita, izeko-amama, osaba xaharra, lehengusina, anaia txikia...

–Hau edurtea, Pika... karakolen danbolin zuriak! –diño osaba xaharrak, haizearen erruagaitik txapelari eutsi ezinik.

2. GALDU EGIN DA PIKA, GALDU EDURTZAN

KALEA ZAPALDU ETA ATOAN hasi dira edurretan jolasten anaia biak. Mila eta hamaika amarrukeria egiten dabilz: edur-bola bat jaurti izeko-amamari, esku hotzak kolkoan sartu lehengusinari, osabari kili-kili egiten han eta hemen...

–Karakolen danbolin zuriak! –esan dau ostera be osaba xaharrak-. Geldi egoteko, Pika. Demonio!

Parkera sartzean, eskuetatik kendu deutso Pikak anaiari lera horia. Ez kaixo ez adio, bere burua bota dau Pikak hegaz, ikusi dauan lehenengo aldatsetik behera.

–Air pinguin, air biguin! –esan dau Pikak, ustez hegaz joiala.

–Neurea da narra hori! –egin deutso purrust Likak.

–Neu naz neu, kapitain pilotu! Gerrikoak ondo lotu... eta, ongi baino hobeto, horreik estutu!

DINBI-DANBA, DANBA-DINBI, haretxa jo dau Pikak, erdi-erdian. Buruagaz jo dau. Kopetagaz.

Air pinguin, air biguin... *ai-ze-min!*

Eta galdu egin da.

3. SUHILTZAILEEK ERRESKATAU DABE PIKA

ILUNABARRERA ARTE, EZIN IZAN DABE INON AURKITU PIKA BIHURRIA. Inork ez daki zertan ibili dan parkean. Ikusi dabenean, katakume zuribaltzak sagu baltzurien atzetik legez ebulan: galapaka hemendik hara, eta handik hona.

–Ji eta ja, ju eta ji, ni olgetan beti! –inoan.

Atzera begira atara dabe parketik. Herrestan eroran dabe, gogoz kontra:

–Ez ba! Ez dodala alde egin gura!

BEHIN ERRESKATAUTA ETA KOMISARIARA BIDEAN, Bolbi uriko kale haundienak ikusi ditu Pikak suhiltzaileen kamiotik.

Auto-istripu larrian lagundu behar izan dabe bidean. Erregaia amaitu jako hipopotamo zuri-gorri batek eroian furgoneta berdeari. Ez tirri, ez tarra, bide-gurutzean geratu da. Traban eta enbarazuan.

Fi eta fo, haserre dagoen katutzarra legez, erre-pideetako edurra baztertzeko erabilten dan kamioi bat etorri da orduan eskoiko kaletik. Goitik behera hurreratu da. Abant ederrean. Ha bai hotsa eta txalaparta: aparta! Konturatu orduko, bete-betean jo dau *julianeta*...

–Zelan deitzen zan gidaria? –itaundu deutso suhiltzaile papo-katilu batek Pikari, istripuen liburuan apuntatzeko.

–Manolo-Makinasolo.

4. PIKA, POLIZIA-ETXEAN

BEROKI BARRIA GALDU DAU PIKAK PARKEAN. Komisariara, gainerako arropa guztia ekarri dau bustita. Bainerako esponja egarrituak emoten dabe haren praka bakeroek. Plisti-plasta ibili da denpora guztian.

Orain, tuju-tuju, karramarroaren eztula dauka. Baina, ez da isiltzen:

–Astiroago egin berba... eta gitxiago... Zer? Zortzi luma gorrizko errege-koroia eukan ogigaztaia ikusi dozula parkean? –itaundu deutso polizia mehar batek.

–Julian-Gulian deitzen da. Julian-Gulian da haren izena. Zortzi luma gorrizko errege-koroia gaz egoan jantzita. Eroian jantzita zortzi luma gorrizko errege-koroia....

–Aizu, ume: serio jarri eta azaldu ondo zer egin dozun parkean.

BANOA NI KORRIKA BATEN PARKEAN ZEHAR –hasi da Pika–, banoa arineketa baten parkean barrena, atzean laga ditut jada xaharrak eta anaia... gibelean dira danak: ama, aita, izeko-amama, osaba xaharra, Lika anaia txikia...

Eta nekatzen hasten nazenean, hara non azaltzen jatan ogigaztaia, erbinudea.

Hurbildu eta inguratzen naz.

Astiro eta mantso.

Itauntzen deusat ea hotzik ez dauan. Ea ez ete dan hotz.

Eta berak ezetz. Ez daukala bape hotzik.

ESAN DEUST ERBINUDEAK BAT-BATEAN: *Badakizu? Urte edurrezkoa, urte garizkoa.*

–Zelan garizkoa? –polizia-buru eperterreak, hautsontzian hustuta tabako-pipa.

Garizkoak esan gura dau *ona*, esan gura dau *aberatsa*. Garizkoak esan nahi dau danetik izango dogula. Garizkoak esan nahi dau ez jakula ezer faltako. Garizkoa da...

–Itzuli harira, mesedez –poliziak, azeri-aurpegia jarrita.

Orduan kontau deusat ogigaztaiari etxe bi daukadazala. Bat eta bi: *bi etxe, etxe bi*.

–Harira...

Etxe bat hemen, ez hemen bertan, baina hurbil, zeren trenez joan daiteke osaba xaharrarenera: gel-tokira zoaz, txartela erosten dozu eta pisu biko bagoi batean jesartzen zara. Pisu batetik bestera ibiltzen naz ni... baina, Pello, osea, Lika... atzetik etortzen jat beti. Lika deitzen deusat anaiari ze...

–Mesedez... –poliziak.

Esan deusat ogigaztaiari badaukadala beste etxe bat urrin-urritan. Urruti...

–Baina parkean, zertan ibili zara? –polizia buru-soilak.

“ETA, ZUK... IPUINIK IKUSTEN DOZU DVDan?”, galdetu deusat erbinudeari.

–Ipuinak ez dira zertan ikusi –ogigaztaiak.

–Eta, orduan, zelan marrazten dira heroiak?

–Ez dira arkatzagaz marraztu behar.

–Ez?

–Ipuinak, *bizi* egin behar dira. Bizi, bizi.

Edurra, osterara be. Eta, isilik egon gara une batez, biok pentsatzen, biok hausnarrean... behi urdinen moduan. Ze behi urdinak...

–Eta, orduan ikusi zaitue suhiltzaileek, ezta?

–ebagi deutso polizia eperterreak.

–Ba, bai...

Pikak pentsau dau baietz esanda amaitu egingo zirala itaunak, bakean lagako ebela eta denpora gehiago eukiko ebala bere gauzetarako, bere ipuinetarako.

ISILDU ETA PARKEKOA HASI DA BIRPASATZEN BERE KOLKOAN. Gogoratu jako zein panpina ederra egin dauan erbinudeagaz batera. Edur-meta haundi bat egin dabe, lehoi baten hainakoa edo, agian, are handiagoa. Gero, txano urdina ipini deusie buruaren gainean.

Julian-Gulianek ekarritako luma baltza ipini deusie sudur moduan.

–Eta, begietarako, zer?

Katamixar zuhur bi etorri dira orduan, zazpi koloreko karakol banagaz, begietarako.

Mozolo zuri batek ekarri dau bufanda luzea.

Eta, indioen hizkuntza zaharra ekian Basajau-nak, pipa marroia.

Pika eta Julian-Gulian panpina janzen ebizala, bat-batean agertu dira parkera suhiltzaileak. Euren kamioiagaz. Euren sirena-hotsakaz. Kaskoa eta guzti.

Suhiltzaileak agertu diranean, apenas euki dabe astirik despeditzeko:

–Agur, adio –Pikak.

–Arribedertxi... txi-txi –ogigaztaiak.

5. KARAKOLEN DANBOLIN ZURIAK

ILUNDU EGIN DAU POLIZIA-ETXE ONDOKO KALEAN. Klik eta klak, aspaldi isiotu ziran inguruko bonbikak. Koloretakoak, dan-danak.

Azkenean, hor azaldu dira Pikaren etxeok eurak be komisariara. Hor agertu da anaia txikia: Lika, serio Derio. Izeko-amama Felisa, aisa Madagaskarreko jirafak baino handixa. Aitatxo Tatxo, eperdi lodi eta gerri zabaltxo. Eta, ama... lirin-bikain.

–Ez barriro holakorik, seme!

Zer gertatuko be, osaba xaharra ez da sartu, kalean da geratu. Elio, poliziakaz ez da fio.

ARGIBIDE GUZTIAK AMAITU ONDOREN, kalera.

–Non sartu haz? –osaba xaharrak Pikari.

–Eup-kaixo, osaba-tio... To, musu eta pa!

–Koipezto galanta!

Kalean, zotzak bezain hotzak dagoz danak. Etixeratzeko trenaren zain.

Jolasen bat asmau gura dau Pikak, pisu biko bagoian olgatzeko...

Anaiari esan deutso: “Erdu hona, Lika”. Eta jolas barria kontau deutso belarrira...

–Baina, hori ez da DVDko Cook Kapitainaren garfioa! –anaia txikiak, Pikaren hatz luze konkortua seinalatuta.

–Bai, Lika. Badakit... Baina, filmetakoak ez dau garrantzirik. Abenturak, *bizi* egin behar dira, bizi... ofizialki diran moduan, edo bestela.

JOAN DOAZ MINUTUAK, JOAN. Berandu dator tren-a. Keinu eta keinu hasi dira barrero azukrezko edur-malutak kaleetan. Hori bai, bertako semafororen koloreen arabera egiten dau bisutsak distira: orain gorri, orain berde...

Gaueko 21,34etan, konboi luzea etorri da gelto-kira. 27840-B zenbakia daukan bagoian sartu da seikotea. Bigarren pisuan jesarri dira, danak batera.

Ateak itxi diranean, bat-batean, jauzi bizkor bat egin dau Pikak danon aurrera:

–Hona hemen Cook Kapitainaren garfio oker bildurgarria, garfio makur eta izugarria; Bolbi urian gaur bertan izoztu eta leitua. Kakati nazkagarriak: gorriak eta baltzak erakutsiko deusueguz guk, euskaldunok!

–Hori, hori! Gorriak eta baltzak erakutsiko deu... deu... deu... –trabatu da aditzagaz Lika.

Eta barreka errementau dabe danak.

–Ume deabruok! Anaia barrabasok! –osaba xaharrak.

–Karakolen danbolinak, osaba. Karakolen danbolin zuriak! –Pikak.



Grekoenak

BEOTARKA HILOBI BILA

Beotarkak gudaroste gidari amesten du bere burua. Mila bururen kiliarka. Eta esker txarreko lantegiaren ardura betea hartu du sorterriko guda-lekuan. Antzinatearen maitale denez, mutil gazte bikote amorosen eliteko Batailoi Sakratuaren gudaiburu nahi luke izan.

Zer zeruariarago jainko semeen hurrengo sentitzeko? Zeretik ezkutu zulakaitzagorik? Zein lantza zorrotzago gazteon maitasuna baino? Nork geldituko adiskidantzazko aldra honen olde bentzutu ezina? Non amoranteen begiradapeko zelaikoa baino bataila ederragorik?

Eta maluruski, Keronean legez, Batailoi Sakratu honi ohorez hiltzea gertatuko balitzaio, izan dadila bederen Alexandro Handi eta gazteenaren armakideen zalditeria inmortalaren erasopean legetxe: gazte, lerdin eta hilotz.

Edo Alexandroren manupekoen apaxpean ezin balitz, gaitzela joan behintzat –dio gudaroste buruzagiak– mazedoniar handiak sortu zuen Alexandria hiriko patriarkari zegokion duintasunez, behinola Nafarroako Lanzelot gotzain eta seme bastardoa Erriberrin hil zen maneran.

Tamalez ibai bokale honetako ezpain zikinetan ez du inork Patroklorik gogoan, ez eta Hefestionen hilondoko su-metetarako Alexandrok eraikiarazi zituen zurezko itsasontzi eta animalia erraldoien gomutarik. Ez lituzke hemen inork, doluminez, ejertzitoko zaldi zurda guztiak banan-banan moztuko.

Beotarka berpiztuak badaki ez duela bere neurriko areriorik. Sagu miomakia baterako ere ez. Ez du bere ohorearen mailako guda-zelairik. Burdinen hondakin ederretatuak baino ez. Ezpatarako duin ez den bilbo-burdin ustela dakusa etsaien eskuetan, hauts herdoildua.

Eskerrak Norteko Atenas izan ginela. Sastegia gaur. *Megas Aléxandros*, *Basileus Makedonon* desiratuaren semea, azkenik esnatu da.

ELEFANTIARKA, HAREN MAKILLATZAILA ETA HIENA ARRAIDUNA

Elefantiarka lokartuaren aura kirastua airean dabil errege-jauregiaren goitegietan barrena. Urrutiago dira hiena otzanak gobernatzen dizkion korta

inperialak. Baina bere maiestate logaldua beti asaldatzen du amesgaizto berberak: Eta batailaren ezusteko batek erret-elefantearen arrabio itsua esnatuko balu? Nork segurta liezaioke orduan ez litzatekeenik azkenduko zutabe tremendagarrioren hankape zoroan?

Hiena leial eta irribarretsua berak. Errege estandartearen lepagaina duen hark. Heroien hondakinez, jainko lotiez estalitako guda zelaietako jataldiak hain maite dituen kontseilariak. Eta horrek du ikaritzen. Ez du Siwa urruneko Amonen orakulu beharrik jakin egiteko haragi zurbilaren mintza samurrago zehatzen dela pakidermo aurrelariaren azal zaharkitua baino.

Hiena arduratsua ezin eutsi barre jarioa. Elefantiarkak makillatzailea deitu du eta bere ustel-sundako jakituria zabaltzea agindu dio: “Azala nabar kolorekoa jarri eta elefante lurrina nahi haina!”.

NABARKA BERE BAKARDADEAN

Negarka da Nabarka. Trirreme nagusiaren tripulazioa lerro-lerro erakutsi dio trierarko ontziburuak.

Kubiertaren erdian, lau hanketan zutunik, Azerikumea, ekaitzetarako kontramaisua dena. Haren bizkar gainean hankalatraba, lemazaina, Koartza lepo zuria. Lumadunaren gainean, hoplita zorabiatuen burua, Ugaraxo puztua.

Eta egiten du bere kautan Nabarkak: “Hau ote da nire gudaroste guztia? Eta buruak nork moztuko ditu?”

Nabarkaren muzin zeinuak ikustean, Koartza ipurtikaratsua badiotso: “Ez sinetsi ezer, hori propaganda antimazedoniar hutsa da”.

ZIMITARRA

Ate-portaletik sartu eta jendartean prest zeukan jarleku okelura joan zen artez. Mahaian jesarri zenean zimitarra astuna lihozko mantel zuriaren gainean pausatu zuen tentuz, luma bat bailitzan, datil eta ardoaren bitartean.

Besa nekatua dingilizka limurtu zitzaion besaulkiaren alde batetik behera. Artzanora mantsoa arri-matu zitzaion eta belarri osteko larru mazalean egin zion hazka. Nagiak atera ostean zakurrak esku lokartua miazkatu zion gozatsu. Ohi zuenez, odol orban gaziak ikuzi zizkion.

Afalosteko solas gozatsua berandutu egin zen sano. Mahaikideek alde egin zuten tertzioz eta han geratu zen lo bera. Esku bata edalontziari zeutsola, eta zimitarraren helduleku epelari bestea. Liho zuriak zimitarra ahoak ezarri zion uztai itxurako orban luzanga gorde zuen.



Hitler Hendaiako gurutzearen aurrean

1940ko urriaren hogeita hiruko goizeko zortzi eta erdiak ziren. Hendaiako tren geltokira iritsi berria zen tren-bagoi ofizialetik zamarra arreez eta kapela militarrez jantziriko gizontxo mustatxaduna jaitxi zen. Bere inguruan antzera jantzitako beste bospasei gizon zeuden. Alemaneraz mintzo ziren. Berehalaxe *mercedes* beltz bat gizontxoaren bila etorri eta bertara sartu zen beste hiru gizonekin batera.

Herrian zehar bazterrak ezagutzen ibili ondoren, herriko plazara abiatu ziren, eta gero, udaletxetik gertu zegoen Done Bixintxoren elizarantz. Hara iritsita, ate nagusian zain zeukaten zibilez jantzitako gizon bat. Sudur azpian bibote handia zeukan. Fulcanelli ezizenez ezagutzen dugun alkimista ospetsua zen.

Elkar agurtu ondoren, Fulcanellik Hitler eta beste hiru lagunak elizako bazter batean dagoen harrizko gurutze aurrera eraman zituen. Hitler ez zen isilik egoteko gizona, eta gurutzeari buruzko azalpenak eskatu zizkion. Fulcanellik, denbora galdu gabe, eskatutako azalpenak emateari ekin zion:

–Hemen, elizaren aurrean ikusten duzuen harrizko gurutze hau ez da beti hemen egon. Zahar-zaharra da, XVI. mendekoa, edo agian zaharragoa, eta hasiera batean, badirudi Hendaiako hilerrian ezarri zutela, bertan eternitate osoz, arimen babesle izan zedin. Zenbait urte beranduago, eta ezagutzen ez dugun arrazoigatik, orain dagoen toki honetara aldatu zuten.

Pausa laburra egin ondoren, kontaktzen segitu zuen:

–Jakingo duzuen bezala, euskaldunen lurraldean gaude, eta Euskal Herria Europako herririk zaharrena izateaz gain, herri magikoa da. Bere zainak historiaurrean finkatzen ditu eta euskarak, beraien hizkuntza zaharrak, euskaldunak ama-lurrarekin lotzen dituzten sekretuak gordetzen ditu. Aroen iluntasunetik izadiarekin loturiko jainko-jainkosak gurtu dituzte eta gero, kristau erlijioa etortzean, fede berria onartu zuten aurreko sinesmenak eta erritoak guztiz baztertu gabe. Euskaldunentzat kristau erlijioa ez da inoiz erlijio berria izan, bere sinesmenekin emandako pauso sinbiotiko bat baizik.

Hitlerrek eta beste gizonak arreta handiz jarraitzen zuten Fulcanellik emandako azalpena. Tarteka, Hitlerrek bere mustatxa pailakatzen zuen. Fulcanellik, berriz, eskatutako azalpenekin segitzen zuen:

–Euskal Herria bere ibilbide historiko luzean sorgin, azti eta txamanen herria izan da. Euskaldunak iraganaren, orainaren eta etorkizunaren jabeak eta jagoleak dira. Betidanik daude hemen, eta betirako. Arrotz inbaditzaile ugari izan dituzten arren, beraiek irauteko eta aurrera egiteko modua ezagutzen dute. Orain Frantzia eta Espainiaren artean banaturik badaude ere, beraiek sobera dakite ez dela horrela betiko izango. Erromatarrak jausi ziren bide beretik jausiko baitira haien ondorengo latinoak; eta Euskal Herria hor izango da, betidanik eta betirako.

–Fulcanellik beste pausa bat egin zuen aurrean zituen gizonen aurpegiak ikusteko. Hauek arreta handiz jarraitzen zioten. Hitlerrek, aginte soinuaz, segitzeko esan zion:


–Segi, segi aurrera, Fulcanelli jauna!

Eta Fulcanellik, aurrera segitu zuen:

–Herri miresgarri honek bi elementu gurtzen ditu, gehienbat: izadia eta askatasuna. Euskal txamanek antzinako sekretuak gordetzeaz gain, geroa ezagutzen dute. Euren sinbologia oso zabala eta aberatsa da. Zuen modura –aurrean zituen germaniarrei begira–, esbastika erabiltzen dute, eta hiru, lau eta zortzi bururekin. Formaren aldetik, berriz, biribilak eta karratuak erabiltzen dituzte. Dena den, gehien erabiltzen duten esbastika biribil lauburudun eskuinbirakaria da eta *lauburu* deitzen diote.

Zura eta harria maisukiro lantzen dituzte eta bertan euren mezu esoterikoak ezartzen. Horixe da, esate baterako, aurrean daukazuen gurutze honetan zizelkatu dutena: gizateriaren lau aroak eta denboren hasiera eta amaiera.

–Bai, entzuna genuen gurutze honetan zizelkatu-rik daukaten mezuarena! –moztu zuen Hitlerrek– eta horretarako etorri gara hona eta zu adierazle



gisa ekar arazi. Mesedez, Fulcanelli jauna, erantzun
iezadazu garbi, deus ezkutatu gabe.

–Aurrera jauna, prest naukazu! –Fulcanellik.

–III. Reich-ak luze iraungo al du? –Hitlerrek,
urduritasunak jota.

–Ez jauna, ez du luze iraungo, zuhurtziarik gabe
jokatuz gero!

–Noiz izango da aroen amaiera? –Hitlerrek,
urduri samar.

–Zuk ez duzu ikusiko. Hurbil dago, baina orain-
dik urrun. Ezin da gizakion bizitzaz neurtu.

–Eta irabaziko al dugu gerra?


–Etsai gehiegi daukazu –Fulcanellik, uzkur-.
Herri bakar batek ezin du kontinente oso baten kon-
tra borrokatu. Irabazteko zuhur jokatu beharra dago
eta aliatuak aukeratzan jakin beharko duzu. Espai-
niarren buruzagi ipotx degeneratuarekin egin nahi
duzun aliantzak, Reich-aren erorketa aurreratu,
besterik ez du eragingo.

–Ongi da! –moztu zuen Hitlerrek, amorruz
josia– Ongi da! –errepikatu zuen biziki haserre.

Ez zuen gehiago esan, eta Fulcanelli agurtu
gabe, mercedes beltzerantz abiatu zen. Bere hiru
gizonek, isil-isilik, jarraitu zioten.

–Agudo, tren-geltokira! –agindu zion txoferrari,
eta honek autoa Hendaiaiko geltoki alderantz gidatu
zuen.

Egun berean, espainiarren Franco buruzagi
faxistarekin biltzekoa zen Hendaiaiko tren-gelto-
kian aparkatuta zeukan bagoi ofizialean. Aliantza
bat bilatu nahi zuen berarekin. Baina orain, Fulca-
nelliren hitzei sinesgarritasun osoa emanaz, zalan-
tza handia zeukan bere baitan. Zer egin? Francore-
kin aliatu ala inolako aliantzarik gabe Espainia
inbaditu eta ipotx hura begi bistatik betiko kendu?
Hitlerrek Francoren eskua estutu zuenerako bazuen
erabakia zer egin: ez zuen espainiar harroxko hare-
kin inongo akordiorik egingo!



“Orain dela 50 urte jaio zen nire AMA maitea Gorbeiapeko baserri batean. Nik 50 urte ditudanean non eta zelan egongo naizen pentsatzen dut askotan. Bizitza aurrerantza doa, batzuk badatoz eta beste batzuk badoaz”.

Nire bizitza ez da munduko beste ezer baina niretzat altxor bat da. Behin putzu ilun batean sartu nintzen eta ez nuen ikusten zerurik...

Aititak zeruraino maite zidala esaten zidan. Politenetan politena nintzala, bere kakanarru printzesa, zaku batekin ere polita, ni defendatzearren 50 otsori ere aurre egingo ziola esaten zuen.

...eta zeruan eguzkia irten zen. Ordutik aurrera, eskerrak ematen ditut egunero daukadan bizitzagatik eta inguruan ditudanengatik eta izan ditudanengatik.

Malko artean agurtu dut amama orain dela gutxi. Apurka-apurka ume bihurtuz joan zen, hitz egitea ere ahaztu zitzaion...

50en bat kontu kontatu dizkit amamak. Niri eta baita kortako oiloei ere. Egunero hamaika bider joaten zen solora, ezin zen gelditu egon, ezin zen isilik egon.

...berari ahaztu zitzaizkion baina niri ez zaizkit bere ohiturak ahaztu eta orain ni ibiltzen naiz kortako oiloekin kontu kontari.

Nire aitaren antza dudala esaten dute. Biok maite dugu baserri giroa, txakurrekin paseo bat emotea, ardiei begira egotea eta zapoen kantaldia entzutea erreka bazterrean...

Aititak ez zuen inoiz diru askorik gastatu langostinoak erosten. Goizean goiz, behien esnea batu eta gero, erreka baxatu eta han hartzen zituen urtea agurtzeko jaten genituen langostinoak. Hori esaten zuen behintzat, 50 irrifarre artean.

...erreka bazterrean hamaika jolas egindako umea naiz ni, nire lehengusu, lehengusin eta ahizparekin batera. Ahizpari eta biori irrifarre bat margotzen zaigu aurpegian momentu haiek gogoratzen ditugun bakoitzean.

Jolastea gustatzen zitzaidan eta baita orain ere. Irakaslea naiz eta maite dut nire lana. Hainbat jolas egiten dut orain ere nire eskolako umeekin...

Amamaren altzoan 50en bat aldiz jolastutako umea naiz ni. “Txorro-morrora” jolasten nuen amamarekin eta bere altxoan sorginen ipuinak entzunez lokartzen nintzen sarritan.

...eskolako umeen eskuetara begiratu eta laister Giulia edo Lukasen eskutxoak ikutu nahi ditudala sentitzen dut. Alaba edo seme bat izatea desiratzen dut, ama izan nahi dut.

Lotan zaudela begiratzen zaitut eta zure alboan beste 50 urte egotea gustatuko litzaidakeela pentsatzen dut. 50 urte barru non eta zelan egongo naizen imajinatzen dut. Bizitza polit bat amesten dut. Seme-alaba eta bilobez inguratutik. Neureak ondoan ditudalarik. Arratiako baserri eder batean, oiloz eta txakurrez inguratutik. Agian 100 urte beteko dituen *Idatz eta Mintz* aldizkarirako konturen bat idazten...

...Bizitza aurrerantza doa, batzuk badatoz eta beste batzuk badoaz.

DATOZENEI ETA JOAN DIRENEI.

Fatue



Patuak Bilbora eroan ninduan. Eta *Patuak* dinot, hizki larriz, errespetua eragiten deustien kontzeptu guztiei jagoken moduan. *Eroan ninduan* dinot, aspaldian uri horretatik ez ibilteko hautua egin nendulako. Uriak, larregiko jente, gauzen eta gauzeztanen pilaketa horreek begitantzen jataz gizakiaren arazo ugariren sorburu. Eta Bilbogaz, bereziki, maitasun vs. gorroto dantza amaiezin batek naroa. Iragana burura ekarten deustien sentimentuz margoturik dagoz kale grisak. Geure buruak gomuta txarrak desagerrarazteko jokaerea dauka ganera. Eta gaur da eguna porrot egin eban negozio horretatik dibidenduak baino ez jatazana lotuten. Beraz, Sabinak, *sabinista* bihurtu ninduan bertsolari espainiarrak dinoan lez: *hobe dozu ez bueltetea zoriontsu izan zaren lekuetara*. Baina Patuak bertara eroan ninduan, zeozer kontau gura eustan.

Iraganagaz lotuta nengoan, baina apur bat lehenago deitu eustan denporaz estu ebilela esateko, hobe zala etorkizunerako itxi. Harritu ninduan iragana denporak estututa ikusteak, oraina balitz lez, baina usaintzen hasia nengoan Patuak, gure ingurutik dabilenean, itxi ohi dauan orio erre usaina. Taberna baten itxiko eustazan jaso beharreko gomutak eta neuk ardao bat atarako neutsan egunkariari. Alkarrizketa hoberik aurkituten ez dodanean egin ohi dodan legetxe.

Arrasti hatan, ostera, alkarrizketa hobia topau nendun. Joan C. Vidal hizkuntzalari kataluniarrak *up* ingelesagaz lotzen dauan *ieup!* arratiar batek agurtu ninduan barrera heldu nintzanean. Aspaldiko laguna, alkarrizketakide aparta eta alkarrerri entzuteko gogo beste denpora. Errioxako ardaogileek eskertuko eben orio usainaren zidorra.

Zer esanik ez daukan jentearen galdetegi tipikoari erantzun ostean kipularen mintzetan barrura egiten hasi ginan. Politika, estimuan daukaguzan lagun komunen inguruko barriak, bertsolaritza eta gaupasa berbearen ondoan entziklopedietan datoren argazkiko protagonistak euki barri eban umea. Modako gaia 30 urteen harresiaren aurka jo edo ganetik salto egin erabakitzeke azken urtean gabizenon artean. Garai baten skate-a eukitea baizen ohiko bihurtu dira seinentzako gurdi txikerrok.

Alkarren jabetzan oinarritutako hartu-emon monogamikoak gurpilik ez daukan bizikleta legez ikusten genduzan biok. Bizitzak frogetako erea emon euskun bioi ala bioi, eta geuk bere ez geunkan gogorik astean birritan sagar bat gose barik jateko. Horrez ganera, egunero albistegiak tristuraz beteten dabezan hainbat barri gizonak jabetza pilaketa egiteko asmatutako hartu-emon mueta horregaz loturik ikusten genduzan. Bat egiten genduan, horreetara ezin zoriontsu bizi geintezkan.

Ez geunkan ziurtasuna sentiduteko premiarik, eta bizitza baso erraldoi eta ezezaguna zan oraindino, berbaren zentzu bietan. Eta hala izango da beti. Ondorioa, batzuek bakardadea eta besteok askatasuna deitzen doguna. Pierola eta Pierola artean esan neutsen Berangon alkarrizketatu nendun adineko andra batek behin aitatutakoa. Edadea itaundu eustan eta 28 neukazala esan neutsan. Atoan ezkondurik ete nengoan jakitea izan zan bere guraria. Eta nik ezetz. Orduan aitortu eustan bere sasoiari 27 urtetik gora soltera egon ezkerero Aita Santuari idazten eutsiela gutuna, lehengusuren bategaz ezkondu teko eskubidea eukiteko. Barre zantzoak begirada lausoa itxi euskun. *Bestetxu bina Josefo!*

Lagunak ezbardintasun itzela igarten eban gura-soek arrebagoz edo beragoz eukien jarreran. Arre-bea nahiko presionatu ei dabe beti mutil egonkorra euki dagian. Nire lagunari, oster, ibilbide malguga onartuten eutsien. Are gehiago, mutilaren kon-

promiso iraunkorrik eza botere seinale moduan onesten eben. Bizitzarako beharrezkoa dan malezi puntu jatorra ei da eta.

Andra eta gizonon arteko eskubide ezbardintasuna etxetik hasten da. Herri txikerretan, ganera, presinoa handiagoo izaten da beti. Gure itzalagaz elikatzen doguzan arratoiak errendidu arte, jakina. Horren harira bota eban lagunak behin bere amari entzundakoo.

Bere ama 30 urtegez ezkongai egoan. Bikote ezbardinak euki ebazan, ganera euretarike batek Iparraldera ihes egin behar izan eban polizia frankistaren eskuetan ez jausteko. Erreferentzi ezin hobeak domeketako errosario osteko atso zaharren karta-jokorako. *Narrutu* esaten deusie auzoan.

Amak estu hartu eban alabea halako baten, 26 urteko mutiko bategaz ikusi ebela jakin eta gero. *“Zer zabiz zu elaiari moduen, fatue!”* esan eustan eta akabuko berbeak betiko mindu ei eban ama. Handik gitxira ezkondu zan domekaro mezetara joian mutil bategaz. Baina amama hil ostean, *fatue!* berbea entzuten segiduten dau amak, lo egin ezinik dagoan gabetan.

Fatue! Patua! Destinoa, natura, gure eskuetan ez dagoana. ‘Adur’ Barandiaranen lanetan, guztiongan dagoan berezko indar misteriotsua. Busturiako 90 urteko andra batek argitu eustan bateatu barik egoan umeari ezin jakola *Jaungoikoak bedeinkaturik!* esan. *Adur onerako!* esan behar ei jako. Eta gure zaharren arabera seinak bateatu aurretik mairuak diranez, kristaumentzat Jaungoikoo danaren antzeko zerbait da Adurra *Fatue!* jentilentzako. Gauza ilunen bat, edozelan bere.

Bilbon iraganagaz lotu eta arratiar bategaz aurkitu nintzan eguneko bezperan Henrietta L. Mooren lan bat irakurri nendun, Antropologia feministaren ganekoo. Patuak emailez bota eustan lagun batek unibersidadean aurkeztu behar eban atxakian. Bertan jorratzen zan zelan munduko kultura guztietan

gizonak emakumea azpiratu eta eskubide bakotu dauan. Onert antropologoaren ideiak dakarz genero hartu-emonak ikertuteko metodologiaren oinarri modura. Onerten esanetan: "...emakumea, bere fisiologia eta ugalketa funtzinoagaitik, naturagaz lotzen dogu sinbolikoki, berez sortzen daualako. Gizonak, sortzeko, beste bitarteko batzuk bilatu behar ditu, kulturalak, eta sinbolikoki kulturagaz lotzen dogu". Gizakiarentzat, garapena kulturak natura garaitzea da. Argi ikusteko herrialde "basatiak" demokratizatzeke, "kulturizatzeke", antolatzen diran lapurreta gerrei begitu besterik ez dago. Eta ondorioz, gizakiaren garapenean, gizonak emakumea azpiratzea kulturaren naturaren aurkako lehen garaipena da, lehenengo eta garrantzitsuena guztietan.

Egungo gizartearen oinarriak ezarri ebazan prozesu kultural osoa berba baten laburtzen eban nire lagunaren amamak bere alabari *fatue!* deitzen eutsanean. Patua, destinoa, naturea, gure eskuetan ez dagoana, berezkoa deitzen eutsan. Eta ahots tonuagaz kulturara, arauetara, taldera lerratzeko exigiduten eutsan, bizi dogun garapen eta erosotasunera eroan gaituan jokoaren araueti men egiteko. Ez izateko natura, berezkoa, arauetatik askea baina geuk sortu ez ditugun indarren menpekoa.

Neskalagun bati *fatue!* deitu neutsan lehengo egunean, irribarretsu. Zer deitu neutsan itaundu eustanean nire gogoeta hau azaldu neutsan. *Natura, berezkoa, destinua? Zein piropo polita!* Erantzun eustan.

Eta nik dinot, ze kultura mueta da hau piropoak berba mingarri bihurtzen dituana?



Hitza ahots denean

Astelehen batean hartu nuen Labayru Ikastegiko gutuna. Atseginez egiten zidan gonbidapena aldizkariaren 50. zenbaki berezi honetan parte harnezan. Gonbidapena onartu eta mahai gainean utzi nuen gutuna. Denborak lagunduko zidan erabakitzen zer idatzi.

Ez nuen uste gaia erabakia eta artikulua bera ere zirriborratua izatea ostiralerako. Gonbidapena jasotako astelehenean berean, Benvenisteren aspaldiko artikulua bat irakurtzen ari nintzela, ulertu nuen urteak atzeman ezinik neraman kontu bat: greko hizkuntzako *logos* hitzaren esanahi zabala bezain askotarikoaren zergatia. Ostiralean, berriz, Lurdes Salaberria irakaslea izan nuen mahaikide afari batean. Gorrekin lanean ari da eta, haren eskutik, saketik ezagutu nuen zer zailtasun dituzten gorrek hizkuntzarekin. Kontu horiek paperean jarritz egingo nion neure omenaldi txikia *Idatz & Mintz* aldizkariari. Ustekabean bideratua nuen artikulua.

Galdezka

Euskararekin etengabeko harremanetan, tarteka txundituta uzten gaitu hiztun batek edo idazle batek. Galdetu ere, galdetzen diogu geure buruari non ote dagoen dena delako jardunaren xarma eta liluraren arrazoia. Bai, badugu hala moduzko erantzuna. Baina askotan ez dakigu gehiegi zehazten.

Euskararekin etengabeko harremanetan, tarteka geure hizkuntzaren erabilera kamuts eta gogorrek kezkatzen gaitu. Galdetu ere, galdetzen diogu geure buruari erabilera pobre horren arrazoiez. Eta betiko erantzunak etortzen zaizkigu gogora. Baina gehiegi zehaztu ezinik geratu ohi gara.

Azkenean, halako puzzle sakabanatua osatzen dute gure galdera zorrotzek eta erantzun orokorrek. Ez dugu esperantza galtzen, hala ere. Agian, egunen batean asmatuko dugu pieza solteak lotzen.

Noizean behin, halako gertaera edo testuren batek, ordea, dantzan jartzen dizkigu pieza guztiak, nola galderak hala erantzunak; eta, bat-batean, pieza bakoitzak bere lekua hartzen du, eta ustekabean osatua geratzen da puzzlea. Hura osotasunaren ederra! Hura tximistaren argia! Eureka!

Halakoak izan ziren niretzat, maiatzaren lehen aste hartako Benvenisteren pasarte eta Lurdesen afarikoa.

Beste batzuetan, galderak baino lehenago etortzen zaizkigu erantzunak. Honelakoetan, ikasia dugu zain geratzen. Agian, noizbait etorriko zaigu galdera ere.

Benvenisteren pasarte

Urteak neramatzen ulertu ezinik non duen iturria *logos* greko hitzaren esanahi zabal bezain askotari-

koak: zer dela-eta izan daitekeen, aldi berean, *hitza, arrazoia, zentzua...*

Bi esaldiko pasartea da Benvenisterena, kontu jakinak esaten dituen. Bai, baina. Hona hemen (*Problemas de lingüística general I: 27*):

El lenguaje reproduce el mundo, pero sometiéndolo a su organización propia. Es *logos*, discurso y razón al [mismo] tiempo, como vieron los griegos.

Pasarteak esaten du, lehen esaldian, zer egiten duen mintzairak eta, bigarrenean, nola izendatzen zuten grekoek bai mintzaira bera eta bai mintzairak egiten duena: biak *logos* hitzaz. Hortxe zegoen eta dago gakoa.

Hortik aurrekoa badakigu, teoriatz behintzat. Testuinguruaren arabera, une batean esanahi bat hartuko du hitzak, eta hurrengoan bestea. Alegia, mila aldiz entzuna: nola hitzak ez diren etiketak,

nola hizkuntza-komunikazioa ez den soilik kodifikazio eta dekodifikazio kontua, nola partekatutako inferentzietan oinarritzen den hizkuntza-ekintza... Baina, askotan, gauza bat izaten da teoria eta beste bat praktika. Behin baino gehiagotan, airean gelditzen zaigu teoria, praktikan kosk egin gabe.

Pozez gainezka, aurkikuntza horren berri eman nion lankide bati. Benveniste aspaldikoa dela erantzun zidan. Ilargiarena eta behatzarena etorri zitzaizdan gogora. Seguruenik, ez nuen asmatu lankideari aurkikuntza azaltzen.

Gorren hizkuntza zurruna

Lau egun geroago, Zizurkilgo frontoian nintzen afaltzen, Pello Mari Otaño bertsolaria herriko seme kutun izendatu ondorengo ospakizun-afarian. Mahaian, aurrez aurre, Lurdes Salaberria irakaslea egokitu zitzaidan. Ikasle gorrekin lan egiten du Donostiako institutu batean: haiei, hemezortzi urte inguruko neska-mutil gorrei, laguntza berezia



ematen. Berehala txirikordatu ginen hizketan. Eta, harekin hizketan ari nintzela, hor azaldu dit non dituzten zailtasunak gorrek: guk irudizkoa deituta-ko esanahia edo erabilera ulertzen. Esaterako, “los sólidos sumergidos en un líquido sufren un empuje...” esaldian; hain zuzen, “sufren un empuje” horretan: zer ote “sufrir un empuje” hori. Eta, horrez gainera, umorea eta ironia ulertzen.

Aurkikuntza handiagorik! Niri *logos* hitzarekin bezala gertatu bide zaie gorrei horrelako hitz eta esapideekin. Gorrek, nonbait, hitzez hitz hartzen dituzte hitzak eta esapideak. Eta zenbait eskolatuk ere, nahiz eta hain gor ez izan, joera bera dugu.

Horren harian ulertu dut, era berean, noizbait irakurri eta ulertu ezinik gogoan gelditu zitzaidan pasarte hura. Aristotelesena dela uste dut. Zentzumenen artean, entzumena dela nagusia.

Erantzunak txirikordan

Hortik aurrera, erantzunak hasi zitzaizkidan txirikordatzen.

Euskaldunok gortzen ari gara. Gorren hizkuntzaren moduko bihurtzen ari gara euskara. Lehen, batasunaren izenean; orain, segurtasunarenean edo prestigioarenean-edo.

Hizkuntza biunibokoa maite dugu: gauza bakoitzari bere izena; izen bakoitzari bere gauza. Azken batean, zientifikoek hizkuntza eta hizkera. Eta horrelako hiztegiak nahiko genituzke: teknikoak, modernoak.

Hizkuntza ez da halakoa, ordea. Malgua da. Uni-bokoa. Bizia. Hain zuzen, horri kentzen diote etekina erabiltzaile onek, hiztun eta idazle. Horretan dago xarma eta lilura. Hain zuzen, horregatik ditugu maiteak eta beharrezkoak, besteak beste, Auspoa liburu-bilduma eta *Idatz & Mintz* bezalako aldizkariak.

Bejondeizuela

Beraz, bejondeizuela. Bi zentzuetan.

Ohiko zentzuan, zorionak. Nahiz idatziz jardun, ahotsa lantzen ari zaretelako. Hizkuntzak eta giza-kiak berezkoa duen ahotsa: ahots malgua, bizia, unibokoa.

Zentzu etimologikoan: biaje on. Segi horrela urte askoan, gure entzumena lantzen.

Bihotzez.

Historiaren parte

Ene! Ez ba, oraindino ez daukat bialduteko moduan... buruan darabilt idatzi beharrekoa baina ez dot papeleratu... Demonioño! Zeinek aginduko eustan ba halangoetan sartuteko!

Gauzea da ze ondo baino hobeto dakidala: lagunaren lagunak *Idatz eta Mintz*erako kolaboratzailek ezagututen dauan galdetu eutsan, berak idatzitakoak pasatzeko, eta inor ezagututen baeban aldizkarian parte hartuteko modukoa hari bere abisua emoteko. Nik baietz, zeozer baneukala-eta idatzita, ez neukala testuakaz ezelango asmorik eta ez eustala ardurara argitaratutea.

Halantxe hasi zan kontu hau, nork daki noiz arte iraungo dauana.

Bizimodua zelango dan! Ez ei dago kasualdaderik eta, ostean ni neu hasi nintzan Labayrun beharrea, *Idatz eta Mintz* ondoko bulegoan euki dodalarik akabuko sasoiaren. Lehenago idatzitako olerkiak atarata, barriak bere idatzita, ahozko tradizionoko testuak batuta... unean-unean otuten jatana izan da orriotara ekarritakoa.


Oraingoa 50. zenbaki berezia zala eta ia idatziko genduan... Zelan ez, baietz, ez dakigu eta ezetzik esaten! Beste barik, inongo pretentzino barik hasitako istorioak aldizkariaren historiaren zati egin gaitu, eta gureak garrantzia handirik bakoak badira bere, ez da kontu makala 50 ale argitaratu izana. Historiaren parte txiki bat bagarala esan geinke behintzat, zer eta lagunaren lagunaren abisuari kasu eginga da.



Atxinako gomutak

Honezkero urte batzuk pasatu diran arren, ondo gogoratzen naz Deustuko Unibersidadean Euskal Filologia ikasten emondako urteakaz. Adolfo Arejita neukan irakasle eta Igone Etxebarria ikaskide, Labayru nahiz *Idatz eta Mintz*-en arima nagusietako bi. Ni ez nintzan Adolfoaren ikaslerik onenetakoa, baina akorduan daukat zelan zirikatzen ninduan idazteko, eta zelan eskaintzen eustan *Idatz eta Mintz* aldizkaria nire orduko sasi ipuin eskasak argitaratzeko. Hurrengo urteetan be, bidaiazale porrokatua bilakatu nintzala eta munduan zehar ibilaldi ugari egiten nebazala ikusita, zirika jarraitu eban; animatzeko esaten eusten Adolfo eta Igonek, urruneko parajeetan inspiratutako ipuin bildumatxo bat egiteko, Labayruk argitaratuko eustala. Eta ni, lar konbentziduta egon ez arren, animatu eta osatu neban bilduma ha, eta Labayruk argitaratu eustan *Hakuna Matata* izenburuagaz.

Orain, atzera begiratzen dodanean, nire hasierako ipuin hareekaz lotsatuta sentitzen naz, eta nire libururik txarrena zein dan itauntzen deustienean *Hakuna Matata* erantzuten dot. Dana dala, argi daukat ipuin eta liburu horreek argitaratu ez balira ni orain ez nintzala idazlea izango. Labayruk eta *Idatz eta Mintz*ek kaleratu ebezan nire lehenengo ipuintxoak, hareekaz irabazi neban nire lehenengo literatura-lehiaketa, eta hareekaz kaleratu neban nire lehenengo liburua. Bizitzan esker onekoa izan behar da eta nik esker ona baino ezin dot adierazo, ze edozein zereginetan lehenengo pausoak izaten dira gatxenak, eta nik orduko laguntza eta sostenguari esker emon nebazan. Zer esan neike oraindino bizirik dirauan *Idatz eta Mintz*en ganean? Ba bizi luzea opa deustadala. Nik etxean jasotzen eta irakurtzen jarraituko dot, jakina.



Etxahunen khantore argitaragabe bat:

Amorusa gaztia

SARRERA

Pierre Topet Etxahun zuberotarraren *Ofizialenak* khantorearen bost ahapaldi ezezagun gehiago ekarri genituen aldizkari honetako aurreko artikulu batera. Oraingo aldi honetan khantore oso bat ekarriko dugu. Kanta hau ez da agertzen Lhande eta Larrasquet-ek argitaratutako liburuan ez eta Haritschelharrek emandako “L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun”¹ korpus zoragarrian ere. Hemen argitaratzen dugun kantu hau Sallaberriren kahier batetik aldatu dugu. Sallaberriren kahier beisetik laugarren kantua da hain zuzen, hemen transkribatuko duguna. Gure helburu nagusia kantua dagoen-dagoenean transkribatzea izango da. Ez dugu gaurko grafiara ekarriko ez ahapaldiz ahapaldiko iruzkinik egingo. Aldizkari honetako muga hertsiek horretara behartzen gaituzte. Hurrengo batean ikerketa eta iruzkin gehiagoz hornituko dugu kantu hau.

ETXAHUNENA IZATEKO ARRAZOIAK

Khantorearen alderdi askok eraman gaituzte Pierre Topet Etxahunena dela baieztatzerazera. Lehenengo eta behin Etxahunen herriko berri ematen du kantuak. Leku erreferentziak bi dira batez ere “Amorusa gaztia” gure khantorean agertzen direnak: Gastelondo eta Aragne Gohiene. Gastelondo edo Gaztalondo Barkoxeko auzoera bat dugu. Lau khantore baditu gure Etxahunek auzo horretako gertaeren gainean, “Gaztalondo handian”, “Gaztalondoko neskatilak”, “Gaztalondoko prima” (1538), “Khantoren khantatzeko” (1829). Arañe, ordea, Atharratzekoa izan arren Barkoxeko lurrekin mugante egiten den auzoera dugu. Auzoera hau “Arengaraiko primaren khantoria” delakoan ikusten dugu.

Euskararen aldetik ere Barkoxeko euskara ikusten dugu hein handi batean. Khantoreen euskara herri-tradiziotik bildua bada

eta ez Etxahunen beraren eskuzko kopia batetik, ondoko herrietakoa ere izan daiteke, inolako dudarik gabe. Gure ustez, ostera, kantuaren zigorik argiena Etxahunen estiloa da. Bai, halaxe da, Etxahunen bihotz-bulko eta estilo imitazina ikusten dugu kantu honetan. Gainera, oker egoteko bide gutxi ikusten dugu gure baieztapen honetan. Etxahunen khantoreak entzun edo irakurri ondoren berehala atzematen da Barkoxeko jeinuaren arnasa. Kanthoreei ematen dien eitea paregabea iduritzen zaigu. Erabiltzen dituen irudi eta metaforek badute indar aparteko bat. Indar hori ikusten dugu hain zuzen ere “Amorusa gaztia” konposizioan.

Etxahunen estiloaren erakusgarri asko ditugu kantu honetan. Arerioei egindako kontu errendapen bat dirudi khantoreak. Azkenengo ahapaldian agertzen da partidei edo arerioei egindako ordainarekin kito gelditzen dela. “Amorusa gaztia²” konposizioaren hainbat esapide eta irudi bestetan ere ikusten ditugu. “Jinkuaren maniak” khantorean, esaterako, *Bedatsian bazterrak berdutzen dirade* ikusten dugu. Gurean *Bedatsian zühañak glorius dirade*. Beste bat aipatzearen, *ez eskandalik xerkatü* esapidea behin eta berriro ikusten dugu Etxahunen produkzioan. Baina kontu sakonagoak ere aurki litezke. *Cotapen bisitatzen* esapideak, esaterako, Etxahunen zigilu eta firma argia ematen digu. Diogunaran froga argia da “Mendiko herrian” khantorearen bukaera. Tanke-ra honetako bateratasunak asko eta asko eman litezke. Froga erreskada zehatzak, ordea, guk hemen dugun baino leku gehiago eskatzen du.

“AMORUSA GASTIA” KHANTOREAREN TRANSKRIPZIO ZUZENA

Atal honetan dagoen-dagoenean aldatuko dugu kantua. Hamazazpi ahapaldi izateak kantu biribildu baten eitea ematen du. Ez dirudi herriko tradizioan gehiegi itxuraldatua edo gutxirendua dagoenik. Gure eskuidatziak, bestalde, beste eskuidatzi bateko kopia dirudi. Transkripzio erdua ez da beti bat eta ilunune bat edo beste sortzen da, dudarik gabe. Hona testua besterik gabe:

1

Ahairia çahar eta khantoriac berri
 Sujetas éguinendu mundiac erri
 Eguias éraiten dut yaounac bihotçetic
 Heraberic hasten nis mintçatçen ihouri
 Nahis béguiratu escandaleti
 Ceren betçait comeni
 Eni eta beste mundu orori

2

Hanitch yente baduçü beharune gabe
 Embrassutan sartçen beitrade
 Sustut amorous dena bai etare gaste
 Erhokeria baiçic éçagutu gabe
 Besteren takac haiec cherkatçen dutie
 Oustes diren berac gabe
 Bena gaberac esta sorthu batere

3

Aragne Goyheneco dendari gastia
 Lehen içan çiradiana³ phuntçela
 Heltu içan çinen adin handiala
 Ezpeitçen arolatu ihour çourekila
 Hamahirour ourthe baçunian aisa
 Araous aski beita
 Orducos heltu çeiçun écin bestia

4

Hassi çinen ordian lanic presenari
Abisu hartu gabe ihouri
Guero eman hardiki offiçio hari
Eta ez maluratu araous behin baiçic
Hartaric libratu halere irouski
Bai eta segreki
Etçian hora yakintu aitac baiçic

5

Yaun gaztebat yiten çen ordian ardura
Maitia çoure solojatçera
Etehecouec yakintu çoure conduta
Haren ondouan çihaour ébiltén çinéla
Harec plazer çian lekhu orotara
Ahal beçain ardura
Harékilan gaiaren igaraitera

6

Arousac eijer diçu udaco floria
Etçitiala⁴ afligi othoi maitia
Eran behar néikéçu çoure méréchiac
Bena esta capable ene espiritia
Bena phentxatcen dit ene dessein houna
Bestebatekila
Hora ere nitçaz orhit içan beita

7

Hirour hilabetez yaoun hora ardura
Ebili içan da bi haiekila⁵
Guero çiec yakintu algaren berriac
Bai eta bertan sarthu bekhasterian
Arasouekila eztaiteke para
Lakherdirakila
Bena hori eztuçu ene falta

8

Gastelondo gagneco etheco alhaba
Trufa éguitiac guiti⁶ deiçu phena

Cuc ere entçunen tuçu çihaour çira kaousa
Cherkhatu ukhen naiçu badakiçu noula
Nahi bada gaste etçira ahalke
Hamaseiac bethe gabe
Sujet gabe emaitera desouhoure

9

Hamabost ourthetan aldis guiçoneki
Nahi béçain ussu etçinen haieki
Asteco sei gaietan bai ardura hati
Couregana yin nahi çiren ororeki
Eztuçu itchoussi maitia segurki
Abiaoua hori
Ukheiten baduçu çertçaz interteni

10

Orai baducu bat çihouren kaloyan
Sokhori houmbat umen du⁷ çurekilan
Alojatçen umen da çoure béropian
Neguco gai hotçetan çoure saihetxian
Cerbait éguinen du yaoun harec balinban
Cuc nahi lekhian
Odol hounic balinbadu khorpitçian

11

Elukeçu gaisto halaco poriti
Ukheitia çerbait hounki
Uduri diçu harec azkabiareki
Hassiric içan dela sorthuz gueros bethi
Edo gossiareki leherturic bethi
yçan dela biçi
Coure hatxa esta yaouçiren haregati

12

Yelofreia lilia eiyer baratçian
Urguliac damu eguiten mundian
Neskatila gaztiac ene abisian
Mundia bego trankil bere estatian
Ez içanic ere çiec beçain beste

Malura date goure
Eta abantailla dianac du bere⁸

13

Esquioula bastereco khantore eguilia
Ukhen ducu orano phacamentia
Nic eman nahi deiat ene phartia
Bethi maite beitut caritatia
Nahi benin araouz hel lekian fama
Mundu orotara
Hartacoz nahi deiat éguin heltura

14

Gaiçabat yincouac eguin espalu
Yçanen intçan aisa famatu
Baina campotaco balereic⁹ formatu
Mundia oro çukian ordian haritu
Arrolan uduribat intçatian sorthu
Bena arguiçaguiac mankatu
Hartacos çaic uzkia apha baratatu

15

Estatubat hounic banakikec hire
Hartaco ountxa houna intçate
Escalampou baten neskatala gasten
Campoua chipi barnen aisa hougna sartçen
Ordian ari einte haien cotapen
Ere bisitatçen
Bestela eztuc batere ikhoussiren

16

Bedaxian çuhagnac glorious dirade
Guiçonac ez har sobera banitate
Ez escandalic cherkha beharune gabe
Aski aguituren da bortchaties ere
Beldur içan guitian othoi bethi ere
yçana gati gaste
Gincouac bethi puni ahal guitçake

17

Bersset hoiec éguin tut herabereki
Pharcamentu galtho nago mundu orori
Gincouac eman deiku odre hori umilki
Oguenac pharca guintçan batac bestiari
Orai kito benis ene partideki
Pharka ditçagun algarri
Hel gaitian oro çelian irouski

ONDORIO GISA

Etxahunen khantoreak zail baino zaila-
goak dira euskaldun ikasi askorentzat ere.
Khantore honek hitzez hitzeko azalpen lan
bat merezi du. Gaurko grafiara eta ortogra-
fiara ere ekarri beharko litzateke. Guk,
ordea, lehen pausoa baino ez dugu egin lan
honetan: transkripzio zuzena.

¹ HARITSCHELHAR, Jean: "L'oeuvre poétique de
Pierre Topet-Echahun" in *Euskera* XIV-XV, 1969-
1970, 1-695 or.

² Jatorrizkoan "Amorosa gastia" dugu.

³ Berez beste zerbait dator: *çiradiaha*. Uste dugu
çiradiana izan behar duela eta halaxe jarri dugu.

⁴ Lehen idazkeran *Etçtiala* idatzi du transkriba-
tzaileak. Gero lehen -l- laburtu egin du -i- bat ema-
teko.

⁵ Eskuidatzian *haiekela* irakurtzen dut.

⁶ Halaxe irakurtzen dut. Ez ote da jatorrizko *goiti*
bat irakurri behar hor?

⁷ Jatorrizkoan *umendudu* dakar.

⁸ Ezabatuxe dago tinta baina badirudi *bere* batez
bukatzen dela ahapaldia.

⁹ Halaxe irakurtzen da.

Zuhaitzaren adarraren puntaren puntako poemak

AURREZ AURRE

Aurrez aurre,
begiz begi,
zure begi-ninietan
ni.

Aurrez aurre,
buruz buru,
nire begi-ninietan
zu.

Buruz buru,
aurrez aurre,
nire begi-ninietan
zer?

Aurrez aurre,
bekoz beko,
zure begi-ninietan
lo.

ORDAINETAN

Zuhaitzak guri
fruitua,
eta abaroa,
eta egurra.
Guk ordainetan
sastadak,
eta aizkora,
eta sua.



TRIKUARENA

Kiribil-kiribil
trikua
Kiribil-kiribil
bidean
kiribil-kiribil
autoa
kiribil-kiribil
aldean
biribil-biribil
gurpila
biribil-biribil
gainean.

TXIMELETRAK

Zirurikan-zirurikan
joan zaizkit letrak
liburua zabaltzean.

Zirurikan aurrean,
zirurikan atzean,
ene inguruan hegan.

Eta ni jo eta ma
letrei begira-begira:

Tximeletrak ote dira?

MAITASUNA ZER DEN


Hara hemen
maitasuna zer den:

Hitzak korapilo,
barrua pospolo
bihotzean azeri-trosta,
lilura agerian,
zirrarak igerian.

Hara hemen
maitasuna zer den:

Begiradak gezi,
laztanak amu,
arnasak eten.

Hitzak korapilo:
Arkakuso matxinsalto,
arkasalto matxinkuso.



TXANTXANGORRIA

Hegan txantxangorria
hegan txantxetan,
marra gorriak margotu zituen
zeruaren kopetan.

Txantxangorria, plaust!,
pintura-potera erori zen:
orain txantxanhoria du izen.

Hegan txantxanhoria
hegan txantxetan,
marra horiak margotu ditu
zeruaren kopetan.

ERRALDOIARENA

Erraldoi batek
itsasoan zurrut egin du
eta zintzurra busti.

Itsasontziak irentsi ditu
aingura eta guzti.



ARMIARMAK

Matxinsaltoak dira
amamaren bihotz-taupadak,
uso mezulariak dira bere eskuak,
tximeletak bere betazalak,
ehunzangoak bere betileak,
inurriak bere begi-niniak.

Hain zaharra izanik,
armiarmak dituela dio amamak
eta sareak ehundu dizkiotela begietan.

Begi-lausoak direla dio sendagileak.

SURFARIA

Purrust-parrast
olatuak
eta ni
surfari.

Purrust-parrast
olatuak
eta ni
arrainen janari.

EULIARENA

Zurrunzunzun
zurrunzunzun...

Ahots-marmarra
entzun du euliak.

zurrunzunzun
zurrunzunzun...

Trapu-zarta ez du entzun.



AMETSETAN

Oroilore bat atxiki dut
papar-hegalean,
munduari itzulia eman diot,
ametsetan,
zure izenaren bost letrak esan ditut,
banan-banan,
ahopetik;
amodio-gutunak idatzi dizkizut
Damaskotik;

eta esnatzean
gutunazalak zure postontzian,
matxinsaltoak eta ehunzangoak
ibilian-ibilian,
zure bihotzean.



Ardatzean

Iazko udagoiengan (2009) bizikizun sakon eta aberatsak izan dodaz: larria, kezka, ebakuntzak, zainketa eta arta intentsiboak, adiskideen maitasuna, oinarrizkoetan eta gun-gunekoetan gogo- eta, ardatzaren bilaketa, guztiekazko esker ona... Hiru pausutan eskeintzen deutsut pil-pilean bizi izan dodanaren adierazpen moduko izan gura dauan asaskaldia.

GOIZALDE LARRIA

Goizaldeko laurak
“Mertsede” eguna
Esnatze larria
Bularrean pena
Arnas-hartzean min
Ta sastadak gordin
Etzunda nork iraun
Hau bai estutasun

Itsuturik gogo
Ez dakit nora jo
Larriaren larriz
Artega ta antsiz
Bat-batean ilun
Bildur ta mintasun
Zeinen une latza
Ta ikara baltza
Nora gabe gorritz
Ezinaren zauriz
Nabil hara hona
Senetik urtena.

Hasierako trantze larria
Badoa aurki baretzen
Eta banoa ura edanda
Besoak gorantz luzatzen
Arnasestuka banago ere
Gogoa hasi jat bizkortzen
Abiada handiz sentimentu ta
Pentsamentuak argitzen
Ta bat-batean dana ikusiz
Azken-muga dot sumatzen
Azken-muga dot sumatzen.

Itsumustuan hainbeste lagun
Ta jazoera gogora
Etxeko, hurko eta maiteenak
Jatortaz aurre-aurrera
Eskerron eta parkamen hitzak
Sortzen agotik hortzera
Eta barrua asaskau guran
Dar-dar urduri idaztera
Azken-gogoak letra baldarrez
Baina tinko mugatzera
Baina tinko mugatzera.

Mertsede eguna
Bularrean pena
Birikian koskor
Pleuran erasokor
Mertsede jaiean
Ito aginean.

ARDATZEAN*

Zenbat zereginek
Zenbat ekintzak
Zenbat asmok
Zenbat ametsek
Zenbat adiskidek
Zenbat lorpenek
Zenbat arrakastak
Zenbat porrotek
Zenbat atseginek
Zenbat nahigabek
Zenbat ospakizunek
Zenbat tristurak
Zenbat haserrek
Zenbat pozaldik
Zenbat ilunaldik
...zenbat eta zenbat

Gorabeherak eta joan-etorrik
Hartzen daben osoan
Gure burua eta gure bihotza
Honako erdigune bailirean
Honako garapenerako gurpilean
Ezinbesteko giltza balira bezala.

Baina horren guzti-guztiaren E T E N A
Ezustean eta bat-batean etorten jakunean
Erabat aldatzen da gure ikuspegia:
Eretxiak, proiektuak, balioak...
Zer da orain benetan garrantzizko?
Zein dogu erdigune, giltza, ARDATZA?

Bizia bera
Eta biziaren iturria eta zentzuna.
Horixe da egiazko kokagune bakarra.
Beste gauza guztiak
Baliokoentzat izan doguzanak ere
Gauzeztan, labur, esangura gitxiko
Gertatzen jataz sakon-sakonean.
Eta nire gogoeta bizian
Jauna dot ARDATZ, argi eta salbamen.

Berez-berez sortzen da orain otoitza:
“Zure eskuetan dot bizia
Askatu naizu Jaun handia”.
Eskerrak zuri, Jauna,
Lagun zakidaz
Zeugan dot itxaropena!

Itxaropen honek sendotzen deust
Konfiantza tinko eta poz-emoilea,
90. salmoaren egilearen bizikizuna
Neure egiten dodala:
“Jaungoikoaren hegoen pean
Bai bakean, bai bakean,
Ahalak guztiak dituanaren

Gerizpean, gerizpean.
Zinez dinotsot: Zeu zaitut
Geriz ta abaroa,
Zugan dot neure uste osoa
Jaungoikoa”.

Nire barru-ibilbide sakon eta aberats honek erabat hartzen nau eta bizikizun oparotzen honetan gorapen- eta esker-kantua loratzen jat ahoan, Jaun maitale, onbera eta errukitsuaren aintzarako: “Jauna, zure maitasuna abestuko dot betiren beti”, eta gonbidapena zabaldu gura dot lau haizetara: “Jaunari kanta, ona da-ta, hain dau handia bere betiko errukia”. Eta kantuz jardun: “bai eskerrak emon zeru-lurretan, eskerrak emon Jainkoari, guztietan deusku-ta on egin guri, eskerrak emon zeru-lurretan, eskerrak Jainkoari menderen mendetan”.

ESKER ONEKO

Buruak ezin pentsa ahalekoa
Irudimenak asmau ezin bestekoa
Bihotzean ezin hartu ahalekoa
Zenbat eta zenbaten erregua
Ezin kontatuzko adiskideen aldrea
Ustekabeko hainbesteren gomuta
Adiskidantzazko alkartasuna
Maitasunezko sare pozgarria...
Horra hor nire bizikizuna
Latza izan dodanean gaixoaldia
Sakona nire larrialdia.

Bihotzak eta izate osoak
Gainez egiten deust
Erabateko esker ona adierazo nahian
Eta hitzak indarge eta makal
Ezdeus eta gauzaez gertatzen jataz
Barruak eskatzen deustan adierazpena
Hazurmamintzeko gurari bizian.

Nazan guztia bihurtzen jat
Egiazko autormen eta esker on:
Hainbeste lagunen argik
Eta maitasun indarrek bultzatuta
Zelan ez atseginez asean egon
Nork ez lotura-soka gozoak jagon
Eta biziari eutsi edonoiz eta edonon
Erreguan eta errukian ahalguztidun
Edo behintzat erabat eraginkor
Azaldu jatazan guztiei
Gorapena adierazo eta emon
Eta Jaunari kantuz jardun
Haren asmoei eginaz leku eta jaramon
Bera dodalako zentzun eta oinarri sakon.

Jauna
Zeurekin nahi dot egon
Zeurekin bidea egin
Zeurekin egunero ekin
Zure barri etengabe emon
Zeugan betiko zoriona itxaron.

• *Larrialdia jasan ondoren idatzia, larrialdian indar izana.*

Arnasa pilulak

Bukatu gabe utzi ditugun egitekoak, akatsak izatetik urrun, arnasa dira etorkizunari begira.
Beti okerra ikusten duena ez da oroz zuzena.
Besteari gehiago exijitzen diona ez da bere buruari gutxiago eskatzen diolako.
“Beti” ez da besteen errua; baina “ia beti” bai. “Ia”k salbatzen gaitu beti, edo ia beti.
Egunero dugu ikasi berri bat ahanzturara kondentua.
Neure buruarekin bakea egiten dudanean, mundua haserre egon ohi da.
Ez da gauza bera egunak gaua ala gauak eguna ekartzea.
Lotsak eta biok ez dugu oraindik elkar oso ondo ulertzen. Aurkezten natzaionean, gorritu egiten zait.
Maitasunari ere iraungitze-data begiratu behar zaio.
Galtzea axola ez digun hori da guztiona.
Beldurrari gerrikoa estutuz gero, gezur bilakatzen da.
Batzuetan, hobe da gauzak ez ulertzea.
Daukagun arnasa baino ez daukaguna eskaintzea da errazago.
Dirugabeko bezeroak arrazoa ere galdu egiten du.
Txanda zaindu behar da azkena izateko.
Berantiarraren erlojua beti korrika.
Besteen elkarriketetan belarria jartzen duena originaltasun ezaren bila dabil.
Jendeak urrutiko hiri handietara bidaiatzen du, hurbileko herri txikiak handi gelditzen zaizkiolako.
Oporrak, lanegun alferrak.
Egiaren jokotik kanpo gelditzen dena ez da gezurra, galdetzen ez dena baizik.
Erruki inoren zain ez dagoena.
Errazago eramaten ditut eskua ematen ez dutenak, besoa hartzen dutenak baino.
Entzuten ez dakiena galderak egiten trebea ote?
Gezurtiari mundua zaio herren.
Musutruk egindako lanak, trukean musu gutxi.
Mundua mukizapi bat da, han topo egiten dute muki(tsu) guztiek.
Hilekorik ez daukanak ez daki benetako tripako mina zer den; hortik, burukominak ematen dituzten gerlak.
Gizakiok, erreprimitu baino areago, errepikatu egiten gara.
Bakarra ez izateak badauka bere prezioa: eksklusiboa izatea.
Pino egiten ikasi baduzu, heldutasuna iritsi duzu.

Ni ez naiz tribukoa; tribuak izendatu nau bertako.
Poza solidoa da; pena, likidoa.
Ulertzen ez dudanak baino gehiago beldurtzen nau ulertzen dudanak.
Pentsatzen ari naizenean, ideia guztiak josi egiten ditut, askatasun susmorik txikiena ere arnas ez dezaten.
Ustea ez ezik, uztea da ustela.
Ikasten dudan oro desikasten saiatzen naiz, berrikasi beharko nukeen guztia berriro ez irakasteko.
Berriro jaioko banintz, atzera begiratzea ekidingo nuke, benetan.
Botila erdi beteta ikusten dudanean, hustu egiten naiz.
Suspirioa: ezaren hegaldia.
Gorputz-atalik ederrena, ispiuetan islatzen ez den hura.
Beren eskuzabaltasunaz harro diren gehienak mantxuak dira.
Pentsamendua ukitu ere egin gabe lapurtu daiteke.
Barrutik bizi nauen ezinegona ezagutzen dudanean, abandonatu egingo dut.
Idealismoa deserriratu duena da ameslaria.
Birika berri bat behar nuke arnasberritzeko.
Posible dela ikusten dudanean sortzen zaizkit zalantzarik bortitzenak.
Harriak harri dira baina guztiak ez gaituzte berdin kolpatzen.
Aldenduz, aldenduz, banator.
Pospolotan dirua xahutzen ikusten dudanean, sutan erretzen naiz.
Egiten ditudan gauzak urgenteak dira; inportanteek, denbora handia eskatzen dute.
Bihozkadei kasu egiten hasi naizenetik, sinestun bihurtu naiz.
Esaten ez dakidana pentsatzen dudanean, ez dut esaten dakidana.
Inoiz, aurrera begiratu behar da.
Txarrera nagoenean nago neure onean.
Maitemintzeak, hitzak dioen bezala, maitea mintzea dakar.
Beroaldian hartutako erabakiak hotzak gertatu ohi dira.
Errealitatea egia baino haragizkoagoa da.
Gizakiak asko du suetik: etsaiak hezur edo mamizkoak diren jakin aurretik irensten ditu.
Belaunaldi berriak alferragoak dira; aurrekoak baino perfektuagoak.
Iluntzean argiak gezurra dio.
Urteak salgai.
Harria bota ez duen eskuak mihia du lekuko.
Maitatzeko beranduegi denean, besterik da maitasuna baino.
Galdu dudan guztiaz oroitzen naizenean, poztu baizik ez naiz egiten.
Anphora hautsi da; eta ez da ezer gertatu.
Isiltasuna oso da garestia; horregatik hitz egiten dugu.
Hari batetik zintzilika dauden egitateekin zabuan ikas daiteke; adibidez, bizitzarekin.
Ahotsa galdu duenari garrasi oro zaio gor.
Jada, ez da ezer geratzen atzorako.



Euskal Herri berriko kantaria

Bilboko Plaza Barrian dagoen Euskaltzaindiaren bulegoetara sartu behar naizen aldioro karrikarte batetik iragaiten agur dezaket duela 30 urte zendu zen ene ikaskide ohi Michel Labeg(u)erie (1921-1980) ezin ahantziaren izena. Gogoan dut ere Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* deitu aldizkariak liburuxka pollita eskaini ziola Mixel Itzainak bere idazkari ohiak idatzirik eta geroztik oraino bere heriotzaren 30. urteurrenaren karietara bertsu berri batzu bota omen dizkio Kanboko auzapez eta senatore XX. mendeko euskal kantu berriaren sortzaileari. Ikus *Herria* astekarian, 2010/08/12koa, 3. or.:

*Mundu huntan zineno beti borrokatzen
Ari zinen goiz arrats, ez zinen gelditzen!
Zeruko bake hortan, hasi naiz pentsatzen
Ez ote ziren ba doi bat enoatzen!*

*Ez zaude ez bakarrik, hor dira zurekin
Mundutikan goizegi joan zirenak berdin!
Zaude Oxobi eta olerkariekin,
Ondoan dituzula Xalbador ta Mattin!*

*Jainkoaren loriaz bihotza betea
Bertsu-gai bakarra hor Jaunaren ospea!
Zeruko besta hortan baduzu partea:
Kantu berri egiten... gitarra joitea!*

Bainan euskal kulturak Añamendiko bi hegaletan 2000 urtez geroz irauten duen ber, behin latinez gero arabieraz “Oxala” ala “Inch Allah”, geroago gazteleraz eta gaskoinez, eta gaur oraino euskara zahar eta berriaz.

Zuzen da beraz Labayruk ere bere hitza erran dezan karia horretara, zeren bai Bilboko seminariotik ikasle ohi bat, Juan José Pujana jauna, eta Iruñeko seminariotik beste apezgai bat, gaur beti apez duguna Nafarroan, José María Aleman, beren seminariotarik kanporaturik izan zirela eta Hazparneko ikastegian nihonek zuzentzen nuen aterpetu Mixel Labeguerie-ren diskoak beren seminarioko gelan zeuzkatelakotz. Eta azkenik, jakin dugu, bere anaia Gorkak erranik Gasteizen haren ehorzketa egunean, Henrike bera urte bat eta erdi preso atxiki zutela guardia zibilek, Mixelen diskoak kontrabandan atzeman zizkiotelakotz.

Bainan horretan bego Mixel bere zeruan, “bakearen urtxoa” erakar dezan hain aspaldian odoletan dugun lur huntara Bilboko gotzain berriak Mario Izetak opa berri digun bezala.

* * *

Mateo Múgica Urrestarazu eta Clément Mathieu

Gotzain batetik bestera eta Kanboko txistulari batetik Kanboko iheslarietara. Jakin berri dugu alabainan, Vatikanoko jaunen baimenarekin arauaz, D. Mateo Múgica Urrestarazu jaunari 60 urteren buruan Hegoaldeko hiru apezpikuk barkamendu eskatu diotela Francok eraiki Gasteizeko katedrale berrian, meza denboran, Francotiarrek beren “kurutzada”-ren eho zituzten 14 euskal apezken ohorea defendatzeko, Belgikan hil aitzin argitaratu zuelakotz *Imperativos de mi conciencia* deitu liburuxka.

Hain zuzen, lehentxeago eskuratu berri dut 1945ean Nicolas Ormaetxea *Orixé* eta gaztetan ibiliak bidali zidan 1945ean nihonek argitaratu bainuen liburutxo bat “Aintza” argitaldariari esker deitzen zena *Petite histoire religieuse du Pays Basque* (1945). Hortan jesuitagai hain luzaz egona zen Orixek idatzi zizkidan bere zorionak ene liburuarentzat, bereziki 55. orrialdean Espainiako gerla zibilaren ondotik bi apezpiku, bat Iparraldekoa, bestea Hegoaldekoa, haiek izendatu gabe ere, aipatzen nituelakotz. Horiek baitziren, bai Orixeren ustez, bai ene ustez, *Imperativos de mi conciencia* idatzi zuena, bestea, berriz, Clément Joseph Mathieu bi urte geroago apeztu behar ninduen 1947ko uztailaren 13an.

Artetik erraiteko egun berean beste apezpiku euskaldun batek Jean S^t Pierre *Anxuberro* milafrangarrak apeztu zuen Roger Etchegaray, gaur Erroman, Vatikanoko hiritar den jaun kardinala. Elgarretaratu baigara Ezpelatako “Xoko Maitea”-n, gaztaroko historiak gogoratu ditugu elgarrekin eta zertako ez batzuetan xuxendu. Hala nola nihaurek askotan errepikatu izana gatik ez zituela ene lagun ezepletarrak sekulan bere memoriak izkribatuko, huna nun orai argitaratzen digun frantsesez (*J'ai senti battre le coeur du monde*, Editions Fayard,

2007). Ez da, ordea, xuxena hor erraiten duena, berak eta nik Pio XIIgarrena ez dugula hurbiletik ikusi, ezen aitortu behar du ene Erromako lagunak, Etchegaray eta Charriton Erromako Santa Chiara den “Seminario francese” delakoan hartu gintuela Clément Mathieu jaun apezpikuak hura eta ni eta Aita Sainduaren aitzinean belauniko ezarri erranez Aita Sainduari: «*Ene Akizeko diosesian ez dut apezgairik aski Erromara haien eskolatzerara bidaltzeko, gaztetan nihaur bidali ninduten bezala, bainan hauek biak hartu ditut hemen Santa Chiara-n, ni bezala euskaldunak baitira.*» Eta oroitu da, beraz, Roger kardinala, ni bezala, Aita Saindua Pio XIIgarrenak orduan besoak luzatu zituela zerura buruz erranez: «*Ah les Basques! Gardez la foi!*» (*Ai euskaldunak! Fedea zaint ezazue!*). Jarraian kanpora atera ginen bi apezgaiak eta Aita sainduaren elkarriketa burura zedin atean iguriki genuen. Barrutik ateratzean eskuzapia eskuan Clément Mathieu-k erran zigun: «*Aita Sainduak ez nau besarkatu, ez zidan mikrobioaren kutsua eman nahi arauz*». Bainan bera bere bilkuratik atera orduko, ttipidanik ezagutzen bainuen gure gizona, etxeko medikuaren anaia Hippolyte Mathieu baitzen eta ere ene osaba Mgr Diharce Baionako bikari jeneralaren ondotik etorria, bere gelari eta gero haren gelari ene izeba Maiena Zabaltzagaraiekin, erran nion berari: «*Noiz ote Jaun apezpikua argitaratuko dituzu Pio XIgarrenari bera hil baino bi hilabete lehenago egin zenion bisitaren berriak Espainiako gerlaren hastapenean?*» Eta erantzuna bipil etorri zen: «*Argitaratuko? Nehoiz ez! Menturaz kalte gehiegi egin lezaketete Elizaren historiari.*» Eta orduan Roger, horiek oro entzutean oroitu ere da, ni bezala, bere memorieta konda zezakeela ere beste xehetasun bat, ezen 1946an, Urrietan, Baionatik Erromara bidali gintuztelarik hura eta ni, eta sartu ginelarik Erromako Santa Chiara karrikako “Seminario francese” delakoan, sartu orduko hamar egunen buruan ate-

zainak helarazi zigula deia Roger Etchegaray-i eta Piarres Xarritoni: «Zuen izebak deitzen zaituzte». Gu biak harrituak jausten gara beherako solairura eta hor gure zain aurkitzen dugu andere handi eta eder bat erraiten diguna bie: «Ez naiz zuen izeba bainan gezurra erran diot atezainari, horrela zuen bien ostatura eremaiteko baimena izatekotan.» Kanpora eta, jakin genuen andere hori zela hamar bat urte lehenago, 1936an, Espainiako gerla hasi zelarik, Clément Mathieu-ren lagun batzuek segetu handitan bidali zutena Erromara, Frascati-raino joan zedin Mussolini-ren polizak han preso zeukan D. Mateo Múgica Urrestarazu jaun apezpikua-ren ikustera. Oroen buru gure anderea espion lanetan ere ohitua zen aspaldian. Eta egun batez *Gure Herria* aldizkarian publikatu zuen eta zibero-tarrek pastorala bat ere egin dute historia horrekin, *Andere Madalen de Jaureguiberry* deitzen dena. Horien guzien lekuko izanak baigara Roger eta ni, zeren nik ere ikasi baitut “Testis unus, testis nullus”, erran nahi baita “Lekuko bakarra, deusez lekuko”. Bainan bera eta ni hauen guzien bi leku-ko gara.

Aspaldiko historiak dira horiek oro, bainan azken hitz bat nahi nuke erran, bereziki Mgr Mathieu-ri buruz. Hegoaldeko anaiek, 60 urteren buruan, eskertu nahi izan dutenez geroz ofizialki Mgr Múgica-ren oroitzapena, uste dut beren esker ona behar liroketela erakutsi ere Clément Joseph Mathieu apezpiku zenari, ezen 1936eko uztailearen 17an, gerla hasi zen arratsaldean Artzain Onaren elizan Donostian balin bazen Akizeko apezpikua Vincent de Paul Sainduaren bezperak erraten ari, biharamunean berean Hazparne sorterrian zen oraino bizi den bere iloba Henri Mathieu Pariseko pediatria ospetsuaren jaunartzean. Eta handik landa Eusko Jaurlaritzan sortu aitzin Bilboren nagusi zirelarik gorriak irailaren 15ean apezpiku jauntzitan Donibane Lohizunetik Bermeora bazoan itsasunt-



Monseñor Múgica

ziz eta handik Bilbon hiru barku handitan preso zeuden jaun, andere eta umeen Bilboko portuan beren barku-presondegiatan ikuskatzera. Hortik lekora oraino bera etorri zen urriaren 3an Uztaritzeko seminariora, ikasleak itzuliak oporretarik, gurekin afaltzera, superior ohi bezala. Zergatik ote? Militarrek haizkatu zuten Mateo Múgica bere adiskideari haren errezebitzeko Dantxariako mugan. Gero jin zen Gernika eta Gernikako umeentzat Pio XIgarrenak eman zion Mathieu apezpikuari eskutik eskura Gernikako umeen laguntza sari bi hilabete hil aitzin.

Urrun dira horiek oro, Mateo Múgica itsuturik hil zen, Clément Mathieu, berriz, Kontzilio ideki orduko 1963an. Gu ere asko emerito bilakatu, Aita Sainduak ere aldatu baina Vatikanoko herritarrak beti hor dabiltza munduan barna. Beharri xilora erran diot ere hitz bat edo beste Ezpeletako Roger

aspaldiko adiskideari. Hitz bat bada orai oso modan dena, hau baita hermeneutika. Kazetetan irakurri dugu Vatikanoko elizan Ratzinger Aita Saindu berriaren ondotik zetorrela Roger erori dela. Erran niezaioke, bera baino gazteago baita, bavariar Aita Saindua eta bere ikasle ohiekin Vatikanoko II. Kontzilioaren Hermeneutika egin balin badute, oroitaraziko diot nahaurek ezpeletarrari erakutsi diodan beratar eta adiskide handi izan duen Donostiako apezpiku berrietarik bat, gu Baionako semi-

narioan ginelarik jaun Grat Candau buruzagi zelarik, Kontzilioako egunkaria argitaratu berri duen Iruñeako seminarioko haren adiskide beratarra. Hori ikusiko du Kontzilio aitzin proposatu izan zela Erroman, besteak beste, Vatikanoko Estatua desegitea eta gehiago dena, estatu horren enbaxadoreak diren nuntzioak, kardinalen ordenarekin batean, denak desegitea. Eta Nazaretoko Jesusen Elizari Kurutze Gorria bezala erakunde ez gobernamentalen itxura hartzea.



Archu frente a Bonaparte. Modelos antagónicos de aproximación a la lengua

El príncipe Bonaparte estaba interesado en las hablas, más que en las lenguas. Trazar fronteras dialectales y subdialectales; describir —o más bien coleccionar— variedades fonéticas, morfológicas o léxicas, con obsesión de entomólogo; publicar en ediciones de treinta, diez, o menos ejemplares, y a todo lujo, versiones bíblicas encargadas a hombres de iglesia y eruditos locales, seleccionados, y subvencionados generosamente, por ser buenos conocedores de dialectos que casi nunca se habían utilizado como lenguas escritas: tales fueron las aficiones a las que el príncipe dedicó sus ocios, es decir todo su tiempo, y una considerable fortuna personal, hasta que el final del segundo Imperio mermó considerablemente sus caudales, y lo redujo a la condición de ciudadano francés, privilegiado pero ciudadano a fin de cuentas.

La lengua vasca fue la principal beneficiaria de las peculiares aficiones lingüísticas del príncipe, aunque ocasionalmente también invirtiera esfuerzos y recursos en dialectos italianos, en el bable, o el gallego. Gracias a Bonaparte la dialectología vasca se constituyó como disciplina científica digna de ese nombre, y su mapa de las variedades del euske-

ra todavía hoy nos admira por su detalle y, sobre todo, por su anticipación respecto a la geografía lingüística y los atlas de, por ejemplo, las lenguas románicas que todavía tendrían que esperar algunas décadas antes de ser concebidos y realizados (con muy especial prosopopeya y grandilocuencia en el caso concreto del español y sus dialectos, convenientemente fraccionados y multiplicados por obra y gracia de algún lingüista doblado de presupuestívoro).

Para el príncipe el “elogio de la variante” era poca cosa ante la fascinación de la subvariante. Pero las variantes y las subvariantes tienen que estar en su lugar preciso, el que les corresponde en el mapa, y no podían intercambiarse ni mezclarse. Eso es lo que, a su parecer, no entendió bien uno de sus colaboradores: Jean-Baptiste Archu. Gran consternación la de don Luis Luciano ante la terrible sospecha que se convierte en realidad: “Ou je me trompe fort, ou M. Archu s’est amusé à mêler les dialectes, chose que, pour mes études, j’abhorre comme la peste” (Carta a Inchauspe, 8-II-1889, *Gure Herria*, 1928, pp. 429).

Evidentemente, Archu no mezclaba dialectos para divertirse ni pretendía engañar a Bonaparte,

que le había pedido una versión del Libro de Ruth, y después otras del Libro de Tobías y el Cantar de los cantares, etc., en puro y estricto suletino. Archu, sencillamente, tenía una idea distinta sobre cómo y para qué traducir o publicar textos en lengua vasca.

Archu, un probable descendiente de agotes y nacido (1811) en una época en que los prejuicios contra las “razas malditas” no eran una antigualla folclórica, fue hombre hecho a sí mismo a partir de unos orígenes bien modestos, en tanto hijo de un carpintero analfabeto y de una madre que respondía al poco elegante y nada versallesco apelativo de “Poupoune”. Toda su carrera profesional como maestro e inspector la realizó fuera del País Vasco, en Burdeos y La Réole. Fue persona bien valorada, riguroso en el desempeño de sus funciones, y calificado de “justiciero”, lo que le costó algún contra-tiempo con un subprefecto, del que pudo salir airoso. Consta también su republicanismo militante, en coincidencia con Chaho, a quien apoyó en una de sus campañas electorales (Etchebarne 1981).

En suma, Archu pertenece a la rara especie, en su época, de los vascólogos “laicos”, una cofradía con muy escasos miembros (Chaho, Archu, Vinson y, posiblemente, nadie más), y su biografía puede ayudarnos en alguna medida a entender sus concepciones, y opciones, lingüísticas. Archu, que ya había sido colaborador de Francisque Michel y de Vinson, fue captado a través de D’Abbadie —personaje en sus antípodas ideológicas en tanto en cuanto “clérical intransigent et réactionnaire féroce”, según Vinson— para colaborar en las empresas vascófilas del príncipe Bonaparte. En el reinado del todopoderoso Napoleón III, es muy posible que Archu viera posibilidades de mejorar su carrera profesional contando con la protección de todo un príncipe del Imperio y pariente del emperador, y, por otra parte, el recuerdo del “grand homme” que para él siempre fue Napoleón I, le ayudaría a aca-

llar unos improbables escrúpulos a la hora de asociarse a don Luis Luciano, a quien elogiará como “Printze jakintzu paregabia”, y asumir el encargo de las traducciones bíblicas que se le encomendaron.

La colaboración con Bonaparte, en cualquier caso, no le hizo abdicar de sus propias ideas en cuanto al modelo de lengua que le parecía el más adecuado para un euskera “literario”. Para precisar de qué ideas y de qué modelo se trata, la mejor vía de acceso son las obras que Archu publicó libremente como proyectos personales, antes que los encargos por cuenta ajena, es decir las traducciones hechas a instancias de Michel y el príncipe, o su labor como recolector de cantos populares, aunque las notas y adiciones a los “Proverbes” de Oihenart o el sistema gráfico empleado en los cantos pueden también resultar reveladores. Las obras personales son básicamente la traducción de las fábulas de La Fontaine (1848) y la *Uskara eta franzes gramatika uskalherrietako haurrenzat*, de 1852, refundida en 1868. Lo característico y común en ambos libros es que están concebidos para el aprendizaje y la lectura del francés, y el euskera tiene la función de lengua “vehicular”. Nada más ajeno a los intereses de Bonaparte, pero nada más consecuente con los deberes y ocupaciones profesionales de Archu en la escuela nacional francesa, y con el dogma del “unitarismo” lingüístico impuesto desde la Revolución de 1789. La elección de las fábulas de La Fontaine responde a una evidente intención pedagógica; la eficacia escolar de estos apólogos ha sido ampliamente explotada en varias lenguas y ámbitos hasta fechas recientes: breves células narrativas, en verso y fácilmente memorizables, y con moralejas que consagran unos determinados valores morales y sociales, o normas útiles para la vida práctica. El francés de La Fontaine, un clásico del siglo XVII, ofrecía, sin embargo, obvias dificultades a niños de escuela que no tenían el francés como lengua

materna y la traducción vasca tenía como objetivo facilitar la comprensión del “texto meta”. Lo mismo sucede con los abundantes textos seleccionados que acompañan a la Gramática: en edición bilingüe se ofrecen relatos históricos o legendarios, “lecciones de cosas”, anécdotas humorísticas o edificantes, etc., presentados con obvia voluntad de amenidad y de captar la atención de los jóvenes escolares, en forma que hiciese más llevadera la aridez de las reglas gramaticales, paradigmas verbales o listas léxicas.


Aunque sea obvio el papel subalterno que la parte euskérica tiene en estas obras, no cabe duda de que Archu puso especial interés en la presentación y notación de las versiones en la lengua autóctona, y que aunque fuera por vía lateral intentó también crear una norma en la lengua vasca escrita. De la necesidad Archu hizo virtud, y aprovechó la ocasión para hacer literatura vasca en el pleno sentido de la palabra, por más que los textos de La Fontaine, de una ética cicatera y de pocos vuelos, nos parezcan hoy definitivamente envejecidos; y con mayor razón los incluidos en la gramática, en bilingüe o sólo en francés para ejercitarse en su comprensión y traducción: banalidades sobre vacas o carneros, los buenos modales en la mesa, historietas patrióticas francesas tan naïfs como insulsas, sentimentalidades, o gracietas de hoja de calendario. En este caso, más que los contenidos interesan las formas.

Lo más significativo del modelo lingüístico que adopta Archu es la opción por una *Koiné* de los dialectos septentrionales, es decir todo el ámbito lingüístico, pero también “administrativo” y jurisdiccional, en que se movía el autor. Al margen de su propia curiosidad intelectual de estudioso, gracias a su colaboración con Francisque Michel y a su interés por la canción popular, Archu conocía bien tanto los clásicos (Dechepare, Oihenart) como las

variedades habladas contemporáneas labortana y bajo-navarra, además del suletino nativo; y en la “Introduction à la langue euskarienne”, que precede a las Fábulas incluye los paradigmas de sufijos y formas verbales de los dialectos meridionales, guipuzcoano y vizcaíno.

Archu, como bien ha observado Jabier Kalzakorta, “En la gramática usa un modelo de euskera más general, no estrictamente suletino. Lo mismo ocurre en la [refundición de] 1868, donde usa un modelo de euskera más estándar, alejado del suletino, fácilmente comprensible en Lapurdi y la Baja Navarra. Incluso en la traducción de las fábulas creemos que no emplea una variedad dialectal netamente suletina”. Esto último había sido percibido por Francisque Michel: “Les connaisseurs s’accordent à placer très-haut cette traduction, tout en regrettant que l’auteur, au lieu de s’en tenir à l’ancienne orthographe et au dialecte souletin, ait cru devoir puiser dans les autres et employer une façon d’écrire bizarre”. Parece claro que el escritor tenía en mente un público lector virtual lo más amplio posible, y que su sistema gráfico más que “bizarro” era el más adecuado para no crear confusiones fonéticas en los lectores habituados a la ortografía francesa.

Frente a esta opción abierta, cabe preguntarse quiénes eran los depositarios y hablantes de los dialectos puros, incontaminados, que Bonaparte quiso reflejar y fijar en las traducciones bíblicas, y ocasionalmente de otros textos, que encargó a diversos colaboradores, con instrucciones muy precisas sobre lo que esperaba recibir. No hay duda que esos colaboradores —Duvoisin, Uriarte..., y el propio Archu— eran para él sólo intermediarios imperfectos. Los ideales, e irreales, dueños del dialecto puro habrían de ser, lógicamente, campesinos analfabetos e impermeables a la cultura escrita, que no hubieran salido de su terruño ni mantenido contac-



tos con gentes del exterior. Todo ello es una entelequia en la vida y la evolución de las lenguas. En la vieja Europa (Caro Baroja *dixit*) hasta el labriego más arcaizante del lugar más remoto ha estado bajo la larga influencia de sermones, con sus latines incluidos; de la literatura de *colportage* que ha divulgado desde leyendas épicas medievales y hagiográficas a sucesos de historia contemporánea (y basta recordar el stock temático de las pastorales *suletinas*); de mercaderes, levas militares, vagabundos, peregrinos, y recaudadores de alcabalas que llegaban hasta la aldea más minúscula, manejando lenguas o dialectos muy diversos. Todos estos contactos se traducen en préstamos y cambios lingüísticos, como es de rigor y bien sabido.

La parábola sarcástica de Flann O'Brien (*The poor mouth*; o, en realidad, *An Beal Bocht*, 1941) sobre la búsqueda del gaélico prístino es un buen

recordatorio de que no hay nada más empobrecedor, y estúpido, que el purismo a ultranza. Claro está que los purismos de Bonaparte están muy alejados de las fantasmagorías de Astarloa, las de Larramendi, o las de Arana. El príncipe maneja una lingüística no mítica, moderna para su tiempo; su sano positivismo descriptivista atiende al habla real, sin veleidades neológicas de ningún tipo ni rechazo a los romanismos; pero el fetichismo del dialecto estanco y la aversión a las “contaminaciones” interdialectales son una modalidad de purismo. La morfología le importa más que el léxico, y ello es un indicio no desdeñable de que la herencia y lo, a priori, más permanente o idealmente inmutable priman en él sobre el cambio y el devenir de la lengua. La utilización de textos venerablemente sabios, bíblicos en particular, para documentar dialectos y subdialectos, cuyo modelo ideal eran

hablas rústicas ajenas al cultivo literario, supone un extraño contrasentido. Sus ediciones no estaban destinadas, por supuesto, a los hablantes de los dialectos en cuestión, pero tampoco a una élite intelectual mínimamente letrada que hubiera podido existir en el País Vasco a fines del siglo XIX. El príncipe publicaba los textos para sí mismo y un reducido grupo de filólogos diseminados en universidades alemanas, o coleccionistas de rarezas bibliofílicas.

En síntesis, es mucho lo que el estudio de la lengua vasca debe a Bonaparte, pero en el caso de haberse impuesto como única posible su personal forma de abordar la lengua y los dialectos eusquéricos, se habría llegado a una situación similar a la de los dialectos bereberes o de varias lenguas amerindias en extinción o ya extinguidas: lenguas y dialectos bien documentados, pero sin proyección cul-

tural ni perspectivas de llegar a serlo, ni garantía alguna de sobrevivir a largo y medio plazo.

La aproximación de Archu es, como queda ya indicado, muy distinta. Al paso que procura facilitar la escolarización en francés de los “Uskalherrietako haurrak”, los alfabetiza en su propia lengua y establece un modelo de lengua supradialectal, lo que la dignifica y confiere el rango de lengua culta. El “mestizaje” dialectal, que Bonaparte aborrecía como la peste, ha estado en la base de todos los proyectos de política lingüística (desde el “guipuzcoano completado” de Azkue, la gramática “navarro-labourdine” de Lafitte, o la praxis literaria de Aresti y otros escritores de su generación) que han llevado al actual modelo de euskera literario. El precedente de Archu, tan “bizarro” y disonante para Bonaparte, Michel y sus contemporáneos, ha sido en última instancia el más productivo y eficaz.

Gure Izarra aldizkaria: B. Gandiagaren lehenengo talaia poetikoa

Erriberri/Olite: pausaldi erabagigarria idazlearen bizitzan

Leku bi dagoz Bitoriano Gandiagaren geografia pertsonalean haren izakerea eta mundu ikuskeria zeharo markau ebenak: Orbelaun baserria –idazlearen jaiotetxea–, eta Arantzazuko unibertso txikia. Izan be, Gandiagaren biografiarik ederrena, Arantzazuko elorriak idatziko leukie, Orbelaun zaharreko laratuaren kedarra tintatzat erabilita, beti be.

Ha ta guzti be, Gandiagaren ibilbide literarioan badago beste leku bat osoro erabagigarria izan zana: Erriberri/Olite herria, frailegai frantziskotarren formazino-aldian ohiko geralekua izaten zana. Zortzi bat urtez gaztelaniaz eta latinez hezitako nobizio euskaldunak oasi euskaltzale txiki bat aurkitu eban Nafarroako eremu erdeldunean. Bertan hasi jakun poeta gaztea euskal poesia ezagutzen eta dastatzen:

“Han hasi ginen euskarazko geure asteroko idazlantxoak ontzen geure kasa eta irakasleen laguntza eta onespen handirik gabe. 48-51 bitar-

teko urteak dira. Han ezagutu genuen Lizardiren *Biotz-begietan*, beti ere latin eta grekozko autoreak baino ulerterrazagoa *Arrats-beran*, han Orixeren *Barne-muinetan*, han Jauregiren *Biozkadak*, han Arrese-Beitiaren *Ama euskeriaren Liburu Kantaria*, han Basarriren *Bertso Sorta ederra*, han Aita Salvatore Mitxelenaren *Aranztazu-Euskal Poema*. Ez zen gutxi”¹.

Txundituta geratu ei zan poetagai gaztea liburuok irakurtzean –gehienetan, nagusien isilean; sarri, abitupean gordeta–. Izan be, ikasketetan latinez eta gazteleraz irakurritako autoreen pareko begitandu jakozan autore euskaldunon obrak, bai formalki, bai mami poetikoari jagokonean be. Eragileetariko batzuen izenak be aitatzen ditu Gandiak:

“Olite-Herri Berrin, filosofi ikasleak ginela, bi fraile euskalzalek bisitatu gintuzten: aita Karmelo Iturria eta aita Kandido Zubizarretak.

Haiek ekarri zizkiguten *Biotz-begietan* Lizardi-rena, *Arrats-beran* Lauaxetarena, Orixeren *Barne-muinetan*, eta abar. Ale gutxi ziren eta listo-entzakoak, baina gu ere ailegatu ginen haiek irakurtzera. Eta lapurtzeko gogoia ere ematen zuten: hain ziren kutiziagarri guretzat. Bi fraile hauek euskal poesiaren gosea bezala piztu ziguten”².

“La Chopera” eritzon arboladiko makalak lekuo zituala irakurri eban Gandiagak, lehenengoz, S. Mitxelenaren *Arantzazu: Euskal Poema*; eta mahasti-lur horreetan barruratu jakozan –betiko barruratu be– Lizardi, Lauaxeta, Orixe... euskal idazleak. Poeta izan gura eban nobizio gazteak eupada errimea hartu eban Erriberrin: “Hogei urterekin Nafarroako Oliten zebilen. Bazuen irakurri-beharrik, bazuen irakurri-nahirik. Bazen eta ari zen; baziharduen ahal zuen edozertan: irakurtzen, idazten, ikasten, ikusten. Mundua irekitzen ari zitzaiola zuen ohartzan, agertzen ari zitzaiola, begietan jartzen”³. Irakurri-, idatzi-, ikasi-, eta ikusi-nahi berorrek bultzatuta sortu zan Erriberrin/Oliten *Gure Izarra* aldizkaria, urte askoan komentuko filosofoen lanen bilgune eta talaia literarioa izan zana.

***Gure Izarra*: ale bakarreko aldizkari erraldoia⁴**

Euskera hutsean idatzitako aldizkari hau 1950ean sortu, eta 1974an eten zan, Oliteko nobizio frantziskotarrak, filosofoak, beste komentu batzutura barreiatukeran. *Gure Izarra* aldizkariak iraun eban bitartean, *Potxolo* (bizkaieraz), *Eutsi*, *Piztu* eta *Gure Izartxo* izeneko aldizkaritxuak atondu izan ziran Oliteko komentuan, beti be iraupen eta maiztasun desbardinakaz. Horrek guztiak argiro erakusten dau orduko frailegai euskaldunen adorea eta kemena, baita kulturea euskeraz lantzeko konpromezua be⁵.

Kanpora begira, oso zabalkunde mugatua izan eban *Gure Izarra* aldizkariak. Izan be, aldizkari komentuala –barrura begira egiten zana– izateaz aparte, kopia bakarra egiten zan, Olitetik Arantzazura joan-etorria egiten ebana. Errito zirrargarri bat bailitzan, idazmakinez jotako ale bakar horrek, eskuz esku pasaukeran, emozinoz beteazoko zituan, ezbaierik barik, Olite zein Arantzazuko fraile gazteak.

Aldizkariak iraun eban epean, 43 zenbaki argitaratu ziran: lehenengo hamar urteetan (1950-59) hamaika zenbaki, eta gainontzeko hamalau urteetan hogeta hamabi. Beraz, ia urtekari izatetik urtero bizpahiru zenbaki argitaratzera pasau zan aldizkaria bigarren epealdian (1960-74). Guztira, *Gure Izarra*-n 6.175 orrialde argitaratu ziran –batez beste 143 orrialde aldizkari-ko-, 306 idazle idatziak. Esan bakoa da idazle-eskola oparua izan zala *Gure Izarra* frantziskotarrentzat. Izan be, Arantzazun *Jakin* (1956) sortzean, Oliteko aldizkarian trebatutako idazleen partaidetza eta eragina erabagigarri be erabagigarria izan zan.

Aldizkarian erabilitako gaiak era honetara sailkatu leitezke: literatura, kulturea, euskal gaiak, filosofia, erlijinoa, eta garaiteko gaiak. Idazleak erlijiosoak zirala kontuan hartuta, deigarri begitantz jaku lehenengo lau arloak –kultur arloak, beti be– beraganduten daben pisua, %75 inguru⁶. Datu horrek agirian ixten dau aldizkariak eukan kultur izakera zabala.

Gure Izarra-k bere hogeta bost urteetan 23 zuzendari izan zituan. Kontuan hartu behar da lehenengo urte bietan (1950-51) zuzendaritza kolektiboa izan ebala aldizkariak. 1952an erabagi zan, zuzendaria eta haren laguntzaileak urtero –ikasturteka, irailetik irailera– aukeratzea. Hona hemen Erriberriko aldizkariak izandako zuzendarietako batzuk, danak be gaurko euskal kulturearen zimendu sendo diranak: J. Intxausti (1957), J. Azurmendi

(1959), P. Zabala (1961), J. M. Torrealdei (1962), I. Beristain (1965), J. Arregi (1972), J. Beloki (1974)...

Gerra oste latzean, bere ahalegintxua egin gura izan eban Oliteko izarrak euskal kulturearen ilunpea argitzeko, baikor eta apal, beti be: “*Gure Izarra* oraindaño nagitasunezko lotan egon geranoi euskeraren egunsenti pozgarria adierazten digun txoritxo abeslaria dezute”⁷. Izan be, horixe izan zan 25 urtez, aurtan 60 urte sortu zan aldizkari gogoangarria: barrurako –komenturako–, txori abeslari; kanporako, barriz, idazle-habi oparo be oparoa.

Bitoriano Gandiagaren lehenengo olerkiak, *Gure Izarra*-n

Dakigunez, B. Gandiaga 1949an joan zan Olitera, eta hasieratik bertatik implikatu zan *Gure Izarra* aldizkarian, bai zuzendaritza taldeetan, bai idazle modura be: “Euskaraz asko idatzi genuen Oliten. Astero lantxo bat, astero ateratzen genuen aldizkarrirako. Bagenuen beste aldizkari bat ere [*Gure Izarra*], noizik noizera eta mekanografiaturik eta dotore ateratzen genuena”⁸. Gandiagak 50-51 urteetan⁹ sei kolaborazino argitaratu zituan *Gure Izarra* aldizkarian: bost olerki eta prosazko lan bat. Bizkaieraz idatzitako lanotan erabilitako gai nagusiak honakook ditugu: a) Euskerea (“Tori...”, “Zertan ago?”), b) Gabonak (“Josu otz da”, “Gure Gabonak”), eta c) Begoñako Ama Birjina (“Agur Maria”, “Benedicta Tu”).

Esan geinke Gandiagaren lehenengo olerki argitaratuak (“Tori...”¹⁰) *Gure Izarra*-n ikusi ebala argia, aldizkariaren lehenengo zenbakian, 1950ekoan, hain zuzen be. Lehen zenbaki hau Loiolako Inaziori eskeini eutsien Oliteko frailegai gazteak, eta bertan Gandiagak beren-beregi eskeintzen deutso Inaziori ikasle filosofoen aldizkaria, euren bihotzetako labetik harako *Izarra*:

Tori...

Iñaki Deuna zaindari dozun
Euskera ederra,
artu “Izar” au t apaindu zure
burestun zarra
bitxia bada zuretzat, ama,
“Gure izarra”.
Jakin bazenki!... Zuri deusugun
maitetasunak
batu eragin deuskuz “Izarran”
printza oriak
ta zillarrezko dizdizeratxu
zuri zuriak,
Erregin orren bekoki ori
argi ikusi
nai dogu eta; begira, ama,
gure lan oni
bildu deusugun maite opari!...
Tori!...¹¹

Lehenengo olerki honetan, daborduko, presente dagoz Gandiagaren obra poetikoan nabarmenduko diran zenbait ezaugarri eta konstante: euskerea dau kantagai; metrikoa pentsamenduaren erritmoan darabil; hoskidetza-aliterazioak indartsu dagerkiguz... Bere “itzaren billa” ebilen gaztearen ibilbide poetikoa hasita dago. Orbelaungo semeak amestutako hitz poetiko harek (“Lotu bako berba nai dot: / soiñu galdu bat lakoa; / usain askatutakoa; / edo kolore pintatu bako / dan ez dan-ezkoa.”¹²) *Gure Izarra* aldizkari sortu barrian ikusi dau argia.

Hurrengo urtean, 1951n, Oliteko frailegaiak *Gure Izarra*-ren zenbaki bi argitaratu zituen, bigarrena eta hirugarrena, eta bietan hartu izan eban parte Gandiaga gazteak. Bigarren zenbakian, Gabon giroko olerki bi argitaratu zituan: “Josu otz da”¹³ eta “Gure Gabonak”¹⁴, bigarren hau *Orbelaun* ezizenagaz sinatuta. Irakurleak dakianez, B. Gandiagak *Gabon dut anuntzio* (1986) liburuan,

Gabon giroko hainbat olerki batu zituan, 1970-1985 urteetakoak danak be. Liburuko eskeintzan honako haxe irakurri leiteke: “Gabon-jaiak pozkariz ospatzen / irakatsi zidaten Jose eta / Anastasia Orbelaungoei”. Ikusten dogunez, hasiera-hasieratik agertzen jakuz buztartuta Gabonak eta Orbelaun baserria Gandiagaren olerkietan. Bost zortziko txiki osotutako “Josu otz da” olerkia, ohiko Gabonkantea da; “Gure Gabonak”, ostera, jostarinagoa da, askeagoa. *Gure* posesibo horretan, komentu barruko giroa iragartzen dau poeteak, flailegai gazteen arteko giro xalo eta alai: “Erriberrin bai da / zoriona, poza, / soñu ta abesti, / barre, kiskat otsa...”.

Gure Izarra-ren hirugarren zenbakian Euskal Herriko Ama Birjinak (Arantzazu, Begoña, Uxue...) dira ardatz. Izpiritu hori argi agertzen da Gandiagak prosaz idatzitako atarikoan (“Agur Maria”); eta, bizkaitarra zan aldetik, Begoñako Ama Birjinari leku zabala eskeintzen deutso. Hona hemen, zortzigarren eta azken ataltxua:

“Zeure aitzakaz, zazpi Andra Marin¹⁵ eskue-tatik goiatzuz ba, Begoñako Ama, *Gure Izarra* onetan Agur Maria kantatuz erromerian. Tori zeure sei aizten eta euskal Birjiña danen zorion-agurrak. Semeok geure Amen bularretan batu doguzan biotzkadak dituzu. Tori geure biotz agurra be. Agur Maria”¹⁶.

Zenbaki honetako “Zertan ago?”¹⁷ olerkian, Gandiagak barriri hartuko dau kantagai euskerea: “Zertan ago, euskalduna?... / ez dok ba ikusten / aztuta, il eien / Ama Euskera kutuna? / Nun dok aberritasuna?”. Kasuon, baina, euskerearen etorkizunaren inguruko kezka larria nabarmen agertzen da. Kezka hori –baita euskaldunon erantzukizuna be– sarri agertuko jaku hurrengo urteetako olerkietan. *Aberritasun* berbeak be argiro darakusku Gan-



diagak, gaztetarik, herrigintzaz izan eban lor sakona.

Hirugarren zenbakiko bigarren olerkia “Benedicta Tu” izenekoa da, eta berau dogu Gandiagak *Gure Izarra*-n argitaratutako azkena¹⁸. Olerkion, Gandiagak Begoñako Ama Birjina dau kantagai eta goresgai, barriren barri: “Oi nork goratu zainkezan Ama / Begoñakoa!... / Oi nork leukean zeure santuen / goitar mintzoa...”. Olerki luze hau ahapaldi bakar baten damosku Gandiagak, baina hamahiru bertsoz osotuta dago, danak be *10/5a* neurria daukienak¹⁹.

Azken olerki honetan frailegai gazteak bizi, zoli, abestu gura leuskio Ama Birjinari, baina bere mugak nabarmen ikusten ditu: “bizi abestu / gura neuskizu, naiz ta abesten / zeatz agortu / irudimena ta eztarria / kantaz urratu!...”²⁰. Kanta galantik ez

daukala dino Gandiaga gazteak, bai maitasuna, ordea; eta kantatxu bat, frantziskotarrak hainbeste maite dabena: “Tori / daukotsudana: / ‘Benedicta Tu’²¹, Onetsia Zu”. Edozelan be, olerkariak eskeintza handiago bat gura leuke *Argi ta Eder* horrentzat: “milla eresi eder, bikañak / ez dozuz naiko”. Hori dala-eta, izadi-gizadiak jarriko deutoz kantari Ama Birjinari: *euzki-izarrak, igetargia ta anai suak kanta beizue; kanta beizue Goiaingeruak; kanta beizue mendi gallurrak; kanta beizue odei ta euri, lei ta edurrak; kanta beizue ederzaleak, maite zaitunak; kanta begizu “Benedicta Tu” izadi danak...*

Hementxe amaitzen da Gandiagaren Olite-aldia. Hiru urteko egotaldi horretan sendotu egin da poetaren euskaltasuna, findu haren idazkerea, umotu haren olerkari sena. *Gure Izarra* txiki-erraldoiak argi egin deutso Gandiaga gazteari Parnasorako bidean. Arantzazun jasoko ditu Erriberrin ereindakoaren fruituak; eta, bertatik, elorrien erreinutik, opetsiko deutso euskal literatureari uzta jori hori.

OHARRAK

¹ Gandiaga, Bitoriano: “Nere obraz”, *Hegats*, 4, 1991, 207-217.

² *Arendui*: “Gandiagarekin: ELORRI (I)”, *Arantzazu*, 691, 1990, 20-21.

³ Gandiaga, Bitoriano: *Denbora galdu alde*, Erein, Donostia, 1985, 34-35.

⁴ Atal honetan, Paulo Iztuetaren “Eliz ikastetxeetako aldizkariak” (*Jakin*, 21, 1981, 49-71) artikulua bikaina izango dogu gidari.

⁵ Urte batzuk lehenago, gerra garaian (1936-37), *Loramendi* izeneko aldizkaritxu bat sortu eben Oliten bertan S. Mitxelena eta K. Iturriak, baina egoera makurrak laster zapuztu eban proiektua.

⁶ Paulo Iztuetak zehatz-mehatz damoskuz portzentaia, gorago aitaturako artikuluan (62. or.): literatura (%23,02), kultura (%19,62), euskal gaiak (%16,95), filosofia (%14,63), erlijinoa (%12,89), eta garaiteko gaiak (%12,85).

⁷ *Gure Izarra*, 1, 1950, 2. or.

⁸ Gandiaga, Bitoriano: “Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats*, 17/18, 1997, 99-109.

⁹ Lehenengo urte bietan hiru zenbaki argitaratu ziran: 1950ean bat, eta 1951n bi.

¹⁰ *Gure Izarra*, 1, 1950, 44. or.

¹¹ Ikusi www.gandiaga.com. Eskertzekoa da Paulo Agirrebaltzategik egindako behar eskergea, B. Gandiagaren obra literarioa danon eskura egon daiten.

¹² Gandiaga, Bitoriano: *Elorri*, EFA, Oñati, 1962, 24. or.

¹³ *Gure Izarra*, 2, 1951, 63. or.

¹⁴ *Ibidem*, 63-64.

¹⁵ P. Agirrebaltzategik ohartzen deuskunez, aitamaren horrek S. Mitxelena kanta baten dau oinarri: “Zazpi aizpatxo”, *Ogei kanta Arantzazuko*, EFA, Oñati, 1952 (2. ed., 1969, 18-19).

¹⁶ *Gure Izarra*, 3, 1951, 2-4. Atarikoaren amaieran poematxu hau idatzi eban Gandiagak: “Artu, anaia, *Gure Izarra* / ta irakurri egizu. / Zeure anaian Andra Marian / maite kantua bai dozu. / Irakurriaz, besterik ezik, / zeuk be abestu eiozu”.

¹⁷ *Gure Izarra*, 3, 1951, 26. or.

¹⁸ *Ibidem*, 39. or. Olerki honek *Bitoriano Gandiaga. Poema argitaragabeak* argitalpen laukotxean ikusi dau argia barriro: *Jainkomez* (Patxi Ezkiagaren edizioa), Arantzazu-Elkar-Labayru, Donostia, 2005, 165-168.

¹⁹ Era honetara dagoz antolatuta azpiatalak ahapaldi bakarreko olerki luze honetan: a) I-VI (zortzikoak), b) VII (hamabikoa), c) VIII-XII (zortzikoak), eta d) XIII (laukoa).

²⁰ Antzeko hausnarketa egingo deusku urte batzuk geroago (*Uda batez Madriren*, 48. or.): “Kantagairik asko, baina / ez dakit nola kantatu, / kantagairik asko baina. / Hizkuntza ez zait iristen, / ala ezin dut moldatu”.

²¹ Ikusi: [Ames bat itxartu da nire begiotan], *Elorri*, 122-123.

Bitoriano eta Joxe, a ze parea!

Lau puntu besterik ez, Joxe Azurmendiren *Azken egunak Gandiagarekin* liburuaz. Argitaratu Elkar argitaletxeak egin du eta liburuak lauhun eta berrogeita bederatzi orrialde ditu. Liburu mar-dula, beraz, ohituak garen euskal liburuen tamai-narako.

Lehen puntua. Bitoriano Gandiagaren izarra. Bitoriano Gandiaga hil zaigunetik, 2001eko urtarrila-ren 21ean, berak idatzitako liburuak argitaratzen jarraitzen dira behin eta berriz: 2001ean, Bitoriano hil eta urte berean, berari eskainitako *XX. mendeko poesía kaiera* argitaratua izan zen, baita *Bizitza itxa-ropen delako* antologia ere eta *50 Olerki gandiaga-tar*; 2003an, *Justizia eta bakea* eta *Jaunarekin supaz-terrean. Gandiaga oroitzuz*; 2004an, *Adio* olerki libu-rua; 2005ean *Argitaratu gabeko poemak*, lau liburukitan: *Euskalminez*, *Biziminez*, *Jainkominez*, *Izadiminez*. Aldi berean, Pablo Agirrebaltzategik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Bitoriano Gandiaga *webgunea* prestatu ziguten, eta bitartean, artikulu mordo eta liburu berri bi argitaratu zaizkigu: 2007an, *Herri maitea herri dorpea* Bitoriano Gan-diagaren *Hiru gizon bakarka* liburuari buruzko azter-

teka luze eta mamitsua eta 2009an gaur aurkezten dugun *Azken egunak Gandiagarekin...* Argitalpen horiez gain, laster berrargitaratuko da Gandiagaren *Uda batez Madrilen*, Xabier Egañaren irudiekin. Argitalpen horiek guztiek adierazten digute Bitoria-no Gandiagaren izarra, idazlea hil eta gero ere, han-diagotuz doakigula euskal literaturaren zeruan, altua-go eta distiratsuago, zenitera noiz iritsiko jakin gabe.

Bigarren puntua. Jose Azurmendiren maisuta-suna. Joxe Azurmendik Bitoriano Gandiagaz idaz-ten dituen lan guztiak interesgarriak ditugu. Hori jazotzen zaigu Joxeren baitan gauza bi batzen dire-lako Euskal Herriko gizaseme gutxiengand biltzen direnak: lehena: Joxe Bitorianorekin bizi izan zen eta elkarrekin hitz aspertu luzeak egin zituzten, bai Arantzazuko komentuko klaustro umelean: “T’eu-ria, t’euria”... bai Urbiako baso edota landa lauetan ere, non “urre ta argitan daukie(n) goiza / milla txo-rien kantuek”; eta bestea, Joxe oso jantzia dagoela-ko Bitorianori ikusi eta entzun zion guzti hura zuzen eta sakon interpretatu eta guri azaltzeko, bera baitugu, seguru asko, euskal saiolaririk sakon eta prestatuena.

Hori dela eta, Gandiaga zaleok, Joxe Azurmendik Gandiagari buruz zer edo zer idazten duenean, arineketa goaz liburua erosi eta irakurtzera. Betiko geratuko zaigu, esaterako, *Elorri* liburuko atalxo guztietarako Joxek idatzi zuen sarreratxo bana eta *Hiru gizon bakarka* libururako *Epilogo* gogoangarria, eta *Adio* libururako paratu zuen *Hitzaurre moduan* atariko aberasgarria edo eta prentsan Gandi-ri buruz Jesek egindako iruzkin mamitsuak eta abar... eta, zer esanik ez, *Azken egunak Gandiagarekin* liburu aberasgarria.

Hirugarren puntua. Bitoriano Gandiaga eta Joxe Azurmendi. A zer para: “Gandiaga niregan dago” idatzi zuen Joxek, urteak direla. Eta zer esan *Azken egunak Gandiagarekin* delako liburu honetaz? Lehenik eta behin, Joxe Azurmendiren libururik *pertsonalena* omen dugula, gure libururik pertsonalenetariko ere bilakatu ahal zaiguna. Bitoriano Gandiagari buruz Joxe Azurmendiren (edota gure) libururik pertsonalena? Bada bai, liburu honetan gure gauza pertsonalez jarduten baitute, luze eta sakon, nor eta Bitoriano Gandiagak eta Joxe Azurmendik.

Izan ere, liburu honetan kontatzen zaiguna bidaia antzeko bat da, guztiok, nahitaez, egin beharrekoa, bizitzako une edota gertakizunik adierazgarrietan zehar: “Zer da sinestea? Zer ote da Jainkoa?” (93. or.), zelan erlazonatu Jainkoa eta giza askatasuna (350. or.)?, nola daude lotuta Jainkoa eta gizakien arteko elkartea (378. or.)? zelan sortu zen mundua (197-209. or.)? “Nondik gatoz? Nora goaz?” (239. or.), ‘herria’ deitzen dugun ‘hori’ zer da? “zeri deritzogu hemen (bizi) zentzua?” (141. or. eta j.), “Nola sortzen dira balioak?” (187-190. or.), “Izan ere, arima zer da?” (211. or. eta j.), zer infernua (248-260. or.)? “Zer deritzogu errealtatean?” (261-275. or.)... eta, labur beharrean, zer zaigu “handi txipiak bardintzen” dituen heriotza (211-260. or.)?... Gauza pertsonalagorik ote?

Azalpen bila Joxe Azurmendik mundu guztiko literatoengana jotzen du: Zola, Voltaire, Tolstoi, Baroja, Unamuno, Basterra... filosofoengana ere: Pascal, Descartes, Marx, Engels, Nietzsche, Russell, Heidegger... eta, nola ez, Bitoriano Gandiagarengana ere bai.

Bidaia hori modu batera egin zuen Bitoriano Gandiagak, Orbelagungo seme eta Arantzazuko fraide umilak, eta beste modu batera Alemanian, Erroman eta abarretan ibilitako Joxe Azurmendi saiolari, filosofo eta teologoak... Urteak aurrera joan eta, bidaiaren azken etapan, erromes biok berriro elkartu dira eta bidaiaren esperientziak elkarri kontatzen dizkiete, non eta *Azken egunak Gandiagarekin* liburuan, hain zuzen ere. Eta filosofo jantziak onartu behar du Arratzu, Mendata eta Arantzazu ia besterik ezagutzen ez zituen Orbelagungo semeak gizakioi egokituriko oinarritzko gauzei buruzko iritzia balitekeela izatea berak, munduan zehar ibilita gero, batu diguna baino iritzi edo sintesi diferentea ez ezik baita sakonago edota mamitsuagoa ere.


Izan ere, Joxe Azurmendik Bitoriano Gandiagaren bizitzarekiko esperientzia munduko pentsalaririk entzutetsuenen pentsarearekin elkartu eta konparatu egiten du. Eta honetaz konturazten digu: Arratzu edota Mendatako kanpaiek aparteko eraz jotzen dutela munduko kontzertuan, baina ez sakontasun eta jatortasun gutxiagorekin. Joxe idazleak honelaxe adierazten digu: “Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat, arrotza ez, baina bere ebidentzia masiboarekin kasik ikaritzen ninduen zerbaitez. Errealismo ikaragarrikoa. Berak asmatzen zuen, egiten zuena –libertate guztiarekin baino areago, asmatzearen poz guztiarekin– beti berregiten. Kredoa asmatzen” (135. or.).

A ze ikasketa interesgarria! Giza ardurarik sakenak argitzeko orduan, baliteke balioagarriagoa izatea, mendeetan zehar, euskal kulturaren batu zai-

gun esperientzia metatua, modernitateko filosofoen itzulinguru korapilatsuetan bildutakoa baino. Bali-teke, badinotsuet..., ez da asko, gutxi ere ez baina!!! Horrek ez gaitu eroan behar modernitateko pentsalarien mezuen aurrean ez entzun egitera, gauza guztiak entzun eta berriz baloratzea baino, etxeko gorabeherekin hasita baino. Joxe Azurmendik esaten digun eran: Giza bidaia abiatzerakoan, “ez dugu pentsatuko Einstein Orixeren amona (edota Orbe-laungo Anastasia) baino parada hobean dagoenik” (*Berria*, 10.01.16).

Laugarren eta azken puntua. Nola irakurri liburua. Egia esan, Joxe Azurmendiren *Azken egunak Gandiagarekin* liburua barru gogor eta indartsuenentzat dugu, ugariak baitira, liburu horretan biltzen zaizkigun goi mailako pentsalarien iritzi, tesi, kontra-tesi eta iruzkin edota komentarioak, ez

beti errazak. Baina horrek ez du esan gura urdail biguneko irakurleek, gutariko gehienok, ezin dugula liburu hau irakurri eta gozatu. Inondik inora ere... Horrelako kasuetan egin behar duguna zera da: liburuak une egokietan eta dosi txikitik ‘hartu eta jan’. Ez diot inori gomendatzen liburu hau autobusean irakurtzea, ezta liburu osoa jarraian ere. Leidutekotan, irakur egizue patxadaz eta, nahi izanez gero, apurka-apurka... txatal batzuk ere irakurri gabe uzteak ez digu kalterik egingo... baina irakurri, horrelako liburuak irakurri barik lagatzea... horixe bai izango litzaiguke kaltegarri: batetik liburu honek Bitoriano Gandiagaren dimentsio sakona azaltzen digulako eta, bestetik, giza biziari buruzko itaunei atentzio pixka bat, noizean behin gutxienez, eskaintzea mesedegarri izan ahal dakigukeelako. Halaxe izatea opa dizuet. Eskerrik asko.



Fasio



Arratiak iragan aberatsa dauka arlo askori jago-kenez. Tradizino hori ezin da ahiztu, gure orainaldia be horren gainean eregiten dalako. Literatureari erreparatuz, 2004an *Arratiako euskal idazle aitizindariak* liburua kaleratu zan, arratiar askok alkarlanean egindako lana. Baina musikea ezin dogu alde batera itxi, musikeak euskal kulturaren eta gu guztion bizimoduan garrantzi handia daukalako, orainaldian zein iraganean. Tradizino horren barruan aita-tu behar dira, besteak beste, *Txilibrin*, *Karakol*, *Popon*, Leon eta Maurizia, *Fasio* eta beste asko.

Bonifazio Arandia, *Fasio*, Igorreko Elexalde auzoan jaio zan 1909an. Igorren jaio eta herri berean hil zan 1987an. Baserrian behar egiteagaz batera, fabrikaren behar egin eban. Baina filarmonikearentzat beti euki eban astia.

Fasiok familian musikearen arloan ez eban aurrekaririk izan. Berari gazte-gaztetan sortu jakon musikarako zaletasuna. Hamabost bat urtegaz hasi zan erromerietan jotzen, filarmonikea alboan dala. Arratian plazarik plaza ibili zan ordutik, dultzaineroen eta beste soinulari batzuen antzera. Arratia futbol taldea animetan be ibili zan.

Fasio herritik sortutako musikaria izan zan, eta herriak berak dedikazino hori eskertu gura izan eutsan. Hori dala eta, 1988an, soinularia hil eta urtebetera, Igorreko herriak Garbe auzoan omenaldia egin eutsan, bertan iturria ipinita; erakusketea egin zan eta musika eta dantza saioak egin ziran. Baina omenaldia ez zan horretan lotu. 2009an, soinulariaren jaiotzaren ehungarren urteurrenean, ekitaldien programa zabala antolatu zan Igorren.

Ekitaldi horretan parte hartu eben hainbat musikaririk, mahai-ingurua egin zan, erakusketea, dantzaldia... Baina, horri gitxi eretxita, hasiera-hasieratik CD-DVD-liburua argitaratzeko proiektua mahai gainean ipini zan. Eta horixe da, hain zuzen be, urrian Igorren aurkeztu dana: *Fasioren Mendea. Bonifazio Arandia Uriarte (Igorre, 1909-1987)*, Aiko Taldeak, Igorreko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak atara dabena.

Hainbat personak hartu dabe parte lan honetan, materialak bildu, testuak idatzi, zuzendu, editau eta beste gauza asko egiten. Persona askok argazkiak eta bestelako materialak itxi dabez, eta ezin dira ahaztu borondaterik onenagaz debalde behar egin dabenak. Izan be, holango proiektu batek ezin leike argirik ikusi askotan behar dan beste eskertuten ez dan beharra egin barik.

Liburuko testua Aingeru Berguicesek idatzi dau. Ikerlaria 1936. urtera arteko Arratiako soinularien mundua aztertzen dabil, eta berak ondo baino hobeto ezagutzen dauz Fasioren inguruko kontuak. Testuan, filarmonikearen historia apur bat kontau eta gero, Arratiako soinulariaren mundua eta Fasioren musika-errepertorioa azaltzen dauz.

Liburuagaz batera, CDa eta DVDa be atara dira. CDan Fasioren grabazioak agertzen dira, filarmonikea jotzen zein berbaz, 1985eko agorrilaren 29an, 76 urte ebazala. Fasioren entzunda, alkarrizketa laburra izan arren, gizona zelangoa zan ikusten dogu: umore handikoa, kantsauezina, apala. DVDan Fasio bera ikusi geinke filarmonikea jotzen, bakarrik zein lagunduta, baita 1988ko omenaldia be. Musikariaren testigantza paregabea izateaz gainera, CDa eta DVDa material etnografiko garrantzitsuak be badira.

Honek guztionek gogoeta bat eragiten dau. Arratiako musikariak gure tradizioaren ordezkari nagusietakoak dira, orainaldiak oinarri daukan hurreko iraganaren zutabe. Mauriziari buruzko liburua kalean dago, Leon Bilbaori be omenaldia egin jakon, *Txilibrin* ezagunaren jaiotzaren ehungarren urteurrena be laster dator... Baina Fasiogaz egin dan lan itzelak jarraipenik eukiko ete dau? Penea da hain hur daukagun errealidadea baten batek ez batzea. Horretarako baliabideak ipinten ez badira, betiko ahiztuta geldituko dira, eta nire eretxian, hori gure zutarrak ukatutea bestekoa da.

Aurkibidea aiez ale

Idatz & Mintz 1, 1981

ZARATE, Mikel. *Idatz eta mintz*, 3-6 – ETXEZARRAGA, Jesús Antonio. *Laztanaren portalean*, 7 – SALABERRI, Dani. *Olerti*, 8-9 – TXINTXARTA. *Olerti*, 10-11 – MURELAGA, Nere. *Autsontziak gogoe-tan*, 12-13 – EGUZKI. *Bai zera!*, 14-16 – AREJITA, A.; LINATZA, I.; OLABARRIAGA, J. *Ahorik aho*, 18-19 – MARKAIDA, Bene. *Omenaldia*, 21-27 – MEABE, Miren Agur. *Hondarrean*, 29 – ETXEBARRIA, Igone. *Errefrauen espresabideak*, 30-31 – CALVO SERRALLER, F. *Luis Gordillo*, 32 – WINDSOR-KULTURGINTZA. *Denporaldi baterako ertilariak*, 32 – NIGHT, A. *Artean osatasuna*, 33 – AGIRIANO, M. *Erakusketak*, 33 – KORTAZAR, Jon. *Izuen gordelekuen barrena*, 34 – KORTAZAR, Jon. “*Xaguxarra*”*k bigaren zenbakia*, 34 – ZUBIKARAI, J.A. *Musika-giro aberatsa aurtengo udazkenean*, 35.

Idatz & Mintz 2, 1982

ETXEZARRAGA, Jesus A. *Marakahotsak*, 3-5 – MEABE, Miren Agur. *Bihotzaren nasara*, 7 – BILLE-LABEITIA, Miren Maite. *Eguzkiaren argitasuna*, 9 – ARTIAGOITIA, Xabier. *Udazkeneko itzalak*, 10-12 – NERUDA, Pablo; ZUPIRIA, Bingen (itzul.). *Ozkorrian ene zeruan...*, 13 – TXINTXARTA. *Olerki*, 14 – ZUPIRIA, Bingen. *Fany*, 15-16 – AREJITA, Adolfo. *Gandararen Gabon kanta ezezagun bat (1762)*, 18-19 – BARRUETABEÑA, Sabin. *Bahe zulo barria*, 21-22 – KORTAZAR, Jon. *Lauaxeta gogon-an*, 23-26 – ARRIOLA, Fernando. *Behin baten*, 27-28 – AREJITA, Adolfo. *Prantzie-kortekoa erro-mantzea*, 29-32 – LINARES, Félix. ... *eta “Oskorrik”-k jarraitu egiten dau*, 33 – ETXEZARRAGA, J.A. “*Maiatz*” *literatur aldizkari barria*, 34 – KORTAZAR, Jon. *Angel Lertxundi. “Tristeak kontsolatzeko makina”*, 35.

Idatz & Mintz 3/4, 1982

Meabe, Miren Agur. MEABE, Miren Agur. *Sugar*, 3-4 – ETXEZARRAGA, J.A. *Xiberutar ohiak*, 5 – KAL-ZAKORTA, Jabier. *Balizko ametsaren historia*, 6-7 – SÁNCHEZ LAFUENTE, Iñaki. *Arrosa zuriaren ipui-na*, 8-10 – ZUBIKARAI, Agustin. *Ule baltz*, 11-13 – TXINTXARTA. *Olerkiak*, 14-15 – BENET, Joan; KORTAZAR, Jon (itzul.). *Lehenengo alegia*, 16 – URKIAGA, Estepan “Lauaxeta”. *Olerkiak*, 18-19 – ETXEZARRAGA, J.A. *Orioloa. Andrés Lozanoren berrirakurketa*, 21-23 – MARKAIDA, Bene. *Emakumea txofer*, 25 – ZUNZUNEGI, Jon Iñaki. *Amets? bat*, 26-28 – AREJITA, Adolfo. *Arantzazure, erro-mantze zahar ezezagun bat*, 29-31 – KORTAZAR, Jon. *Etxeita eta nobelagintza*, 32-34 – KORTAZAR, Jon. *Ahozko literatura aztertzen*, 35.

Separata. LI PO; SARRIONAINDIA, Joseba (itzul.). *Poema batzu*.

Idatz & Mintz 5, 1983

OTXOLUA. *Biar Donianera*, 3-6 – AREJITA, Adolfo. “*Alaba gaztearen ipuiña*”, *Rakel Badiola eta Emilia Zelaia jasoa*, 7-9 – AREJITA, Adolfo. “*Iretargiak argi eiten dau*”. *Balada liriko zahar polit bat*, 10-12 – ZUPIRIA, Bingen. *Hutsune bat sumatzen dut (1978-1980)*, 14-23 – BASTERRETXE, Jose Inazio. *Edurra zan eta*, 25-26 – ARRETXE, Jon. *Gau haretan*, 27 – UNZUETA, Lourdes. *Bidariarena*, 28-29 – PEDRO, Jokin de. *Te iluna*, 30-31 – KORTAZAR, Jon. *Lauaxetaren iturriak dirala eta ohar pare bat*, 32-33 – KORTAZAR, Jon. *Atxagaren ispiudobleak*, 34 – KORTAZAR, Jon. *Hiltamuzko lan-tuak. Pio Berasategi. Kostumbrismo barria*, 35 – KORTAZAR, Jon. *Joan Mari Irigoien. “Poliedroa-ren hostoak”*. *Mototik mitora*, 35.

Idatz & Mintz 6, 1983

LAUAXETA. *Illuntzeko izarra*, 3-4 – ZIDARRE, K. *Harria*, 5 – MEABE, Miren Agur. *Leiho berdea*, 6-8 – AREJITA, Adolfo. *Eustakio ulea. 1912ko apirillaren 25ean Gatican anuntziatua San Marcos egunean*, 9-11 – BARRUETABEÑA, Sabin. *Atzera begira*, 12-13 – UNZUETA, Lourdes. *Gasteluan*, 14 – AREJITA, Adolfo. “*Ana Juanita*” *erromantzea*. Eredu barriak. lehen partea, 16-17 – ALBERDI, Jabi. *Egiaz oso begi biziak dituk*, 19-22 – URUBURU, Laura. *Erbestean erne zan bihotza*, 23-25 – BILBAO, Xabier. “*Arrats-Beran*” eta “*Romancero Gitano*”, 26-27 – 27 – URRUTIA, Andrés. *Izaro galdua*, 31.

Idatz & Mintz 7, 1984

AZKUE, R. M^a. *Aritza ta ospala edo Prakaman ta Prakaman*, 3-4 – URUBURU, Laura. *Udalen*, 5-14 – AREJITA, Adolfo. N^o 52. *Ifar Amerikan egindako bertso papera*, 16-17 – LERTXUNDI, Anjel. *Lur hotz hau ez da Santo Domingo*, 19-20 – AREJITA, Adolfo. “*Ana Juanita*” *erromantzea*. Eredu barriak (eta bigarren partea), 21-24 – MEABE, Miren Agur. *Arrats berri*, 25-26 – JOYCE, James; URRUTIA, Andrés (itzul.). *Ostatua* (James Joyce-ren *Dubliners* liburutik itzulua), 27-29 – ERKIAGA, Eusebio. “*Lauaxeta*”z *barriren barri*, 30-31 – KORTAZAR, Jon. *Etiopiaz*, 31-32.

Idatz & Mintz 8, 1984

UNZETA, Sorne “*Utarsus*”. *Txoria kaiolan*, 3-4 – ARRIOLABENGOA, Julen. *Kandela baten argitan*, 5-12 – BASTERRETXEA, Jose Inazio. *Blauen-go aita-semeak*, 13-14 – ZUPIRIA, Bingen. *Muino horiek baino haruntzago*, 16-21 – UNZUETA, Lourdes. *Lurralde zabaleko piramidea*, 23-25 – AREJITA, Adolfo. *Eustakio eulearen bertso zaharrak*, 26-27 – AREJITA, Adolfo. *Bigorren ipuina*, 28 – TOLKIEN, J.R.R.; URRUTIA, Andrés (itzul.). *JRR Tolkien. Ainulindale Ainur-en musika*, 29-34 – URUBURU, Laura. *Itxasoaren neurrigabetasuna beti lurraren bila*, 31 – KORTAZAR, Jon. *Amaseigarrenean aidanez. bizitzaren beste aurpegia*, 35.

Idatz & Mintz 9, 1985

LARRAKOETXEA, Hipolito. *Zeberiotar eta dimostarrak... Eeeup!*, 3-6 – UGARTEBURU, Iñaki. *Ugari-xoena*, 7-15 – ERKIAGA, Eusebio. *Arizmendi gogoan dodala*, 16 – AREJITA, Adolfo. *San Antonio santu andia*, 18-19 – MEABE, Miren Agur. *Egunaren eskutik*, 21-25 – AREJITA, Adolfo. *Orriak airez aire, Jainko, giroko, balada, kantu bat*, 26-30 – ERKIAGA, Eusebio. *Gazigozoak (Tomas Agirre)*, 31 – ERKIAGA, Eusebio. *Azkueren “ardi galdua” zentsurape 1918 gn*, 32-33 – SARRIUGARTE, Iñaki. *Jaioko dira*, 34-35.

Idatz & Mintz 10/11, 1985

LIVIO, Tito; MOGEL, J.A. (itzul.). *Falisko maisubaren billaukerija*, 3-4 – ELORRIAGA, Yolanda. *Ainhoa*, 5-14 – GOROSTIZA, Javier. *Re minorrean, KV 626*, 15-18 – MEABE, Miren Agur. *Olerkiak*, 20-25 – FERNANDEZ ALBERDI, Kepa. *Mendekua*, 27-29 – ZUBIKARAI, Augustin. *Fede onekuak*, 30-33 – ARRIETA, Gurutze. *Zerk hutsitzen ete gaitu!*, 34-35 – KORTAZAR, Jose Mari. *Izangura*, 36-37 – CUNQUEIRO, Alvaro; URRUTIA, Andres (itzul.). *Hareazko erlojua*, 38-40 – URUBURU, Laura. *Ikatzeko biluzia*, 41-46 – ETXEBARRIA, Igone. “... *Julia dinotsut*”. *Julen Arriolabengoa*, 47 – ETXEBARRIA, Igone. *Literatur gazeta barria*, 47.

Idatz & Mintz 12, 1986

MURGA MUGARTEGI, Rafael. *Bigirea*, 3-5 – GOROSTIZA, Javier. *Florenzia, 1457*, 6-7 – URUBURU, Laura. *Eguzki haize hau*, 8-12 – RENTERIA, Aitziber. *Klaseko lehiotikan at*, 13-14 – AREJITA, Adolfo. *Botazinoetako bertsoak*, 16 – AREJITA, Adolfo. *Abadearen lapikotxua*, 17 – ARRETXE PEREZ, Jon. *Harrizurieta*, 19-21 – NEIRA VILAS, Xose; URRUTIA, Andres (itzul.). *Ni naz...*, 23 – WILDE, Oscar; AREJITA, Adolfo (itzul.). *Urretxindorra eta larrosea*, 24-27 – AGIRRE, Jesus Maria. “*Kcappo*” *edo marginaltasunaren kronika*, 28 – AGIRRE, Jesus Maria. “*Bi anai*” *edo indibiduen hauskortasuna*, 28-29 – ETXEBARRIA, Aitor. *Gabriel Aresti. “Mundu munduan”*, 30.

Idatz & Mintz 13/14, 1987

GRIMM ANAIK; LARRAKOETXEA, Ipolito (itzul.). *Narru-nabarra*, 3-6 – GOROSTIZA, Javier. *Gowna*, 7-10 – UNZUETA, Lourdes. *Oskol barruko ipotxa*, 11-13 – AREJITA, Adolfo. “*Neska ontziratua*” *baladaren eredu barri bat*, 14-16 – SARRIUGARTE, Iñaki. *1986.eko Bertsolari Txapelketa Nagusia*, 17-20 – BENGOTXEA, Jon Ander. *Ostera be, etengabe...*, 22-25 – URKIOLA, Edurne. *Yoga egiteko era egokia*, 26 – URKIOLA, Edurne. *Enaratxoaren eriotza urtero*, 27-33 – ARROITAJAUREGI, Silvia. *Mutila maitatu baina botila aukeratu*, 34-36 – ERKIAGA, Eusebio. *Zubikarai euskal idazleari gorazarre*, 37-38 – ETXEBARRIA, Jon Gotzon. *Lauaxeta eta latin olerkariak*, 39-42 – EGIDAZU, Jon. *Biktimaren seinaleak*, 43 – ETXEBARRIA, Igone. “*Dalila*”, *gazteentzako irakurgaia*, 44-45 – ETXEBARRIA, Igone. “*Hots!*”, 45 – ETXEBARRIA, Igone. “*Auñamendiko lorea*”, 46 – Arretxe, Jon.. “*KRESALA*”, 47.

Idatz & Mintz 15, 1988

GOIRIA, Andoni. *Kirikiño ta erbia*, 3-4 – GARRAMIOLAKOA, Josef. *Pentateon*, 5-10 – GOROSTIZA, Javier. *Orestes ganean*, 11-13 – AREJITA, Adolfo. *Lizardi eta euskal pizkundea*, 14-20 – ERKIAGA, Eusebio. *Irribarrea galtzen danean*, 21-23 – AREJITA, Adolfo. *Perua eta Marixa*, 24-25 ERKIAGA, Eusebio. ...*Uneka gaba*, 27 – ETXEBARRIA, Igone. “*Iparraren bila*”, 28– *Etxebarria*, XEBARRIA, Igone. “*Lehen triptikoa*”, 29. *Separata*. POUND, arata. POUND, Ezra; KALZAKORTA, Jabier (itzul.). *Cathay. Poemak*, 31 or.

Idatz & Mintz 16/17, 1988

AZKUE, Resurrección M^a. *Jaungoikoa eta foruak*, 3-11 – KORTAZAR, Jose Mari. *Soldaduak ez darabil guardasolik*, 13-26 – AGIRRE, Jesus Mari. *Zubikarairen narratiba*, 27-32 – ETXABURU, Jose Mari (“*Kamiñazpi*”). *Zubikarai’tar Augustiñ’eri omenez*, 33-34 – AREJITA, Adolfo. *Peru Dubakoren bertsoak*, 36-37 – MENDIGUREN, Xabier. *Ai Prai Bartolome, ai Prai Bartolome, zu joanda gero be, hemen gagoz gose*, 39-64 – GUIJARRO, Amaia. “*Rubaiyat*”. *Omar Kheyyam*, 65-66 – URRUTIA, Andres. *Itaka*, 67-70.

Idatz & Mintz 18/19, 1989

BAERTEL, Daniel. *Durango jai-aldi euskerazkoetan 1886an eginiko sermoia*, 3-10 – ARRETXE, Jon. *Harpa liluragarria*, 11-18 – AREJITA, Adolfo. *Frantzie-kortekoa, eredu barri bi*, 19-24 – ETXEZARRAGA, Jesus A. *Lino Akesolo*, 25-26 – ETXEZARRAGA, Jesus A. *Lembrome ben*, 28-29 – URRUTIA, Andres. *Giuseppina, Giuseppina*, 31-34 – KALZAKORTA, Jabier. *Bernardo Atxagaren “Obabakoak” liburuaren ganean*, 35-42 – ERKIAGA, Eusebio. *Mutiko baserritar baten oroitzapenak*, 43-44 – MEABE, Miren Agur. *Peneloperen poemak*, 45-53. *Separata*. ERKIAGA, Eusebio. *Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta*. 30 or.

Idatz & Mintz 20, 1990

ZARATE, Mikel. *Ura, zuhaitzak eta astoa*, 3-8 – ASTIGARRAGA, Asier. *Mikel Zarateren lanak*, 9-15 – ETXEBARRIA, Igone. *Mikel Zarateren euskera eredia eta literatur lanak*, 17-19 – AREJITA, Adolfo. *Mikel Zarate eta ahozko literatura*, 20-21 – ETXENAGUSIA, Karmelo. *Mikel Zarate, eliz idazle*, 23-24 – IRIGOYEN, Alfonso. *Mikel Zarateri*, 25 – BARAIAZARRA, Luis. *Iturri gozoaren etorria*, 26-27 – BARAIAZARRA, Luis. *Zintzo eta Mintzo*, 29-31 – IRAZOLA, Jose Mari. *Mikel Zarate alfabetatzen*, 32-33 – JIMENEZ, Edorta. *Mikel Zarateren ahotsa aditu uste izaten dut haurgintza minetan*, 35-38 – ETXEZARRAGA, Jesus A. *Mikel Zarate. hiru atzera jauzi*, 39-40 – ZUGAZAGA, Lorentzo. *Mikel Zarate, gizona eta abadea*, 41-45.

Idatz & Mintz 21, 1991

AREJITA, Adolfo. *Azkue gaztearen emaitza bat, Grankantoko arrantzaleak*, 3 – AZKUE, R. M^a. *Grankanton arrantzaleak*, 4-7 – UNZUETA, Josu. *Amesezko amagaraunak*, 9-12 – URKIOLA, Edurne. *Zelan daukat izena?*, 13-19 – MADARIAGA, Juan Ramon. *Olerkiak*, 20-22 – AREJITA, Adolfo; MANTEROLA, Ander; ETXENAGUSIA, Karmelo. *Derioko Ikastaroak Karmelo Etxenagusiaren gorazarrez*, 23-28 – AGIRRETXEA, Joseba. *Zeru iluna Dublinen*, 29-31 – AREJITA, Adolfo. “*Arrateko zelaiko bai floridadea*”. *Birjina Amandreari balada*, 32-36 – ARTETXE, Jexux. *957. gela*, 37-41 – ERZILLA, Manu. *Cornelius*, 42-43 – ZELAIETA, Angel. *Lino Akesolo'ren beharrak*, 44-45 – AREJITA, Adolfo. “*Gabeko atorra*”. “*Oskillaso*”ren nobela barria, 46 – ETXEBARRIA, Igone. “*Ipuin arinak*”. *Jabier Gorostiza*, 47-48.

Idatz & Mintz 22, 1996

AREJITA, Adolfo. *Jon izurrategi*. “*Patmos ugartea*”, 3-5 – SANTANO, Javier. *Carpamus Dulcia*, 6-10 – MIELGO, Roberto. *Aitiiteren moko*, 11-18 – ETXEBARRIA, Igone. *Eusebio Erkiaga. Araibar zalduna*, 19-21 – GAMINDE, Iñaki. “*Bart hamarretan*” baladaren bertsino bi, 22-23 – GOROZIKA, Jokin. *Izarren hautsa*, 26-27 – EGUZKIZA, Jesus “Eguzki”. *Nik nire mutikotako pelotie daukat goguen*, 29 – AROSTEGI, Luis. *Biografia-zertzeladak*, 30-33 – XARRITON, Piarres. *Aita Santi Onaindiari eskerronez*, 34-35 – LEKUONA, Juan Mari. *Aita Santi Onaindia eragile eta babesle euskal olerkigintzan*, 36-40 – AREJITA, Adolfo. *Santi Onaindia itzultzaile*, 41-42 – ETXEBARRIA, Igone. *Euskal literatura argitaratzeko ahalegina*, 43-45.

Idatz & Mintz 23, 1997

AREJITA, Adolfo. *Juan Antonio Mogel-Juan Jose Mogel. Juan kontxiaren ipuina*, 3-6 – ETXABURU, Josu. *Nire neurea*, 8-11 – ETXEZARRAGA, Jesus A. *Zortzi heriotzea*, 12-14 – MIELGO, Roberto. *Olerkiak*, 16-17 – MEABE, Miren Agur. *Urruneko muga zuria*, 19-23 – KALZAKORTA, Jabier. *Lapurdikoa eta Bizkaiko ipuin-eredu baten aldaera barriak*, 24-27 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Ivo Andric*. “*Un puente sobre el Drina*”, 28-29 – ELORRIAGA, Uniai. *J.M. Irigoien*. “*Kalamidadeen liburua*”, 29-30 – Agirre, Jesús Mari. RRE, Jesús Mari. *J.A. Marina*. “*El laberinto sentimental*”, 30-31.

Idatz & Mintz 24, 1997

BUSTINTZA, Errose “Mañariko”. *Jentilen bolalekua*, 3-6 – SANTXO URIARTE, Joseba A. *Bide barriak*, 8-14 – KALZAKORTA, Jabier. “*Auspoa*”ko ixtorio miragarriak, 16-18 – CID, Jesus A. *Una “laudatio” no académica*, 19 – ZAVALA, Antonio. *Derioko omenaldia*, 20-23 – KALZAKORTA, Xabier. “*Auspoa*” irakurriaz, 24-26 – URKIOLA, Edurne. *Anpolaiak*, 27-35 – BENGOTXEA, Jon. *Garobelen zehar*, 36-41 – ASTIGARRAGA, Asier. *Sorne Unzueta “Utarsus”*. “*Idazlan Guztiak*”, 42-43 – LIZARTZA, Ritxi. *Eugenio Arozena*. “*Aita Jose Anxieta (s.j.) dohatsua (1534-1597)*”, 44 – ETXEBARRIA ITURBE, Arantza. *Aingeru Epaltza*. “*Tigre ehizan*” – AREJITA, Adolfo. *Juan Bautista Bilbao “Batxi”*. “*Hau mundu arrano hau*”, 45-46.

Idatz & Mintz 25, 1998

AREJITA, Adolfo. *Gudu-oihartzunak XIX. mendean. Pedro Astarloak Longa gudu-buruzagiari eginitako gorazarre-gutuna*, 3-9 – MEABE, Miren Agur. *Igali ilun*, 10-14 – UNZUETA, Lourdes. *Jatea ahaztu jakon neskearena*, 15-16 – ETXEZARRAGA, Jesus A. *Laburrak*, 17-19 – URRUTIA, Andres. *Hodei mihi, cras tibi*, 20-24 – URKIOLA, Edurne. *Poemak*, 25-28 – MIELGO, Roberto. *Leopardi, 200 urte* – MIELGO, Roberto. *Putasemea*, 33-36 – ELORRIAGA, Unai. *Ez neban ulertu zergaitik*, 37-40 – KALZAKORTA, Jabier. *Bertso-paper zahar batez hitz bat edo beste*, 41-46 – ANSELM, Luigi. *Poema-sorta*, 47-49 – URRUTIA J.E. “Kapo”. *Johannes Sariu-koa*, 50-51 – PASOLINI, Pier Paolo; URRUTXURTUA, Jose Ramon “Utrex” (itzul.). *Amen balada*, 52-53 – IGERABIDE, Juan Kruz. *Heziketa modernoa*, 54 – LASA BARANDIARAN, Iñaki. *Katua arkaziaren puntan*, 55-56 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Bitoriano Gandiaga. “Ahotsik behartu gabe”*, 57-58 – LIZARTZA, Ritxi. *Koldo Izagierre, “Non gado basques’ barbour?”*, 59.

Separata. ARRESE BEITIA, Felipe. *Bizkaita zarrak eta erromatarrek*. 17 or.

Idatz & Mintz 26, 1998

AREJITA, Adolfo. *J. Mateo Zabalaren pitxi-lora batzuk*, 3-8 – ELORRIAGA, Unai. *Mensagem*, 9-12 – BILBAO, Begoña. *Itsasertzean gertatu zen*, 13-23 – URKIOLA, Edurne. *Ilune*, 24-26 – ETXEZARRAGA, Jesús A. *Hamaseigarrenean*, 27-28 – MIELGO, Roberto. *Poemak*, 30-31 – LEKUONA, Mixel. *Piarres Xarriton*, 34-35 – ETXEBARRIA, Igone. *Piarres Xarriton eskual kulturaren erakusle*, 36-39 – OIHARTZABAL, Beñat. *Piarres Xarriton. Iparraldeko 20. mendeko euskaltzaletasunaren lekuko*, 40-44 – AREJITA, Adolfo. *Piarres Charriton-i omenaldia. Hizlari baten dohaiak*, 45-48 – ANDU KOAXI. *Deshima*, 49-51 – UNZUETA, Lourdes. *Idazle lobagearena*, 52-55 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Wolframiozko hariaren argi iraultzailearen aldarria. Germinal!*, 56-57 – ETXEBARRIA ITURRATEGI, Arantza. *Joseba Sarrionandia. “Hitzen ondoeza”*, 58 – LIZARTZA, Ritxi. *Patxi Zubizarreta. “Gizon izandako mutila”*, 58 – ASTIGARRAGA, Asier. *Alexis Díaz-Pimienta. “Teoría de la improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo”*, 59.

Idatz & Mintz 27, 1999

AREJITA, Adolfo. *Prai Bartolomeren puriak*, 3-9 – ZUBIZARRETA, Patxi. *Palmondoak dira Euskal Herriko gauzarik onena (José Saramagori omena)*, 11-14 – MEABE, Miren Agur. *Olerkiak*, 15-17 – URRUTIA, J.E. “Kapo”. *Frantses tipia*, 19-25 – GOYTISOLO, José Agustín; ANSELM, Luigi (itzul.). *Así son/Halakoxeak dituzue*, 26-27 – DICKINSON, Emily; ANSELM, Luigi (itzul.). *I died for beauty/Edertasunagatik hil ninzen*, 28 – KALZAKORTA, Xabier. *Lekeitioko arrantzaleen biziera eta kanten gainean*, 29-43 – LIZARTZA, Ritxi. *Iñigo Aranbarri. “Harrien lauhaska”*, 44 – ROZAS, Ixiar. *Koaderno umezutza*, 45 – ARISTONDO, Iñaki. *Angel Lertxundi. “Azkenaz beste”*, 46-47.

Idatz & Mintz 28, 1999

AREJITA, Adolfo. *Zamarriparen lumeari firi-firia dario euskera*, 3-8 – RABELLI, Alvaro. *Michel*, 9-13 – ELORRIAGA, Unai. *Izurdiako zubian*, 14-16 – KALZAKORTA, Xabier. *Neska-mutilen arteko hase-reak*, 17-19 – MIELGO, Roberto. *Zazpi zigiluak*, 21-30 – URKIZA, Ana. *Harriek ere negar egiten dute*, 31-35 – SARRIUGARTE, Iñaki. *Jaime Sabines, poeta (1926-1999)*, 36-45 – ROZAS, Ixiar. *Jose Luis Padron. “Txori erratuen bilera”*, 46 – ASTIGARRAGA, Asier. *Antonio Zavala. “Euskal Erromantzeak/Romancero Vasco”*, 47 – ETXEBARRIA ITUARTE, Arantza. *Anjel Lertxundi. “Lehorreko koaderno”*, 47.

Separata. MEABE, Miren Agur. *Oi, hondarrezko emaikaitz! Garraitzetako itsas urak aitorturiko poemak*. 59 or.

Idatz & Mintz 29, 1999

AREJITA, Adolfo. *Manuel Larramendiko idazlearen lumaren zorrotza*, 3-5 – ELORRIAGA, Unai. *Ad calendas graecas*, 6-9 – RABELLI, Alvaro. *120 harmaila*, 10-15 – KALZAKORTA, Jabier. “*Alabaren heriotza*”ren aldaera berri bat, 16-23 – URKIOLA, Edurne. *Goimendiko artzainaren trikimailua*, 25 – ANDU KOAXI. *Mari Bekanekoa*, 26-31 – GOIKOETXEA ARRIETA, Juan Luis. *Uso zuria*, 32-33 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Ismaíl Kadaré eta lahutariak*, 34-42 – ROZAS, Ixiar. *Bernardo Atxaga*. “*Un traductor a París i altres relats*”, 43 – LIZARTZA, Ritxi. *Juan Karlos del Olmo Serna*. “*Jon Gurea. Parisen baltzana*”, 44 – ETXEBARRIA ITUARTE, Arantza. *Jabier Muguruza*. “*Laura kanpoan da*”, 45 – MEABE, Miren Agur. *Ana Urkiza*. “*Afrikako ahozko literatura, memoria kolektibotik kritika sozialera*”, 46-47.

Idatz & Mintz 30, 2000

AREJITA, Adolfo. *Alegien lorratzean eredu baten bidez. Zaldia eta astoarena*, 3-8 – MEABE, Miren Agur. *Ihesaren kantua (1998)*, 9-16 – BILBAO, Begoña. *Azken zizpuruak*, 17-26 – RABELLI, Alvaro. *Baltza*, 27-32 – OLASO, Xabier. *Poemak*, 33-35 – UNZUETA, Lourdes. *Martinen kontuak*, 36-37 – ELORRIAGA, Unai. *Julio Cortazar edo sasi-manifestu bat*, 38-42 – KALZAKORTA, Jabier. *Bertsopaper baten aldaera politak*, 43-49 – IZKRIBAU ZAHARRA. *Samuel Pealson*, 50-52 – AROUET, François Marie “*Voltaire*”; URRUTIA, Andres (itzul.). *Irakurzaletasunaren arrisku ikaragarriak (1765)*, 53-54 – BIKANDI, Amaia. *Zer ote zen?*, 55 – ZELAIA, Belen. *Zinema gauak*, 56-57 – BILBAO, Johana. *16 minutuko gogoeta*, 58-59 – GARTZIA TRUJILLO, Sebastián. *Domingo de Aguirre*. “*Sermoiak*”, 60-61 – ETXEZARRAGA, Jesús Antonio. *Xabier Amuriza*. “*Enaz banaz*”, 62 – URKIZA, Ana. *George Sand*. “*Negu batez Mallorcan*”, 63 – URKIZA, Ana. *Laura Mintegi*. “*Bai... baina ez*”, 64-65 – ETXEBARRIA ITUARTE, Arantza. *Iñaki Garcia Uribe*. “*Gorbeiako gurutzearen kondaira*”, 66.

Separata. MENDEZ FERRÍN, X.L.; URRUTIA, Andrés (itzul.). *Tagen Atarako itzulera*. 59 or.

Idatz & Mintz 31, 2001

AREJITA, Adolfo. *Pedro Astarloa olerkari*, 3-12 – FRANKO, Funts. *Zapata beltzak*, 12-16 – ANDU KOAXI. *Nartzisoren isilpekoa*, 17-21 – ASTIGARRAGA, Asier. *Amorfinoen ganeko kronika laburra*, 22-30 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Jose Juan Tablada*. *Haikuen maitalea*, 31-38 – KALZAKORTA, Jabier. *Zuberoako bi khantore edo baladen gainean*, 39-42 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Bitoriano Gandiaga (1928-2001)*, *bake mezulari*, 43-45 – ETXEBARRIA ITUARTE, Arantza. *Ramon Sainzarbitoria*. “*Gudari zaharraren gerra galdua*”, 46 – LIZARTZA, Ritxi. *Felipe Juaristi*. “*Animalien inauteria*”, 46 – ASTIGARRAGA, Asier. *José Manuel Pedrosa*. “*Tradición oral y escrituras poéticas en los Siglos de Oro*” eta “*Entre la magia y la religión. oraciones, conjuros, ensalmos*”, 47.

Separata. KALZAKORTA, Jabier (Sarrera eta edizioa). *Bettiri Santsen balentriak*. 29 or.

Idatz & Mintz 32, 2001

AREJITA, Adolfo. *Euskal erromantikoen ildotik. Felipe Arrese ta Beitia*, 3-8 – ELORRIAGA, Unai. *Markus L. Salke hil ostean*, 9-10 – AZPITARTE, Txaber. *Poemak*, 11-18 – AMONDAINAIN, Nagore. *Poemak*, 19-22 – KALZAKORTA, Jabier. “*Senarraren seinaleak*” baladaren aldaera berriak, 23-35 – GUTIÉRREZ RETOLAZA, Iratxe. *Miren Agur Meabe*. “*Azalaren kodea*”, 36-37 – LIZARTZA, Ritxi. *Rufino Iraola*. “*Hire magalean. 103. gelako gutunak*”, 37-38 – ETXEBARRIA ITUARTE, Arantza. *J.A. Artze*. “*XX mendeko poesia kaierak*”, 38 – URKIZA, Ana. *Seve Calleja*. “*Ni polita naiz, eta zer?*”, 39.

Idatz & Mintz 33/34, 2001

SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Bitoriano Gandiaga Artetxe (1928-2001). Biografia laburra*, 3-4 – *Gandiaga*, Bitoriano. *Ariketa*, 5-9 – SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki. *Bitoriano Gandiaga. gizon, frantziskotar, poeta maitatua*, 11-18 – ANSEMI, Luigi. *Arantzazuko talaiariak. B. Gandiaga eta Euskera*, 19-21 – KALZAKORTA, Jabier. *Arantzazuko baladen gainean*, 22-37 – KORTAZAR, Jon. *Gandiaga eta hizkuntza*, 38-39 – UNZUETA, Lourdes. *Atzera begiratu eta “Hiru gizon bakarka” ikusten ditut*, 40 – MIELGO, Roberto. *“Hiru gizon bakarka”. zenbait ohar*, 43-52 – GARTZIA TRUJILLO, Sebastián. *Sustraiak inoiz ahaztu ez zitzaizkion arbola. Mestizajeari buruzko ariketa*, 53-60 – ABRISKETA, Daniel. *Askoren artean. “Bitoriano Gandiaga eta Mendata”*, 61-65. Separata. SARRIUGARTE, Iñaki (Atarikoa eta aukeraketa); GANDIAGA, Bitoriano. *50 olerki gandiagar. Berrogeita hamar urte (1951-2001), hitza zizelkatzen*. 68 or.

Idatz & Mintz 35, 2002

AREJITA, Adolfo. *Frai Bartolomek kura jaunai eginiko agiriko gutunaren idazketa bi*, 3-9 – ELO-
